

Zu hemen zaude. goiena



UNIBERTSOA BEHATZEKO ZALETASUNA SUSTATZEN

Astrotopaketak iragarri ditu Ilatargi elkarteak Elgetan; besteak beste, teleskopioak atera gura dituzte kalera / 26

Ilatargi elkarteko kideak eguaztenezan Elgetan, teleskopioekin zerua behatzen. XABIER URZELAI

'Arrasate 1890-1940 Mondragon' liburua kalean da; herriaren historiaren zati bat, argazkitan / 8



SINADURAK



Karobiak: langintzen lekuko diren aztarnak

Ainhoa Becerrari elkarrizketa (Adinberri)

2x229€
ERREFLEXUEN AURKAKO
MÓ BETAURREKO
PROGRESIBOAK

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



835 91720

Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

www.multiópticas.com

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua

Irungo Harreman Sarea eta ikastolak elkarlanean

Azken urteetan elkartasun-ekintzak antolatu dituzte Debagoieneko ikastolek; oraingoan, migrazio politiken lanketa egin dute hiru ikastoletako ikasleekin eta hainbat jarduera prestatu dituzte bihar hasi eta hilaren amaierara bitartean

Idoia Aranbarri Arzuaga DEBAGOIENA Aranzadi, Arizmendi eta Txanxiku ikastolak migrazio politiken gaineko lanketa egiten ari dira Irungo Harrera Sarea elkartearekin batera, eta datozen bi asteetarako zenbait ekintza antolatu dituzte. "Hain presente dagoen problematika" ikusarazi nahi dute ekintza hauekin: "Askotan, migrazio politiken gaia lantzeko urrutira joaten gara, baina hemen Bidasoako muga daukagu". Irungo Harrera Sarea 2018an sortu zen Irungo eta Hendaia bitarteko migratzaileen egoera dela-eta, "modu solidario batean". Auzotarrek antolatzen dituzte lantaldeak, elikagaiak, arropa, garbitasuna eta bestelako laguntzak eskaintzeko. Ikastolen "balioekin bat egiten" zutela ikusita, proposamena egin zieten Irungo Harrera Sareari, eta elkartekoek "oso pozik" hartu zuten.

Elkartasun ekintzak

Hilaren 18an, material bilketak egingo dituzte Arrasateko Seber Altube plazan, Bergarako Irala kalean eta Oñatin Txokolateixa ondoan, 11:00etatik 13:00ra bitartean. Eskuko telefonoak –ahal den heinean, kargagailua barne eta mendiko oinetako, txamarra, praktika eta motxilak jasoko di-

tuzte. Ikasleen adinaren arabera lanketak egiten ari dira, baina, bereziki, DBHko ikasleengan jarri dute arreta. Gazteek Amets Arzallusen *Miñan* liburua irakurri dute, eta egilearekin solasaldia egingo dute hiru zentroetako ikasleek martxoaren 29an, 11:00etan, Seminarixoan. Ekitaldi "berezia" izango dela aurreratu dute, hiru ikaslek Arzallusekin batera hartuko baitute parte solasaldian.

Aste hauetako elkarlana biritzeko, ikasleek Irunera egingo dute irteera elkarleak egiten

duen lana euren begiekin ikusi eta arropategia nahiz jantokia bezalako txokoak gertuagotik ikusteko. Aranzadiko DBH3-ko ikasleak, martxoaren 30ean joango dira.

Bestalde, Bergarako Aranzadi ikastolaren kasuan, LH6-ko ikasleek azoka solidarioa jartzeko lanketa berezia egin dute. Postua hilaren 30ean jarriko dute Seminarixoko patioan, 17:00etatik aurrera, modu horretan, herritarrek aukera izan dezaten Irungo Harrera Sarearen aldeko ekarpena diruz egiteko.



Ekimenean parte hartuko duten zenbait ikasle eta guraso bilketako karteletan. I.S.



Toki komunikabideen elkarten ordezkariak, 2022ko azaroan, Bartzelonan. TOKIKOM

Tokikomen 10. urteurreneko jardunaldiak hilaren 24an

Manifestua sinatuko dute Herrialde Katalanetako toki komunikabideen elkarteak eta Tokikomek

I.A.A. ARRASATE

Tokikomek 10 urte bete ditu, eta, hori ospatzeko, urteurreneko jardunaldiak antolatu ditu hilaren 24rako, Getxon, *Komunikabideak etorkizuna ehuntzen* lelopean. Goiz osoko egitarauan, Britainia Handiko BBC telebista publikoko *Local News Partnership* eta *Shared Data Unit* sailtako, Galesko *Caerphylly Observer*-eko eta LLA Norvegiako toki komunikabideen elkarleko ordezkariak izango dira hizlari. Halaber, Tokikomen eta EITBren *Saretzen* eta EITBren *Primeran* proiektuak aurkeztuko dituzte, besteak beste.

Manifestua toki hedabideekin

Toki komunikabideen elkarten manifestu komuna sinatuko du Tokikomek Associacio Catalana de Premsa Comarcal, Associacio de la Premsa Comarcal Valenciana, Associacio de Mitjans

Digital de la Comunitat Valenciana, Associacio de la Premsa Forana de Mallorca eta Associacio de Premsa Local de Menorcaekin batera. Taldeko zuzendari Alaitz Artolazabalek dio "argi" utzi nahi dutela toki komunikabideen garrantzia: "Pandemia garaian, adibidez, izugarri handitu zen toki komunikabideen kontsumoa mundu osoan. Informazioa profesionaltasunez lantzen eta sektore ekonomiko indartsua osatzen dugu".

10 urteko ibilbidea

Euskarazko 76 toki komunikabidek osatzen dute Tokikom eta gaur egun 27 bazkide dira. 10 urteotako balorazio positiboa egin du Artolazabalek: "2023an 29 bazkide izatera iritsiko gara. Bateratu eta saretzea beharrezkoa da, mundu globalean elkarlana baita gako; are gehiago, gurea bezalako eremu txikian".



IGOGAILUEN MANTENTZE-LANEN ESKAINTZA ZORROTZENA

BENETAKO OROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

+2.000 bezerok gugan dute konfiantza

943 903 450
bertako.eus



Debagoiendarrak pentsiodunen baraualdian

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua baraualdi-itxialdia egiten ari da Bilbon, eta hamabost debagoiendarrek parte hartu dute protestaldian; bihar, manifestazioa izango da Bizkaiko hiriburuan, eta autobusa antolatu dute hara bertaratzeko

Idoia Aranbarri Arzuaga DEBAGOIENA
Bihar amaituko da Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua Bilbon egiten ari den baraualdi-itxialdia. Protestaren arrazoia da 1.080 euroko gutxieneko pentsioa aldarrikatzea. Halaber, pentsioetan dagoen genero-arrakala salatuta dute; izan ere, nabarmendu dutenez, Euskal Herrian 199.800 lagunek 800 eurotik beherako pentsioa dute, eta 154.000 emakumeak dira: % 76.

200 pentsiodun inguruk eman zuten izena baraualdian, baina, leku arazoengatik, egunegun txandakatzen doaz. Debagoieneko hamabost erretiratu izan dira ekintza horretan: Oñatiko hiru



Bost bergarar pentsiodunen baraualdi-itxialdian, martitzenean. I.U.

astelehenean; Bergarako bederatzirekin –bost martitzenean, hiru egunean eta bat gaur– eta Arrasateko hiru egunean. Xabier Oregi oñatiarra eta Itziar Usandizaga bergararra dira baraualdian egon diren bi. Biak 24 orduz egon dira baraualdian, baina Oregik azaldu du batzuek bizpahiru egun igaro dituztela. Hala ere, "bazegoen jendea prest bost egunak egiteko, eta zortzi bat lagunek bost egun egingo dituzte. 30 lagun egunero daude". Bergararrak eguazten goizean atera ziren baraualditik, eta Usandizagak adierazi du "txalo zaparradarekin" hartu zituztela.

Autobusa manifestaziorako

Bihar 12:00etan manifestazioa egingo da Bilbon eta pentsiodunek kaleetan barrena egingo dituzte aldarrikapenak. Debagoieneko pentsiodunek autobusa antolatu dute manifestaziora joateko, baina dagoeneko itxita dago izen-ematea. Autobusa 10:00etan aterako da Arrasatetik, 10:10ean Elorregin egingo du geldialdia eta 10:30ean, berriz, Bergarako Ibargarai autobus geltokian.

'Emakumeak gora!' kale-ekintza Arrasaten egon da

Arrasateko Udalak bat egin du Emakunde Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin eta beste hainbat instituzioekin batera bultzatutako *Emakumeak gora!* kanpainarekin. Martxoaren 13tik 16ra bitartean hiru eskailera more eta kartel egon dira ikusgai Seber Altube plazan; zenbait herritan egin den kale-ekintzaren helburu nagusia da ikusaraztea gizarteak emakume gehiago behar dituela erantzukizun-postuetan. Aurkezpenetan izan ziren Johana Sanchez, Arrasateko Udaleko Berdintasun zinegotzia; Nerea Isasi, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun zinegotzia; eta Maitane Muñoz, Arrasateko Udaleko Garapen Komunitarioko zinegotzia. Sanchezek nabarmendu zuen 2015etik Arrasateko Udalak %60 hazi duela Berdintasun Sailaren aurrekontua. Isasiren esanetan, "oraindik ere emakumeak desabantaila egoeran ageri dira eremu askotan, baita gure lurraldean ere".

ura URAREN EUSKAL AGENTZIA AGENCIA VASCA DEL AGUA EUSKADIKO ITUN BERDEA EUSKAL JAILURBITZA GOBERNO VASCO

Betidanik, beste inork baino gehiago irabazi diogu urari. Baina inoiz ez dugu izan dena galtzeko orain dugun arriskua.

EZ DAGO URA BAINO INDARTSUAGORIK

Elena Arzak, Chef.
3 Michelin Izar, 2012ko Munduko Emakume Chef Orena.

www.indartsuagoak.eus

Gazte independentistek hitzordua dute Oñatin

Ernai gazte antolakundeak 10 urte bete berri ditu martxoan. Testuinguru horretan, 'Debagoienetik dena aldatzen ari gara' topaketa egingo dute Oñatin bihar, zapatua. Apirilaren 6tik 8ra Elorrion izango den Gazte Topaketarako beroketa izango da

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Ezker abertzalearen baitako gazte antolakundea da Ernai, izaera independentista, feminista, sozialista eta iraultzailea duena. "Ardatz horien inguruan sortu zen 2013an, euskal gazte antolakundeek erasoak maiztasunez jasaten zituzten testuinguruan; Segi gazte antolakundearen desegiteak utzitako hutsunea betetzeko eta ziklo politiko berriari erantzuteko jaiotzen Ernai, eta gaur egun ardatz horiek tinko mantentzen ditugu", azaldu dute Debagoieneko Ernaiko kide Oihan Loitik eta Garazi Iglesiasek.

Sorreratik "askorako" eman duten hamar urte igaro dira, antolakundea "herriz herri, auzoz auzo, ikastetxez ikastetxe eta gaztetxez gaztetxe" hedatu delako, "ehunka gazteri eskola politikoa eta borrokarako espazioa" eskainita eta "Euskal Herriaren eraikuntzarako agente aktibo, errekonozitu eta gazteen arteko erreferente" bilakatuta.

Aurrera begira

Prozesu horretan militante berriak batu dira Ernaira. Horren erakusle da duela zortzi hilabete eginiko III. Kongresuan "aurreko kongresuetan egon ez zen belaunaldi berri oso bat batu izana". Bilkura hartan, azken hamar urteetako lana berretsi eta gaur egungo zein etorriko diren testuinguruetara moldatzeko urratsak finkatu zituzten.

Abenduan *Orain dugu aukera* dinamika aurkeztu zuten, gazte belaunaldia krisian murgilduta dagoela ulertuta: "Hainbat

**16:30ETIK 18:30ERA
ITXITA EGONGO DA
ELORREGI ETA OÑATI
ARTEKO ERREPIDEA,
DUATLOIAGATIK**



Oihan Loiti eta Garazi Iglesias, Debagoieneko Ernaiko kideak, Goienaren platoon. L.Z.

ertzetatik zeharkatzen gaituen krisi anizkoitza pairatzen dugu, bizi baldintzen kaskartzea ez ezik, gazteen espektatibak jausia eragiten dabilena". Krisi horren erruduntzat dituzte "sistema zis-heteropatriarkal kapitalista sostengatzen duten agenteak; hau da, agintari politikoak, elite ekonomikoak eta oligopolio elektrikoak. Gure bizitzak pobreak eta prekarioak bihurtzen baitituzte, horren kontura aberasteko".

Egoera horri aurre egiteko asmoz, Ernaiko militanteentzat garrantzitsua da "tokian toki antolatzen" jarraitzea. Debagoieneko taldea "osasuntsu" dagoela diote, "bizitza duinak lortzeko bidean askotariko ertz eta borroka jorratzen". Esaterako, garraio publiko duinaren aldeko borroka abiatu zuten abenduan: "Bagabiltza herrietako udal ordezkariekin, autobus erabiltzaileekin eta erabiltzaile ez direnekin ere berbetan".

Oñatikoaren ostean, Elorrioko hiru eguneko ekitaldietan parte hartzea animatu dituzte debagoiendarrak, *Bizitzeko modu bat* lelopean. Hara joateko autobusak egingo direla aurreratu dute.

Goizetik gauera arteko egitaraua

Kultura Etxean

- 11:00etan, *EH feminista intersektionalitatek eraikitzen* mahai-ingurua.
- 12:30ean, hitzaldia: *Gazte botereaz dena aldatzen*.

Gazte bazkaria

- Azokan, 15:00etan.

Kontzertuak

- 18:00etan, frontoiko gunearen irekiera
- 19:00etan, EH Sukarra.
- 20:20ean, Golpe de Estado.
- 21:40ean, Liher.
- 22:00etan, ekitaldi politikoa.
- 23:15ean, Skabidean.
- 01:10ean, Lehen Lerroa.
- 02:30ean, Trikidantz.
- Bukatzeko, DJ Malandro.

Tiketak herriko tabernetan.

Euskarazko hezkuntzaren alde kalea hartzera deitu du Ikamak

Martxoaren 23an Hego Euskal Herriko hiriburuetan 'Hezkuntza euskaraz izango da!' aldarrikatuko dute

H.L. DEBAGOIENA

Debagoieneko Ikamak DBHko, batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleei dei egin die datorren egunean, hilak 23, 12:00etan Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean egingo diren manifestazioetan parte hartzera. Gazte Euskaltzaleen Sareak antolatutako ekitaldiak izango dira, eta Ikamak, hezkuntza ereduak iraultzeko helburua duen Ezker Abertzalearen gazte antolakundeak, bat egingo du.

Debagoieneko Ikamako kideek bost aldarri eroango dituztela adierazi dute: "Euskal Herri osoan euskaraz ikasteko aukera izatea, Nafarroako zonifikazio legea eta Iparraldean azterketak euskaraz egiteko borroka aintzat hartuta; irakaskuntza euskalduna bermatzea, hau da, irakasleek euskaraz behar bezala jakitea; euskara Euskal Herriaren



Ikamaren mobilizazioa Bergaran. GOIENA

biziraupenerako tresna bezala ulertzea, eta, hori horrela, gure lurraldearekin lotutako gaiak lantzea; euskara ikasgelatik kalera eramateko gaitasuna eta konpromisoa berreskuratzea; eta murgiltze eredu erreala eraginorrak sustatzea".

Ekiolak ezohiko batzar nagusia egingo du Arrasaten

Leintz bailarako Ekiola kooperatibak martxoaren 23ean egingo du bilera irekia, eguna, Amaia Udal Antzokian. Bi deialditako ekitaldia izango da: lehen 18:30ean hasiko da eta bigarrena, 19:00etan.

Jorratuko diren gaien artean daude Batzar Nagusiko lehenakari eta idazkari gisa jarduneko duten bazkideen izendapena,

Ekindar Proiektuaren aurkezpena, Ekiolari buruzko informazioa, hala nola bazkide kontsumitzaileen kopurua, bazkide laguntzaileen aurkezpena, kooperatibak sinatuko dituen kontratuei buruzko informazioa, kooperatibak eskatuko duen finantzaketa-terminoei buruzko informazioa –epe luzeko mailegua–, energiaren prezioa eta proiektuaren epeak. Kontseilu Errektoreko kideen izendapena eta administratzaile bakarraren kargu uztea ere landuko dute.

Lineetako autobusen "mantentze falta" salatu du ELAK

Lurraldebus zerbitzuko autobusak Avanza Movilidad Gipuzkoa enpresaren eskumenekoak dira gaur egun, 2019an PESA enpresa erosi zuenetik. Eugenia Pablos autobus gidari eta ELA sindikatuko ordezkariak adierazi du langileak "etsita" daudela duela zenbait hilabetetatik: "Gidariaren aurreko beira lausotu egiten da askotan, ez duelako lurrunkon-

trolirik; maletategiak indargabeketa dituzte autobus askok, eta bidaiariak errepidera ateratzera behartuta daude ekipajea hartzeko; gurpil eta hagin asko zaharkituta daude; atek ez dira ondo ixten... Hori gutxi ez, eta matxuren berri emateko Avanzaren telefonora deitzen dugunean, ez digu inork erantzuten".

Egoera horrek gidarien estres eta absentismo kasuak areagotu egin dituela adierazi du Pablosek. ELAK Gipuzkoako Aldundiari dei egin dio auzia konpontzeko.

EDERTASUNA ZABALDU



Gipuzkoa poesiaz bete nahi dugu eta zurekin kontaktzen dugu hori lortzeko.

MARTXOAREN 15etik 21era

Partekatu edertasuna zure sare sozialetan eta berehalako mezularitzako aplikazioetan: poesia, argazkiak, poema irakurketak, bideo sortzaileak... Irudimena da muga.

#EdertasunaZabaldu #PoesiarenEguna

Poesiaren
Eguna

Martxoak 21

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanbideetza, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ETORKIZUNA
ORAIN



@GipuzkoaKultura



ZABALIK

EDORTA ARANA

Sexua musu-truk

Letra gorritz idatzita ageri da, fondo zuriaren gainean. Horma-irudi erraldoian markoztatuta irakurri daiteke. Bi hitz-gako agerian ditu: *Sexua eta musu-truk*. Bertatik pasatzen zirenen arreta horrela lortzen zuen publizitate kanpaina batek. Berdin zion hurbiltzen zirenak segidan konturatzen baziren ere iragarkiak ez zeukala zerikusirik ez sexuarekin ezta doan izatearekin ere.

Aspaldikoa da aipatzen ari naizen adibidea. Baina sekulako gaurkotasuna dauka. Izan ere, honetan datza gaur egungo komunikazioa: arreta lortzea eta, ahal bada, tarte txiki batez mantentzea.

Erraldoia izanik mezu eta igorle kopurua eta ugari eskura ditugun pantailak... arreta lortzea ezinbestekoa da. Lehen muga hori gainditzen ez duenak berdin dio hortik aurrera zer egiten duen.

Sare sozialena da komunikazio modu berriaren joko-esparru gordina. Aztertuta dago Instagramen eta Tiktoken lehen 2-3

segundoetan erabakitzen dela pantailako bideoa ikusten jarraituko den edo ez. Pelikuletako enperadore erromatarrek atzamara beherantz jarriz gladiadorearen heriotza adierazten zuten bezalaxe, mugikorretan *scroll*-ak markatzen du urkamendirako bidea.

IKUS-ENTZUNEZKOEN KULTURAN MURGILDUTA BIZI GARA, MEZUA FINTZEKO ASTI BARIK

Atzamarrarekin arinak omen gara eta segundo pare horretan erakusten dugu bideoak gure interesa piztu duen edo pantailan hurrengo *story*-rako ala *reel*-erako bidea garbi utziko dugun.

Sare sozialetako kontsumo azkar, bisual eta efektuz betetako honetan, zehaztasunetarako leku gutxi gelditzen da. Mezuan fokalizatu eta esan beharrekoa ahalik eta lasterren eta eraginkorren kontatu behar da. Ahaztu, betiko, testuingurua azaltzea, ideiak garatzea, ondorioak lantzea...

Ikus-entzunezko kulturen murgilduta bizi gara eta mezua fintzeko astirik ez dago. Gogoratu eslogana: *Sexua musu-truk*. Berdin dio irudiek egia ezkututzen badute. Bost axola kontatzen duzunak ez badu egiarekin zerikusirik. Gaur-gaurkoz, arretaren ekonomiak markatzen du dena.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



GUTUNAK

Animalien babes, eskubide eta ongizateari buruzko legearekin gora eta behera

PITER ENGINAS ETA IGOR URIZAR

ARRASATEKO EKOLOGISTAK MARTXAN TALDEKO KIDEAK
ARRASATE

Lege horrek animalia batzuen eskubideak arautzen ditu, eta oso nabarmena da haren helburuak oso pobreak direla, ez dituelako animalia guztiak kontuan hartzen. Ematen du animalia batzuek ez dituztela eskubideak merezi.

Onartezina da gizakien gehiegikeriak gehien pairatzen dituztenak zerrendan ez egotea: zezen-

ikuskizunetan erabilitakoak, makroetxaldeetan hazitakoak –lege propioak dituzte– eta ehiza-txakurrak.

Gabezia asko ditu: *Animalien babes, eskubideak eta ongizatea bermatzeko legea* izenburua izatea eta jarraian horietako batzuk legetik kanpo uztea ez da koherentea. Agian, izenburua desberdina izan beharko litzateke: *Etxeko eta Kaleko Animalien Babesa, Eskubideak eta Ongizatea Bermatzeko Legea*.

Guk PSOEn jarrera koldarkeria politikotzat jotzen dugu, tauomakiaren, ehizaren eta abarren munduan kulunkatzen diren lobbyen ustezko presioetara makurtu dela uste baitugu.

EAJk osoko zuzenketa aurkeztean argudiatzen zuen. Legeak Eusko Jaurlaritzak arlo dituen eskumenak urratzen dituela.

Lotsagabekeria! Jeltzaleei ahaztu egin zaie PSOerekin PPrekin bezainbeste gobernatu dutela? Eta horren ondorioz ia 44 urteko Estatua dugula? 26 konpetentzia besterendu gabe daudela?

Oso nabarmena da animaliek gure babes behar dutela, baina borroka horrek *ate* asko ditu: kulturalak, erlijiozkoak, politikoak, sozialak, ekonomikoak... eta defendatzen edo kritikatzeko ditugunak zein diren, erakartzetik kritikaraino eragin dezake.

goiena[“]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Bereziabar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zero Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldiakari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Lehen baino errebeldeagoa naiz intelektualki"

XABIER AMURIZA SARRIONANDIA MONZON-GANUZA SARIA 2023

Oihana Elortza Gorostiza BERGARA Xabier Amuriza Sarrionandiak (Zornotza, 1941) jaso du aurtengo Monzon-Ganuzako saria. Bergarako Udalak eta Olaso Dorrea fundazioak emandako saria da eta Euskal Herriari, kulturari, hizkuntzari, historiari eta etorkizunari bizitza osoko lana eskaini dioten herritarrak omentzea du helburu. Atzo jaso zuen saria Bergarako Seminarixoa aretoan.

Zer esan gura du sari horrek zuretzat?

Ezuste handia izan da niretako. Normalean, zerbait irabazi edo jokatu izanagatik izaten dira sariak, eta poz handia eman dit sari horrek. Alkateak deitu zidan horren berri emateko, eta, harrezkero, buruan eta bihotzean darabilt.

Ezagutu zenituen Telesforo Monzon eta Josefa Ganuza?

Biak ezagutu nituen, bai. Harreman hurbila izan nuen haiekin, gainera. Politikan batera ibili ginen, une tentsoetan ere bai, eta momentu horiek asko batzen dute. Baina aurretik ere bai. Apaiz nintzela ezagutu nituen biak, euren etxean, muga pasatzea baimenduta zegoen baina ikurrina oraindik legezatu barik zegoen



Xabier Amuriza Sarrionandia, Goienaren kanpoaldean, atzo. ENEKO AZKARATE

garaietan. Bestalde, Bergarako oroitzapen sentimental handiak ditut.

Ze oroitzapen dituzu Bergararekin?

Urte batzuetan Eskoriatzan ibili nintzen, irakasle, eta Bergarako ikasle asko izan nituen. Bertsolaritzan ere, ni hasi nintzen garaietan bete-bete egiten zen hango frontoia. Gauzak aldatu egin dira, baina nire frontoi esanguratsu eta emblematicoetako bat izan da. Bestalde, hango auzoetan ere

ibili naiz; Elorregira eta Basalgora urteetan joan naiz, adibidez. Buruan ditut oroitzapen guztiak.

Ibilbide oso baten saria da; zeurea erreparatzan hasiz gero, luzea arlo askotan.

Urte askoan biziz gero, gauza asko pilatzen dira, bai. Utopikoendako saria da, gainera, beharbada, saririk definigarriena, eta asko gustatu zait, bai. Seminarioan hasi umetan, apaiz gero, diktadura garaia, kartzelako urteak, bertsotan hasi, idazle,

irakasle, politikan ere ibilia, hizkuntzari begira beti... Fronte askotan egotea tokatu zait, batzuetan nik aukeratu ditudalako eta beste batzuetan tokatu egin zaidalako. Nirekin akordatu badira kariño batekin ibili direla iruditzen zait, eta horrek ematen dit poza. Harrotasunak ez dit ezer ematen egun, baina kariñoak bai; horrek, poz handia.

Apai zirela garai intentsuenak eta ederrenetakoak diozu. Espainiako erregearen aurrean hartutako jarrera, bertsolaritzan egindako ekarpena... Egun ere errebelde oraindik?

Orain ezin horrenbeste egin, baina intelektualki, lehen baino errebeldeagoa, bai. Beldur handiak pasa ditut bizitzan, baina pentsamendu aldetik orduan baino erradikalagoa naiz orain; horretan ez dut atzera egin. Konfirmatu ditut nire errebeldeak eta motibo gehiago ditut horrela jarraitzeko. Jokatzeko zelaia ez da oso handia orain, adinak berak bazterten zaitu; erretiratuena elkarretaratzeetan eta horrelakoetan ibiltzen naiz. Adinak baztertu egin nau, baina ideiek ez. **Gizartea, baina, nolakoa da?** Askok aldatu da. Ni ibili naizen ezker abertzalekoen buruetako aurreikuspenak eta ametsak ere aldatu dira. Hizkuntzaren egoera ere ez da bera... Onera edo txarrerara aldatu da, eta norberak egokitu behar du aldakuntzetara.

Hartutako konpromisoa ere aitortu gura du sari horrek. Egun, baina, eskasa da konpromisoa.

Lehen ere gertatzen zen hori gazteez hitz egitean. Lehen "irabaziko dugu" esatean sentitzen genuen sentimendu sineskor hura aldatu egin da bai politikarekiko eta hizkuntzarekiko, adibidez. Sare sozialek ere asko aldatu dute gizartea, bestalde. Jendea berez mugitzen da, bakoitza bere tokian, baina ez, agian, lehengo mugimendu bateratuan. Hizkuntzan ere, kalera atera besterik ez dago. Erljioarekin konparazio bat eginda, lehen ere kristau praktikanteak eta kristau aitortuak zeuden, eta hizkuntzarekin ere berdin: praktikanteak behar dira, eta datuak ez dira oso onak. Egiten den euskararen kalitatea ere aldatu egin da, bestalde.

Egungo Euskararen Hiztegia aurkeztu dute astean.


Tresna onak dira, baliabideak jartzen dira; baina hizkuntza egiten dena da.

"NIREKIN AKORDATU BADIRA KARIÑOZ IBILI DIRELA IRUDITZEN ZAIT, ETA HORREK EMATEN DIT POZA"

"EUSKARAZ EGITEKO TRESNAK JARTZEN DIRA, BAINA PRAKTIKATU EGIN BEHAR DA"

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA



Arrasateren historiaren zati bat argazki bidez erakusten duen liburua

'Arrasate 1890-1940 Mondragon' liburua aurkeztu zuten eguaztenean jendez lepo bete zen Kulturateko areto nagusian. Arrasateren historiako 50 urte haietako hainbat argazki batzen ditu Alberto Loitik Udal Bibliotekarekin lankidetzan osatutako liburua

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE

Duela zortzi urte argazki historikoak sailkatzen hasi zenean, Alberto Loitik nekez pentsatuko zuen gaur egun hark egindako lan guztia liburu bilakatu eta eskuetan edukiko zuenik. Jose-mari Velez de Mendizabal historialariak ere hala azpimarratu zuen eguazteneko aurkezpenaren bueltan: "Esan behar da, hasiera batean, asmoa ez zela liburu egitea. Txikitatik ezagutzen dugu elkar eta Albertok, argazkizale eta historiazale handia denez, bi arlo horiek uztartu nahi zituen hasiera hartan".

Gero, ordea, prozesu hori urteetako izan da, eta, azkenean, liburu moduan aurkeztu ahal izan du arrasatearrak, "zorionez", historialariaren esanetan, "produktu on, duin eta interesgarria delako Arrasaterentzat".

Aurkezpen arrakastatsua

Liburuak ikusmin handia piztu zuen arrasatearren artean, eta horren adibide da Kulturateko areto nagusian lekurik ez zela gelditu libre; jendea kanpoan ere geratu zen. Bibliotekako langile Olatz Bartolomerekin batera, Loiti bera presente egon zen saioan, baina, haren osasun arazoak medio, Velez de Mendizabalek hartu zuen berba liburuaren edukian sakontzeko: egilearen lana goraiatu zuen, eta "historiarako liburu ederra" utzi duela azpimarratu.

50 urteko historia, argazkitan

Liburuak XIX. mende bukaeratik kooperatibismoaren sorrera ezagutu arteko Mondragoek bizi izandako eraldaketaren testigantza grafikoa islatzen du, Jon Garai Arrasateko Udaleko Kultura teknikariaren esanetan: "1890. urteko abiapuntua jartzeko,



ARRASATE 1890-1940 MONDRAGON

- **Egilea** Alberto Loiti.
- **Maketazioa** Arrasateko Udal Biblioteka.
- **Argitaratzailea** Arrasateko Udala.

ko, ia ezinbestekoa da Mendia Funtsera jotzea. Loitik XX. mendeko lehen lau hamarkadetan herriak bizi izandako itxuraldaketa erakusteko, beste argazkilarik batzuen lana baliatu du, baina guztietatik zalantza barik nabarmentzen dena Valeriano Martinez da. Haren begietatik eta Albertoren aukeraketari esker, Mondragoeko paraje eta bizimoduaren murgilduko gara. Gaur egun ia ezezagunak zaizkigun nekazaritza auzoak, industriaren paisaia berriak, Francoren kalearen plaka inauguratzerakoan herritarrek besoak altxatuta, emakume kua-drillak mendian, arrasatearrak ospakizunetan eta abar".

Horren harira, Velez de Mendizabalek nabarmendu du Loitik izan duen beste dohain positibo bat izan dela azalerratu egin dituela Arrasatek eduki dituen

ARGAZKIAK, HAIEN AZALPENAK ETA GARAI HARTAKO ARRASATEREN PLANOAK ERE BADITU

argazkilariak, "erdi ahaztuta zeudenak", eta horien lanari balioa eman diola egileak liburu horren bitartez.

Garaik zera erantsi du: "Izoztutako irudi bizi horien bidez, Loitik ikuspegi poliedrikoa eskaintzen digu, herriaren iruditeria aberastera datorrena. Arrasateko argazkigintzaren historian mugarrria jarri du eta atea irekitzen da oroitzapenerako, zabalkunderako, ezagutzarako eta ikerketarako".

Era berean, liburuak irakurri gabe ere ulertu daitekeela dio Velez de Mendizabalek. "Albertok aurkeztu ditu hari hoberenak iruditu zaizkion argazkiak. 1890etik 1940ra arteko tartea aukeratu du, hain zuzen, garai hura maite duelako eta garai hartan argazkigintzak bere mugarririk markatu zituelako Arrasaten", gehitu du.

Margolanen garrantzia

Loiti bera izan da liburuaren egile nagusia, eta horri balioa eman dio Velez de Mendizabalek: "Hark aukeratu ditu argazkiak eta hark idatzi ditu azalpen guztiak eta hark egin ditu margolanak. Azpimarratzekoa da, halaber, xehetasun guztiak ondo zainduta daudela, artxiboetara jo duelako eta hortik xurgatu dituen xehetasun asko erantsi dizkielako argazkiei. Horretan datza liburu horren balioa".

Horrez gain, planoetan eta margolanetan ere jarri du arreta Jon Garai Kultura teknikariak. "Egileak marrazteko eta planimetriarako duen erraztasuna ere presente dago liburuan, sortu dituen irudiak lagungarriak baitira irudi sortak kokatzeko. Haren lan egiteko modua erakusten du horrek, arreta non eta zertan jartzen duen erakus-



Francisca Paca Sagasta, Olandixo baserrikoa, esnea banatzen. VALERIANO MARTINEZ



San Frantzisko eremua, 1940ko hamarkadan. VALERIANO MARTINEZ



Enrique Reig kardinalak Santa Agedako lehen harria jarri zuen, 1926an. ROMAN AYERBE

le. Bilduma interesgunearen zerbitzura jarriko du eta bildutako piezarik esanguratsuenak agertuko ditu".

Arrasatearrendako, altxorra

Historialariak nabarmendu du ondo landutako prozesua izan dela eta horrek bere denbora daramala. "Gogoratzen dut, esaterako, gure lagun zen Carmelo Letonaren funtsa digitalizatzen hasi zenean, 7.000 argazki inguru zirela", dio. Halaber, lan horrek guztiak altxor bilakatzen du liburua. "1890etik gaur egunera asko aldatu da Arrasate, eta liburuak balio du gazteek erreferentzia bat izan dezaten nolakoa zen herria garai hartan. Alde horretatik, altxor preziazua

da". Garaik zera gehitu du: "Antzinako tresnekin betidanik izan duen zaletasun, interes eta maitasunaren pare, Loitik liburu honetan ere, irudiaren bidez, lan etnografiko aparta aurkeztu digu".

Udal langile urtez luzez

Alberto Loiti udal langile izan zen urte mordo batez eta horrek aukera "ezin hobea" eman zion "horrenbeste maite duen herria sakon ezagutzeko", Kultura teknikariaren arabera: "Barrunbeak ezagutzeak aukera eman dio atzera begiratu egin eta betidanik gogoko izan dituen ohi-tura eta usadioekin lotura duten tresnak biltzeko. Era berean, baita zaharberrietatik argazki



Arrasateko plaza, garai bateko kioskoarekin. MENDIA FUNTSA



1919an, Nafarroa etorbidea. Erdian, tren geltoki zaharra. ELKORO FUNTSA



Arrasateko musika banda, 1899an. CARMELO LETONA

zaharren mundura igarotzeko ere".

Erretiroa hartu zuenetik, Loitik Udalarekin kolaboratu izan du kultura ondarea ardatz duten proiektu batzuetan, antzinako tresnekin eta argazki zaharrekin zerikusia izan dutenak. "Hari horri tiraka, Udal Bibliotekarekin elkarlana gauzatzuz joan da lan-ildo zehatz batzuetan. Lan-kidetzaz horri esker eta Udal Bibliotekaren elkarlanarekin batera, liburuaren hasierako apaltasunean bidelagun izan gara", gaineratu du Garaik.

Maria Ubarretxena alkatea eta Juan Ramon Mendieta Kultura zinegotziak esker oneko berbak izan dituzte liburuaren egilearendako. "Eskerrik asko

egindako lan guztiagatik eta arrasatearroi opari eder hau egiteagatik", azpimarratu du alkateak.

Elkar liburu-dendan salgai

500 ale atera dituzte eta horietako batzuk eguazteneko aurkezpenean salgai izan zituzten; ia gehienak saldu ziren. Edoze-lan ere, oraindik geratzen dira eta 25 eurotan eskuratu ahal izango da Elkar liburu-dendan. "Liburu arina da, edozein leku eta momentutan irakurri daitekeena, eta irakurlea Arrasateren historian kokatzeko modu ezin hobea", azpimarratu du Velez de Mendizabalek. Beraz, "altxor preziatu" barik geratu nahi ez duenak eros dezala liburu.



E.A.B.

"Liburu osoak, bere horretan, du interesa"

ALBERTO LOITI
LIBURUAREN EGILEA

Liburuaren gaineko hainbat azalpen eman ditu.

Zenbat lan dago liburu horren atzean?

Urteetako lanaren emaitza da liburu. 2015ean, Arrasateko komertzioei buruzko erakusketa bat egin nuen, eta horren harira hasi nintzen argazki zaharrekin lanean. Azken zortzi urte hauetan, egunean zortzi ordu, behintzat, egin ditut lanean; beraz, pentsa zenbat ordu diren. Era berean, argazkiak sailkatzen egindako lanaz gain, margolanak ondo egiteari ere garrantzia eman diot.

Zerk izan du lan handiena?

Argazki gehienetan agertzen da zeinena den. Nire kezka handiena, hain zuzen, hori izan da: argazkia norena den, nondik datorren eta ze urtetakoa den jakitea. Izan ere, horrek ematen dio balioa argazki bati.

Horrek eragin dizu liburua egiterakoan?

Bai. Badituzte argazki batzuk oso inportanteak iruditzen zaizkidanak, eta, norenak diren jakin arren, ez dakit ze urtetakoak diren. Ezin izan ditut liburuan txertatu.

Bada argazkiren bat bereziki gustatzen zaizuna?

Ez nuke jakingo esaten. Liburu guztia, bere horretan, da interesgarria.

GORA ETA BEHERA



"Zuntz optikoa bai, baina horrela ez"

Erdiko kalean bizi den herritar batek salatu duenez, zuntz optikoa jartzeko lanen ondorioz zoruak hainbat kalte jasan ditu: "Galtzada-harria zatar eta arriskutsu dago, zuloz beteta. Espero dugu lanak bukatzean zoruak lehengo itxura berreskuratzea".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).

Autobus elektriko batekin proba, flota berri berritu baino lehen

Arrasateko Udalak %100 elektrikoa den autobus bat probatuko du, ibilgailuen flota berri berritu baino lehen. Herrian ibiliko da hutsik, zerbitzu ona emango lukeen egiaztatzeko, auzo altu asko dituen herria izanik. Gero, bigarren seihilekoan ibilgailu berrien erosketara lehiaketara aterako dute. Izan ere, egungo zerbitzua hobetu behar dela dio Maria Ubarretxena alkatea. Bestalde, bost espediente eta 1.700 euroko zazpi isun jarri diote Avanza enpresari. Victoriano Fuentes zinegotziak azaldu ditu enpresarekin izandako tirabirak: "Ez zituen ordezkatzeko matxuratutako autobusak, eta enpresa zigortzen hasi ginen".

Arrasatearren iritzia jaso gura du EAJK, programa osatzeko

Etkez etxe galdetegi txiki bat bidaliko dute. "Duela lau urte, proposamen asko jaso genituen eta horiekin osatu genuen gure hauteskunde-programa, eta aurren ere hala egingo dugu", azaldu du Maria Ubarretxena EAJK-ren alkategaia. Hala, azalpen txiki batekin, hiru galdera egingo dizkiete herritarrei: *Zein arlotan uste duzu daudela gabeziak Arrasaten? Zein arlori emango zenioke lehentasuna? Zein proposamen edo proiektu behar du Arrasatek zure ustez?* Horiez gain, halaber, iradokizunak egiteko aukera ere eskainiko du galdetegiak. Datozen bizpahiru asteetan proposamen horiek jasotzea espero dute.

OHARRAK

Karapaixoa protagonista biharko azokan

09:00etatik 14:00etara egingo dute, ohi moduan, Seber Altube plazan. Tailerrerako izen-ematea agortuta dago.

'Nuestra libertad' lanaren aurkezpena

Martxoaren 23an egingo dute, 19:00etan, eta Teodora Vasquez protagonista han egingo da, haren bizipenak kontatzeko. Halaber, dokumentala ikusteko aukera ere egingo da.

Rafael Calbetoren hitzaldia iktusari buruz

Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatuta, iktusa ardatz izango duen hitzaldia egingo du Aita Menni ospitaleko medikuak hilaren 27an, 17:30ean, Kultureteko areto nagusian.

Udaleku irekietan izena eman daiteke dagoeneko

Uztailaren 3tik 21era egingo dituzten udaleku irekietarako izen-ematea zabaldu du Txatxilipurdi Elkarteak. Aisialdi hezitzaile eta euskalduna eskaintzeko lanean dihardu elkarteak eta 35. urtez egingo dituzten udaleku horien helburua ere horixe izango da

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE

Euskararen plazan aurkeztu dituzte 2023ko udaleku irekiak eta hainbat haurren eta gurasoren laguntza izan dute aurten. Aisialdi hezitzaile eta euskalduna eskaintzea da Txatxilipurdi Elkartearen helburu nagusietako bat, baita bizitzarako beharrezko ikusten dituzten balio eta gaitasunak garatzen laguntzea ere, hala nola euskaltzaletasuna, parte-hartzea, autonomia, naturarekiko harremana, aniztasuna eta feminismoa. "Gure udaleku irekiek ere balio horietatik edaten dute, egunerokotasunetik irtenda, uda garaian esperientzia berriak bizitzeko eta harreman berriak sortzeko aukera eskainiz", azaldu du Amaia Arregik, Txatxilipurdiko kideak.

Uztailaren 3tik 21era egingo dituzte udaleku irekiak eta 2 eta 12 urteko haur eta aurre-neabeei zuzenduta egongo dira. "Haurrak erdigunean jarrita, haiekin eta haien zuzendutako egongo dugu lan. Arrasateko kale eta naturaguneetan barrena, egun-pasak, mendi bueltak eta ur-jolasak, besteak beste, izango dituen eskaintza dibertigarri eta dinamikoa sortuko dugu".

Txatxilipurdiko kide Arantza Osorok zehaztu duenez, hiru gunetan izena emateko aukera egongo da: Musakolan, San Andresen eta erdigunean. Hala, adinaren eta gunearen arabera osatuko dituzte taldeak: Bilin Bolonka, 2020-2017 urte artean jaiotakoentzat; Bihurrikeixetan, 2016-2014 urte artean jaiotakoentzat; eta Erokeixetan, 2013-2011 urte artean jaiotakoentzat. Prezioei dagokienez, 100 eta 150 euro artekoak izango dira, taldearen eta ordutegiaren arabera (Ikus *Goiena.eus*).

Era berean, AEDko bazkideek eta familia ugarikoei %5eko deskontua izango dute. Bi baldintzak betetzen dituztenek,



Astelehenean aurkeztu zuten, Euskararen plazan. TXATXILIPURDI

2 ETA 12 URTE ARTEKOEI ZUZENDUTA EGONGO DIRA ETA TALDEKA BANATUKO DITUZTE HAURRAK

halaber, %10eko deskontua izango dute. "Beraz, diru-sarrerara egitean, deskontuak kontuan izanik egin beharko da eta ordainketa haurren izenean egin beharko da, agiriak aurkeztuz". Zaintza zerbitzua ere egongo da, 09:00etatik 10:00etara, 40 euroko kostu gehigarriarekin –ez da deskonturik aplikatuko–.

Maiatzaren 5era arte

Dagoeneko eman daiteke izena eta hainbat bide egongo dira horretarako: *www.txatxilipurdi.eus* webgunean edo bulegoan –Nafarroa etorbidea 23, 1. solairua–, astelehenetik ostegunera, 09:30etik 13:30era eta 15:00etatik 18:00etara. Telefono-zenbakia honako hau da: 943-79 54 46.

Hezitzaileendako deialdia

Udaleku irekiak aurkeztearekin batera, hezitzaileendako deialdia

ere zabaldu du Txatxilipurdi Elkarteak. "Hezitzaileen eta praktikatzaileen zerranda osatu nahiko genuke. Beraz, urtero egin izan dugun bezala, aurten ere haurrekin eta gaztetxoekin lan egiteko gogoia izanez gero, curriculum bidali beharko da martxoaren 14tik apirilaren 30era bitarte", adierazi dute.

Udalekuean hezitzaile aritu ahal izateko eta praktikak egin ahal izateko, hezitzaileen formakuntzarako saio berezi bat egingo dute eta derrigorrezkoa izango da joatea. Maiatzaren 27an izango da saio hori, zapatua, egun osoa.

Interesa duenak curriculum bidali beharko du, begirale edo zuzendari tituluen kopiak eta hezitzaileen fitxa beteta, *a.osoro@txatxilipurdi.eus* helbidera, apirilaren 30a baino lehen.

Izena emateko, hainbat baldintza bete beharko dira: 18 urte edo gehiago izatea, euskara jakitea, Txatxilipurdik antolatzen duen formakuntza saiorea joatea eta Arrasateko edo Debagoieneko izatea. Halaber, begirale titulua, ikasketak, esperientzia eta lanerako prestutasuna ere baloratuko dituzte aukeratzeko.



NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA

Entrenamendutik haratago

Zenbateko garrantzia ematen diogun entrenatzeari, entrenamenduak ondo egiteari, zenbaki zehatzei, nahiz eta askotan ez garen ohartzen gure barnean gertatzen denaz. Zenbat haserre norbere buruarekin: "Egunero dena ondo egiten dut; zergatik ez dut lasterketa honetan nik nahi nuena lortu? Nire espektatibak handiegiak direlako?". Gaur egun kirolean zientziak eta teknologiak izan dituzten aurrerapausoak ikusita, lasterketa aurretik nola joango den jakitea erraza da. Baina zenbatek zaintzen dute haien burua? Ze garrantzi dute gure egunerokoak, gure sentimenduek, gure egoerak, norberak? Askok gara lan egiten dugunok gure helburu asko lortzeko, elikadura, egoera fisikoa eta entrenamenduak zainduz, baina zenbatek ematen diogu garrantzia buruari? Funtsezkoa da goi mailako zein kirolari herrikoi batentzako, egiten duguna gozatu eta gure alde onena ateratzeko. Ez dugu arraro sentitu behar, ez gara desberdinak, ez gara zoroak; beste arlo batzuk bezala, burua ere gure parte da eta entrenamenduaren parte da. Gugandik hasita dena ondo badoa, ziur egon beste guztia etorriko dela.



JOSU BILBAO ATXUTEGI

Elene Errastiri elkarrizketa

Gaztelupeko Irati Uriak, Elene Loitik, Nira Cidek, Peru Arresek, Izadi Ramosek eta Aines Gonzalezek Alaves taldeko futbolari aretxabaletarra elkarrizketatuko dute *Galdegazte* saioan. Hiru lagun platoan izango dira galderak egiten eta beste hiru, errealizazio-gelan saioa jarraitzen. Hilaren 23an ikusi ahalko da Goiena telebistan, 21:30ean eta 23:30ean.

Mauleko maskarada ikustera joateko autobusa Arrasatetik

Apirilaren 22an izango da aurtengo azken maskarada, Maule-Lextarren, eta AEDk autobusa antolatu du. 08:00etan aterako da, Zalduspeko geltokitik. Emanaldi nagusia bukatzean hartuko dute itzulerako autobusa, 19:00 edo 20:00 aldera. Txartelak AEDn eskura daitezke, apirilaren 19ra arte, 15 eurotan –AEDko bazkideek, 12–.

Nafarroako Erriberara irteera egingo du Abaroak apirilaren

Nafarroako Erriberara irteera egingo du Abaroak apirilaren 21ean. Castejoneko Marques de Montecierzo upategietan bisita gidatua jaso ostean, mokadutxoango jango dute. Ondoren, Alfarora joango dira eta Azagran bazkalduko dute, Venecia hostalean. Martxoaren 21ean eman beharko da izena, Abaroan bertan, 10:30ean. Prezioa 38 euro da.



Hioki eta Meza, norbere herrialdeko kontu fantastikoen berri ematen. MONTORNES.CAT / TITERES GUACHIPILIN

Hitzen bidez ere margotu daiteke mundua kolorez

Ahoz Aho nazioarteko jaialdiko ipuin kontalariak Arrasatera etorriko dira datorren astean. Zoa Meza nikaraguarrak Santa Marinako bibliotekan jardungo du eguaztenean, Maite Frankorekin batera, eta Yoshi Hioki japoniarrak Kulturaten eguenean

Hasier Larrea ARRASATE

Intujai Teatro taldeak hamasei urte daramatza ahozkotasuna erdigunera ekartzeko nazioarteko ekitaldia antolatzen, Ahoz Aho jaialdiaren bitartez. Helduentzako eta haurrentzako ipuin kontaketa saioak sustatzen dituzte, mundu zabaleko kontalariak gonbidatuta.

Istoria indigenak

Aurtengo egitarauak hilabete iraungo du, ahalik eta entzule gehienengana heltzeko asmoz. Arrasatearrek esperientzia handiko hiru ipuin kontalariren istorioak bertatik bertara jarraitzeko aukera izango dute. 5 urtetik gorako haurrek biziko dute esperientzia lehenbizi, hilaren 22an, 18:00etan hasita. Maite Franko irundarra etxean bezala moldatzen da Santa Marinako bibliotekan, sarri kontaktu ditu eta han kutsu mitologikoa duten ipuinak, baina, oraingoan, gonbidatu berezi bat izango du alboan: Zoa Meza nikaraguarra.

Mezak bere herrialdeko kultura aniztasunaren berri emango du ekitaldian, hizkuntza indigenak ere uztartuta. Azaldu duenez, gurasoek ere gustura jarraitzen duten diziplina da ipuin kontaketa, hurrei egoera errealei aurre egiteko pistak eskaintzen dizkiela iritzita: "Pertsonaia batek mendia igo eta dragoia menperatu behar badu, ipuinean zehar balentria hori lortzeko tresnak batzen ditu; umeak konturatzen dira arazoei ekinda erantzun behar zaiela".

"Entzule bereziak"

Hurrengo egunean Kulturatera lekualdatuko da Intujaiaren jaialdi mundiala. Entzule helduen zain egongo da han, 18:00etan,

**EMANALDIETARA
JOAN NAHI IZANEZ
GERO, IZENA EMAN
BEHAR DA 'ARRASATE.
EUS' ATARIAN**

Katalunian bizi den Hoshi Hioki japoniarra. Haren jaioterriko ipuin tradizionalak helaraziko dituela aurreratu du, "mezu unibertsalak dituztenak". Abegiko du euskal kultura; izan ere, euskarazko ipuin bat ere prestatuko du: "Ez dakit gai izango naizen, baina saiatuko naiz, euskararen ahozkotasuna ederra egiten baitzait; ipuinak kontatzeko oso aproposa".

Bigarren aldia du Ahoz Aho ekimenean, eta, estreinakoa frogatu zuenez, "entzule bereziak dira euskaldunak; igarri egiten da oholtzara igo bezain laster nola jartzen duten arreta zugan".

Alcelay, ikastetxeetan

Maidar Alcelay arrasatearra ere badabil egitasmoaren barruan plazaz plaza, Igor Sala musikaria lagun. Baina 7 eta 12 urte arteko hurrei ere tailerra ematen dihardu, aste honetan Bidania-Goiatz eta Abaltzisketako ikastetxeetan izan baita, ipuinak nola kontatu erakusten.

Eztabaida piztuta Itziar Ituño eta Ramon Agirre aktoreekin

'Hobe ixilik!' antzezlanaren aurkeztuko dute domekan, 19:30ean, Amaia antzokian, Txalo konpainiaren eskutik

H.L. ARRASATE

Ez dirudi, telesailetan bezala, elkarri tiroka hasiko direnik, baina bai, behintzat, tentsioak gora egingo duela bi aktore ezagunen arteko elkarriketek aurrera egin ahala.

Txorakeriez egingo dute berba; adibidez, noren gazta-tartak diren goxoagoak, zein den patinearekin trebeagoa eta nori helduko zaizkion lehenengo odol-pikoak. Baina baita gai serioen inguruan ere: *Me Too* mugimendua, klima aldaketa eta amatasun subrogatua, besteak beste. "Izan ere, gizarte honen arauak konplexuak direla jakinda, ustez adierazpen-askatasuna nagusi den guneetan jada zenbait gauza ezin dira aipatu ere egin". Premisa horretatik abiatzen da Txalo Produksioak antzerki-konpainiaren obra. Begoña Bilbaok zuzenduta eta Salome Lelouchen



Ituño eta Agirre. TXALO PRODUKZIOAK

testutik abiatuta, Ituño eta Agirrek eztabaiden aukerak eta arriskuak arakatuko dituzte, batean hitz arruntetatik hasita, bestean galdera existenzialistak planteatuta eta hurrengoan familiarreko sekretu delikatuak kontatuta.

Mondra & Roll jaialdiko talde guztiak konfirmatuta

Buzzcocks, Sick Of It All, Hell Beer Boys eta Special Crew dira Monterrongo punk-rock jaialdiko azken nobedadeak; bestela esanda, 1976an Boltonen sortutako talde mitikoa, 80ko hamarkadan New Yorkeko hardcore-aren ikurrak, Oria ibaiko arratoi garagardozaleak eta Arrasateko Beitia anaia emankorren proiektuaren itzulera.

Distortsio handiko egunak dituzte aurretik gaztetxean

Martxoaren 18an, zapatua, Aramaioko El Exterminio de la Raza del Mono, Arrasateko Perlata eta Nafarroako The Dillingers taldeek hartuko dute gaztetxe oholatza, 22:00etan hasita. Musika bizia egiteaz gain, elkarren artean harreman ona duten bandak dira hirurak. Esaterako, Perlata eta ERMk otsailean Ondarroan jo zuten batera, azken

Hala, guztira, hamalau taldek joko dute Mondra & Roll kontzertu sortaren bigarren aldia. Aurten, uztailaren 7an eta 8an izango dira emanaldiak, eta, momentuz, bi egunerako bonua dago eskuragai, *musikaze.net* webgunean, 65 euroren truke.

Rockaren bueltako nazioarteko musika jaialdi askok sinatuko luketen kartela ondu dute aurten ere HFMN, Jimmy Jazz eta Mauka zigiluek, The Interrupters, Bad Manners, Perkele eta halako taldeak ekarrita.

horren disko berriaren aurkezpenean. The Dillingersek eta Perlatak, bestalde, disko konpartitua kaleratu zuen iaz.

Datorren egunerako, hilak 23, berriz, Kataluniako Criminal taldea gonbidatuko dute Kooltureko antolatzaileek. Punk-rocka da kasu horretan ere taldekideen hizkuntza. Asteburu betea izango dute Tarragonakoek, Arrasateko kontzertuaren ostean Bilboko Zorrotza gaztetxean eta Donostiako Doka kafe antzokian joko dute eta.

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Aramaion egin nahi duten Itsaraz parke eolikoaren aurka borrokan dabil Aramaio Bizirik taldea. Horrelako proiektuak gelditzea, herritarrei hitza ematea eta planifikazio egokiak egitea eskatzen dute, besteak beste. Planifikazioa, ez bakarrik energiaren arloan, baita oinarrikoak diren beste sektore guztietan ere –elikadura, esaterako–.

2021ean hasi ziren mugitzen, Aixeiendarek Jarindon jarri nahi zuen haize-neurgailuaren harira. "Arabako Mendiak Aske! taldearekin batera mendi martxa egin genuen Aramaion. Ondoren, haize-neurgailua jartzeko baimena atzera botatu zuen AESAk, inguru hura Forondako aireportuaren zortasun-ingurunea delako. Uste genuen proiektuak geratu zirela... baina ondoren etorri zen Statkraften proiektua. Kasu horretan, euren esaten dute parke eolicoa ez litzatekeela zortasun-ingurune horretan sartuko", azaldu dute taldeko kideak.

Interes publikoko proiektua

Gaur egun, Norvegiako Statkraft enpresak Aramaio Udalean eskatu du haize-neurgailua jartzeko baimena. "Aldundiak martxoaren 6ko buletinean deklaratu zuen proiektua interes publikoko", diote. Hortaz, orain ikusi behar da AESAk atzera botatzen duen edo ez haize-neurgailua jartzea –2022ko ekainean Jarindokoarekin egin zuen bezala–.

Bestalde, Statkraftek dagoneko badu parketik aterako lukeen energia estazio transformadore batera lotzeko baimena: "Baimena dute Abadiñoko azpiestaziora lotzeko. Horrelako kasuetan baimenak data konkretua izaten du, fidantzarekin. Zortzi errota horietan lortutako energia lur azpitik eramango dute transformadore batera, eta ondoren, aireko kable bidez Abadiñora eramango dute. 135 kilovoltekoak izango dira eta eskatzen dute poste bakoitzaren alde banatara hamar metroko zortasun-bidea. Bide hori etorriko litzateke San Adrian ermitaren azpialdetik, Zabola ondotik, Bolinburutik, Cuatrovientosera eta handik Besaideira eta Abadiñora". Aramaio Bizirik taldearen esanetan, datu horiek erakusten dute parkea egiteko nahia handia dela. "Gaia-



Aramaio Bizirik taldeko kideak, parke ondoan jarri zituzten eolikoekin. A.E.G.

Makroproiektuekin lotuta, planifikazio egokia eskatu dute

Norvegiako Statkraft enpresak Aramaion egin nahi duen Itsaraz parke eolikoak herrian eta nekazaritza ingurunean izango duen eraginaz ohartarazi nahi dituzte herritarrak. Protesta egiteko, mendi martxa antolatu dute Aramaion apirilaren 1erako

Itsaraz parkearen kokapena, Aramaio hegoaldean

ITURRIA: ARAMAIO BIZIRIK



Tramitazio administratiboko dokumentazioa
Mapan ageri diren eolikoek kokapena ez da behin betiko proiektua; tramitazio administratiboa hasteko dokumentazioa da.

ren seriotasuna erakusten duen beste datu bat da Legutien egiten dabilzan saihebidetako hondakindegia Kruzeta jarri dutela. Legutiotik hondakinak Aramaiora ekarri behar dituzte? Ezin dute han egin hondakindegia?", diote, haserre.

Hirigintza-txostena

Haize-neurgailua jartzeko baimenaz gain, Udalean eskatu dute hirigintza-txostena. Hala konfirmatu zuen Lierni Altuna alkateak orain dela aste batzuk: "Neurgailua jartzea eskatu dute eta hori tramite administratiboan dago; eta, txosten urbanistikoa eskatu dute, ebakuazio linea ateratzeko".

Statkrafti galdetuta, azaldu dute konexio-baimena badutela, eta gehitu dute: "Hirigintza-bateragarritasun txostena eskatu dugu. Lanean jarraitzen dugu proiekturako ahalik eta egokitasunik onena bilatzeko. Etorrikizuneko aerosorgailuen kokapen zehatzari dagokionez, informazioa jendaurrera ateratzen denean emango ditugu xehetasun gehiago". Proiektuak arautegiak zehazten duen tramitazioa jarraitzen duela gehitu dute.

Energia-plana

Aramaio Bizirik taldeak nabarmendu nahi du gaur egun EAEn ez dagoela onartuta lurraldeko plan sektorialik, eta hori barik parke eolikoak egin nahi dituztela. "Jaurlaritzak lo hartu du. 20 urte egon da ezer egin barik eta orain ari dira horrekin... Baina lehenengo egingo dute parkea eta ondoren lurraldeko antolamendua. Eskatzen duguna da lehenengo lurraldea antolatu eta ondoren erabaki parkeak non eta zelan egin".

Mobilizazioak

Itsaraz parkeko dorreak Aramaiotik ikusi, entzun eta horien gerizpearen eragina nabaritu litzatekeela diote. "Hemendik ikusten da San Kristobalgo ermita, ezta? Bada, irudikatu bata bestearen gainean 40 ermitak hartuko luketen altuera. Eskatu dute 120 metroko posteak eta 80 metroko hegalko izango litzatekeen eolikoak jartzeko baimena", azaldu dute. Itsaraz proiektuaren aurkako mendi martxa egingo dute apirilaren 1ean, Aramaion; eta makroproiektuen aurkako manifestazioa maiatzaren 20an, Gasteizen.

Ondo pasatuz euskara hobetzen dihardute

Aramaioko Alaiak erretiratuen elkartekoak euskara ikastaroa hasi zuten 2019an. Ulermena eta idazketa lantzen dute; modu horretan, eskuko telefonoarekin eta Interneten mezuak euskaraz idazteko beldurra kendu egin dutela diote

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Alaiak erretiratuen elkartean euskara hobetzeko ikastaroa dute; urritik ekainera bitartean egiten dute, astelehenetan, bi orduz. 2019an hasi zuten ikastaroa, urri inguruan. "Lehenengo eta behin, nahi genuen adineko pertsonak etxetik irteteko obligazio bat izatea, egin behar bat izatea; baita harreman sozialak gehitzea ere", azaldu du elkarteko lehendakari Miguel Loitik. Horrez gain, euren euskara-maila hobetzea da helburu nagusia.

Mezuak idaztea

Loitik dio euskararekin duten harremanean ohitura batzuk aldatzea nahi dituztela: "Adibidez, nik ikusten nuen Aramaion bertan euskaldunen artean ere lehenengo agurra euskaraz egin ondoren gaztelerara jotzeko ohitura handia zegoela". Eta gehitu du uste duela hark joera hori apurto duela eta euskarari gehiago eusten diola.

Bestalde, gaur egun, teknologia berrien erabilera gero eta handiagoa egiten dute erretiratuek eurek ere; bada, *whatsapp*-ak eta bestelako mezuak euskaraz idazteko gaitasunak lortzeko balio die ikastaroak. "H-a non jarri, z eta s bereizi... Azken finean, euskaraz idazteari beldurra kendu nahi diogu", dio Loitik.

Ainhoa Arregi Gastañaga arrasatearra da euskara ikastaroko irakaslea. "Hasieran, beldur pixka bat izan nuen, ez nekien zela planteatuko zuten ikastaroa... baina oso gustura ari gara", dio. Gehienak euskaldun zaharrak dira, euskaraz ondo dakitenak. "Irakurketa eta ulermena lantzen dugu. Testuak irakurtzen ditugu, edo elkarte-

ko idatziak egiten ditugu...", azaldu du Arregik, eta gehitu du ez duela merezi, adibidez, gramatika lantzea. Egunkariak eta aldizkariak ere irakurtzen dituzte, modu horretan ulermena lantzeko. Izan ere, euskaldunak izan arren, garai hartan eskolan gazteleraz ikasitakoak dira denak, eta, horregatik, euskara batuan idazteko edo ulertzeko zailtasun handiagoak izaten dituzte.

Horren harira, Loitik dio gaur egun euskara perfektuan idazten duten kazetariak eta esatariak daudela, eta batzuetan zail egiten zaiola hain euskara jasoa ulertzea.

Herritarrek animatu

Gure euskara hobetzen ikastaroan parte hartzen dutenak oso gustura daude ikastaroarekin. Aurrerantzean ere jarraitu nahiko lukete ikastaroarekin, baita beste erretiratu batzuk animatu ere, besteak beste, ondo pasatzen dutelako.

URRITIK EKAINERA BITARTEAN IZATEN DA IKASTAROA, ASTEAN BI ORDUKO KLASA IZATEN DUTE



Beatriz Lopez de Bergara, Jesusa Bergaretxe, Ainhoa Arregi, Begoña Etxabe, Simon Muñoz eta Miguel Loiti. A.E.G.

Energia-sorkuntzaren gaineko batzarra deitu du Udalak

Martxoaren 22an izango da, 18:30ean, udaletxean. Aztiker ikergunea kontratatu dute saioak gidatzeko

A.E.G. ARAMAIO

Aramaioko Udalak informazio-batzarra deitu du datorren asterako, martxoaren 22rako, 18:30ean. *Aramaion energia sorkuntzarako proiektuak* izango da batzarraren gaia.

Energia-iturriak

Hiru helburu nagusi izango ditu batzarrak: batetik, Udalak energia-iturrien gainean egindako lanketa eta jasotako informazioa azalduko dute; bigarrenik, Aramaion kanpotik jasotako parke eolikoaren proiektuari buruz hitz egingo dute, eta, modu horretan, Udalak herritarren iritzia jasoko du; azkenik, energia-iturrien gainean herritarren informazioa jasotzeko, 2023an zehar herritarrekin egin nahi dituzten hausnarketa saioei buruzko eskema aurkeztuko du Udalak.



Elgeako parke eolikoa. A.E.G.

Aramaioko Udalak Aztiker Soziologia Ikergunea kontratatu du energia-sorkuntzarako proiektuen inguruko hausnarketa-saioak egiteko. Hala, herritarrek animatu nahi dituzte eguaztenean egingo duten batzarrean parte hartzea.

'M Ama*, Eme*, Ume*' liburua aurkeztuko dute eguenean

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekitaldiek jarraipena izango dute datorren astean. Martxoaren 23an, *M Ama* Eme* Ume** liburua aurkeztuko dute Estitxu Fernandezek eta Erika Lagomak. Amatasunari eta amatasunei buruz hitz egiten du liburua; hausnartzeko eta pentsatzeko beharretik abiatuta sortutako

lana da. Egileek azaldu dute batez ere esperientziak konpartitzeko beharra sumatu zutela, eta hortik abiatuta sortu zela liburua. Eguenean izango da aurkezpenean, 18:00etan, kultura etxean.

Domekan, aldiz, zinema-ziklo feministaren barruan, *El acontecimiento* filma emango dute kultura etxean, 19:00etan. Film frantsesa da, Audrey Diwan zinema-zuzendariak ekoitzia 2021ean. 100 minutu irauten du filmak.

Txirritolako bazkide egiteko aukera dago, mezua idatzita

Txirritola Euskara Elkarteak helbide bat jarri du elkarteko bazkide egin nahi dutenentako: bazkide egin nahi duenak *txirritola@gmail.com* helbidera idatz dezake. Urteko kuota 10 euro da.

Gaur egun 120 bazkide inguru ditu elkarteak eta herri mailan hainbat ekintza antolatzen dituzte. Ipuin lehiaketa, irakur-

zaletasun kanpaina eta literatur solasaldia dira urteroko ekintza nabarmenenak. Horrez gain, badaude beste ekintza batzuk euskara elkarteak herriko beste eragile batzuekin batera antolatzen dituenak; adibidez, Gaba Baltza eta Euskararen Egunaren inguruko zenbait ekintza. Gainera, Korrika eta Euskaraldia ekimenak herri mailara eroaten ditu, baita etzi emango duten Laburbira film laburren zikloa ere (Ikus 34. orria). 19:00etan izango da.



Unai Elgoro alkatea, Hirigintza zinegotziarekin eta teknikariarekin, Santakurtz kalean, atzo. MIKEL AGIRRE

Santakurtz kalea zabalik gaur arratsaldetik aurrera

Urtebete eta bi hilabete iraun dute lanek; erabat eraberritu ondoren, goitik beheraino irekiko dute kalea ibilgailuendako eta ohiko noranzkoa berreskuratuko dute haren inguruko bide guztiek; tunelak itxita jarraituko du datorren astera arte

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Gaur, egubakoitza, arratsalde partean zabalduko dute Santakurtz kalea ibilgailuendako. "Azken erremateak eman ondoren bukatutzat emango dira", adierazi du Unai Elgoro alkateak, eta "pozik" agertu da Hornidura eta Saneamenduko Plan Bereziaren lanen emaitzarekin.

Ohiko noranzkoa

Ohiko noranzkoa izango du kaleak eta haren inguruko beste hainbatek lanen aurrekoa berreskuratuko dute; Amets tabernaren kaletik doan tarreak behe-ranzko noranzkoa izango du Otalora kalerantz, eta azken kale hartatik Santakurtzera iristeko Sarasate kalea -Expres taberna-zeharkatu beharko da. Arkupe atzealdean dagoen aparkalekura kultur etxearen eraikinararen ondoan dagoen tuneletik sartuko da. Tunel hori, baina, datorren astera arte ez dute irekiko. Zabalduko diren gainerako eremu-tako aparkalekuak erabil-

garri egongo dira gaurtik aurrera, Expres tabernaren ingurukoak izan ezik; haiek datorren astetik aurrera erabili ahal izango dira.

Bi hilabete inguru atzeratu dira lanak, eguraldiaren eraginez, Udaleko Hirigintza zinegotzi Xabi Otxoak adierazi duenez: "Erritmo onean zihoazen, eta epeak beteko zirela uste izan da. Azken asteetako temperatura baxuengatik eta euriagatik, baina, ezin izan dute hormigoia bota eta asfaltatu, eta itxaron egin behar izan da berme osoz egiteko".

Lanak gainazalean eta azpian

Kalearen gainazalaren eraberritzeari baino garrantzi handiagoa eman die azpian egindako lanei

EGURALDIAREN ERAGINEZ ATZERATU DIRA LANAK; ASFALTATU EZINIK EGON DIRA

Otxoak: "Saneamendu eta ur-hoditeria berri egin da, eta argiteria ere bai. Ezinbestean egin beharreko lanak ziren". Hala, saneamendu urak eta drainatze urak bereizi dira, putzu eta kanalizazio berriak eraikita. Edateko uraren hornidura sareari dagokionez, galdaketa harikorreko sare berri bat jarri da. Argiteria ere berri dute, LED luminariak jarrita, eta telekomunikazio eta gas sareak ere bai.

Gainazala berritzailekoan irisgarritasunari eta segurtasunari eman diote lehentasuna; hala, oinezkoen eremuak eta ibilgailuen trafikoa mugatu egin dira. Bidegorriak bere ibilbidea jarraitu du, eta galtzadaren zabalera txikitu egin dute ibilgailuen abiadura murrizteko.

Otxoa pozik agertu da emaitzarekin, eta herritarrek eskertu gura izan ditu izandako pazientziagatik: "Behin bukatuta, aldaketa eta hobekuntza nabarmena izan du kaleak; hortaz, pozik egoteko modukoa da".

Udaletxean izandako eraso matxista gaitzetsi du Udalak

Kaleratutako adierazpen instituzionalean babesa agertu die biktimei, eta zurrumurruak geldiarazteko eskatu du

Txomin Madina ARETXABALETAKO

Otsailaren 28an egindako ezohiko osoko bilkuran erabaki zuen udalbatzak udaltzainburu izandako R.B.M. kaleratzea, han batu ziren EAJko eta EH Bilduko zinegotzi guztien aldeko botoekin. Horretarako arrazoia izan zen Bergarako epaitegiak frogatutzat eman zuela kaleratutakoak emakume lankideak aldageletan grabatu izana eta, horren ondorioz, intimitatearen kontrako delituagatik zortzi hilabeteko kartzela-zigorra ezarri zitzaiola.

Gertakari honen harira, Aretxabaletako Udalak adierazpen instituzional bat kaleratu du aste honetan. Bertan, gaitzespen "gogorrena" azaldu gura izan du Udaleko langile baten eskutik gertatutako eraso matxistaren aurka, eta, era berean, babesa adierazi die eraso jasan duten emakumei eta haien ingurukoari.

Gizartean "normalizatuta"

Adierazpen instituzionalean gaineratzen denez, emakumeen aurkako indarkeria emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren adierazpen "bortitzena" da, eta nagusitasun eta desberdintasun-harremenen gainean eraikitzen da. Hala, Udalak nabarmendu du emakumeen aurkako indarkeria "onartezina" den arren gizartean "normalizatuta" dagoela.

Horren harira, Udalak dio emakumeen aurkako indarkeria ez dela "gauzez eta kalean" baka-

rrik gertatzen, eta gizartean "errotuta dagoenez" espazio ugaritan izaten dela; "zoritzarrez", baita Udalean ere.

Udalaren konpromiso "irmoa"

"Prozesua luzea" izan dela jasotzen du adierazpen instituzionalak, eta oraindik "asko" dagoela hobetzeko indarkeria matxistaren identifikazioan eta indarkeria matxista jasaten duten emakumeen arretan. Horregatik, Udalak konpromiso "irmoa" hartu du hobetzen segitzeko eta "berdintasunean oinarritutako" herri baterantz aurrerapausoak ematen jarraitzeko, "sentsibilizazioa eta erreparazioa ardatz" hartuta. Gainera, otsailaren 28ko ezohiko osoko bilkuran hartutako erabakiari erreferentzia eginaz, gogora ekarri du espedientatutako udaltzaina ez dela bere lanpostura bueltatuko, ulertzen duelako hori biktimekiko "indarkeria instituzionala" izango litzatekeela.

Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizartea eraikitzeko, Udalak "ezinbesteko" ikusten du herritar guztien jarraitzea "aktibo", Aretxabaleta "berdintasunezkoagoa" lortzeko elkarlanari "nahitaezko" deritzolako.

Bukatzeko, adierazpenak dio garrantzitsua dela informazio "faltsuei" aurre egin eta zurrumurruak geldiaraztea, gizartean emakumeak errunduntzat jotzen dituzten "mito eta aurreiritzi" ugari daudela iritzita.

Datozen asteetako KZguneko trebakuntza saioak gertu dituzte

Markole auzoan dagoen KZgunean hitzaldi eta ikastaro sorta izango da datozen asteetan, eta guztiaren berri webgunean dute jasota: www.kzgunea.eus. Martxoan goizez dago zabalik bulegoa (09:00-13:00), eta alde zurrumurtetik eskatu behar da hitzordua, telefonoz deituta: 943-02 36 14. Saioetan parte hartzeko, hango erabiltzaile izan beharra dago.



Durana 15
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETAKO

"Energiaz beteta" itzuli da abesbatza Avilatik

Santa Teresa Avilakoaren omenezko urte teresiarraren baitako ospakizunean izan zen Aretxabaleta Abesbatza joan den asteburuan, eta pozik bueltatu dira handik; hala, ohiko emanaldiekin batera, kanpoko kontzertuak berreskuratu dituzte

Mirari Altube ARETXABALETA

Santa Teresa Avilakoaren kanonizazioaren IV. mendeurrenari bukaera emateko elizkizun nagusiko gonbidatua izan zen Aretxabaleta Abesbatza joan den asteburuan. Santa Teresak berak eratutako Karmelita mojen elizan izan zen meza domeka eguerdian, eta Ricardo Blazquez kardinalak esan zuen, orain dela urte batzuk Bilboko gotzaina izandakoak. "Bete egin zen eliza; bukaeran, Teresaren omenezko ereserkia abestu genuen, eta jendeak zutik jarrita eta txaloka eskertu zigun", adierazi du Javier Marcosek, abesbatzako kide eta oraintsu arte presidente izan denak.

Kardinala bera ere joan zitzaien zoriontzera: "Pozik agertu zen. Bilbon egon zenean Aita Madinaren *Aita Gurea* ezagutu eta oso gustuko zuela esan zigun, eta hori ere abestu genuen; erabat hunkitu zen".

Orain dela zortzi urte ere izan zen Avilan abesbatza: "Damaso



Abesbatzako kideak eta Udaleko Kultura teknikaria, Avilan. ARETXABALETA ABESBATZA

Zuazua abade aretxabaletarraren bitartez jaso genuen gonbidapena, eta orduan, Santa Teresa jaio zeneko 500. urteurrena ospatzeko izan zen. Hortaz, ezagutzen gintuzten eta berriro joateko eskatu ziguten". Onartu du Avi-

Jaiki elkarteak kaleak girotuko ditu, Aretxarteren ekimenez

Performancea egingo dute gaur, egubakoitza: Araba ibilbidean abiatuko da eta Durana kale barrenean bukatu

M.A. ARETXABALETA

Performance ibiltaria egingo du Jaiki elkarteak gaur, egubakoitza, 19:00etan hasita, *Herrixan erosiz, eroso... eta ponpoxo!* izenpean. Araba ibilbidean -Dagda taberna parean- abiatu eta Durana kalean bukatuko dute ikuskizuna. "Orain arteko performance handienetakoa izango da. Batetik, hamaika lagun elkartuko garelako dantzari, eta, bestetik, lau lekutan egingo ditugulako geldialdiak; besteak beste, Asensio dendako erakusleihoan", adierazi du

Maier Etxebarriak, Jaikiko kideak.

Aretxarteren eskaera

Aretxarte merkatarien elkarrearen ekimena da. Izan ere, erabaki dute hileko hirugarren egubakoitzetan kaleak girotzeko ekitaldiak antolatzea. "Martxoan izango da lehenengoa, eta hango talde batengana jo dugu, hasteko", azaldu du Kristina Hernandezek, Aretxartereko presidentea. Apirilean ere izango da ekitaldiren bat: hila- ren 21ean, hain zuzen ere.

lako elizkizuna prestatzeko denbora askorik ez dutela izan: "Hala ere, ahalegin berezia egin dugu eta oso gustura geratu gara".

Aretxabaletako Udaleko Kultura teknikari Inma Miguel ere izan zen han, eta opariak trukatu zituen Avilako alkatearekin.

Askotariko estiloak

"Energiaz beteta eta erabateko normaltasuna berreskuratuta" itzuli dira: "Iaz ekin genion normaltasunerako bideari; horren adibide dira sanmigeletako eta Gabonetako emanaldiak eta Brionesera irteera". Eta Avilakoak berretsi egin du.

Azken emanaldiaren ardatza erlijio-musika izan da, "eroso" sentitzen diren estiloak: "Musika erlijioso-polifonikoaren baitan gustura jarduten dugu; gregorianoan egindako ibilbidea ere hor dago. Hori bai, gregoriano modernoa egiten dugula esango nuke, bi ahotsetara kantatzen dugulako". Dena den, ez dute estilo horri lotuta geratu gura: "Horregatik, beste kantu eta kontu batzuk ere abesten ditugu; euskal folkloreaki dagozkion kantuak, esaterako".

Kide berrien bila

Aretxabaleta Abesbatzak 1980ko San Jose egunez ekin zion ibilbideari, martxoaren 19an. Orain dela hiru urte, 40. urteurrena ospatu gura izan zuten, baina pandemiaren hasierak harrapatu zituen: "Handik urtebetera ere saiatu ginen, baina egoera ez zen hobea, eta, azkenean, erabaki dugu 50. urteurrena ospatuko dugula".

35 bat lagunek osatzen duten taldea osasuntsu dago, baina kide beharrea. Horregatik, probatzera animatu gura ditu herritarrak, taldean abestearen onurak nabarmenduta: "Sozializazioa, harremantzeko aukera; abestiei esker hizkuntzak ikastea; irteerak egitea; eta autoestimua hobetzea". Astean bi entsegu egiten dituzte, eta, hori lana izan arren, "gustuko tokian aldarrik ez", dio Marcosek.

40. URTEURRENA EZIN OSPATU GERATU ZIREN 2020AN, ETA 50.A OSPATZEA ERABAKI DUTE



DEBAGOIENKO

PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
blasaga@icagi.net

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE
Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA
Araba ibilbidea 20, behea
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE
Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

Badator dantza urbanoen jaialdi arrakastatsua

Fun Dantz jaialdia ospatuko da datorren zapatuan, hilaren 25ean, Ibarra kiroldegiko kantxa nagusian. Aurten ere maila handiko dantza urbanoak ikusteko aukera izango da. Sarrerak salgai, Arkupe Kultur etxean eta Arkupeko webgunean, bost eurotan

Mikel Zumalde Etxabe ARETXABALETA Bueltan da urtero Aretxabale-tako Ibarra kiroldegian ospatzen den Fun Dantz jaialdia. Aurten, martxoaren 25ean izango da, 18:30ean hasiko da eta 20:00etan bukatu. Dantza urbano taldeen aterpe, aurten ere jende andana batuko da kiroldegiko kantxa nagusian dantza taldeen koreografia eta ikuskizunez gozatzeko. Zazpigarren edizio honetan, maila handiko dantza taldeak arituko dira; bereziki, kategoria absolutuan, 15 urtetik gorakoetan.

Bizkaitik iritsiko dira Elements (Santurtzi) eta The Factory (Bilbo) taldeak; Gipuzkoako hiriburutik iritsiko da Bamboo taldea; eta, azkenik, Iruñetik etorriko da B-Breath taldea. Azpimarratzekoa da lau talde horiek Barakaldon ospatzen den BreakOnStage jaialdi ospetsua irabazi dutela inoiz. Haiez gain, beste sei talde arituko dira kategoria absolutuan; hamar, guztira. Junior kategorian, 15 urtetik beherakoetan, beste hamar talde arituko dira dantzan. Tartean, Debagoieneko dantzari asko biltzen dituen Bergarako Camden akademiako hiru talde ere parte hartuko dute. Horrenbestez, Fun Dantz jaialdiaren zazpigarren edizio honetan, hogeitasei talde arituko dira nor baino nor gehiago.

Ander Garaizabal jaialdiaren antolatzaileetako bat da eta ekitaldiak urtero batez beste 600 pertsona elkartzen dituela adierazi du. Hala, dantza urbanoen askotariko estiloez gozatzeko aukera egongo da,

**IRABAZLEEK
BREAKONSTAGE
JAIALDIAN PARTE
HARTZEKO AUKERA
IZANGO DUTE**



lazio Fun Dantz jaialdiko dantza saioa bat. IMANOL SORIANO

gehienez hiru minutu iraungo duten koreografiaren bitartez. Irabazleek, dirua eramateaz gain, maiatzaren 6an Barakaldon jokatu den BreakOnStage jaialdian parte hartzeko aukera izango dute. Ez da sari makala.

Epaimahai ederra

Epai lanetan punta-puntako hiru dantzari ibiliko dira: Alberto Pardo, munduko breakdance eszenan jardunean dagoen dantzari garrantzitsuenetakoa; Laura Bosque, Zaragozako Resistance Crew taldeko kidea; eta Jorge Franch, dantza urbanoen hainbat estilotan espezializatua. Epaimahai osatzeaz gain, jaialdiaren hasieran ikuskizuna eskainiko du hirukoteak.

Sarrerak salgai daude

Sarrerak salgai daude Arkupeko kultur etxean eta *arkupe.eus* webgunean. Bost euro balio dute, eta agortzeaz daude. Emanaldiak laurogei minutu iraungo du. Ibarra kiroldegiko atean emanaldia hasi baino ordu erdi lehenago zabalduko dituzte eta antolakuntzatik eskatzen diote publikoari garaiz iristeko.

Bergarako Camden Dance taldea

Euskal Herri osoko hogeita bat taldek parte hartuko dute Fun Dantz jaialdian, eta han izango dira Bergarako Camden Dance Studioko hiru talde: 15 urtetik beherakoetan, juniorretan bi talde; absolutuan, bat. Kategoria juniorrean dantzatzen lehenak Camden Joyskoak izango dira, jaialdian dantza egingo duen hirugarren taldea. Ondoren etorriko da Camden Vibes taldea, bederatzigarrena. Maila absolutuan arituko den Camden Rules oholtza gainera igoko den hamalagarren taldea izango da. Azken talde hori, hain zuzen ere, Barakaldon ospatuko den Break On Stage jaialdirako txartela eskuratzen saiatuko da.



UDAKO taldea Eibarko Asola Berriko elkarteko bolatokian. HIRUTXIRLO

Hasi da Gipuzkoako 52. Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketa

Aretxabaleako taldean Gorka Madinabeitia eta Jose Luis Gorosabel izan ziren onenak, lau txirlo botata

Mikel Zumalde Etxabe

ARETXABALETA Joan den asteburuan hasi zen Gipuzkoako 52. Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketa, Eibarren, eta han izan ziren UDAKO bederatzikide. Lehen jaurtialdiko txapeliduna Garikoitz Rodríguez izan zen. UDAKO taldeari dagokionez, Gorka Madinabeitia eta Jose Luis Gorosabel izan ziren onenak, bakoitzak lau txirlo botata. Kepa Urrak, berriz, bi txirlo bota zituen. Zapatu honetan, hilak 18, bigarren jardunaldia jokatu dute, Bergarako San Joxepe elkarteko bolatokian.

Bihar, Urtaz Alde antolatuta

Urtaz Alde elkarteko San Jose bola jaurtiketara irekia jokatu da zapatu honetan Aretxabaleako bolatokian. 22:30ean hasiko da, eta izen-ematea ordubete lehenago irekiko dute. Bost euro ordaindu beharko dira eta sariak honako hauek dira: hiru onenek cava eta ardo botila bana jasoko dute. Horrez gain, lehen sailkatuak 100 euro irabaziko ditu, bigarrenak 50 euro eta hirugarrenak 25 euro. Elkarteko kide onenak ere cava eta ardo botila bana jasoko du.

Gaur da azken eguna Loratix 'loratuleketan' izena emateko

Begiraleek curriculum bidaltzeko epea atzo amaitu zen. Gehienez, 90 haurrentzat egongo da lekua

Mikel Zumalde Etxabe

ARETXABALETA Gaur izango da Loratu Atxabalta Elkartek Aste Santuko oporraldirako prestatu dituen Loratix Olinpiadetan izena emateko azken eguna. Asko jota, laurogeita hamar haurrentzat dago lekua. *Loratulekuak*: Lehen Hezkuntzako ume guztiei zuzenduta daude eta ziklo bakoitzeko hogeita hamar ume apuntatu daitezke. Berrogeita hamar euroko kuota ordaindu beharko da, eta bigarren umeak %25eko deskontua izango du; hirugarrena, doan. Apirilaren 3an, 4an

eta 5ean izango dira, ordutegi honekin: 10:00etatik 13:00etara. Izena emateko, Loramendiko bulegora jo behar da. Dagoeneko hainbat ume eman dute izena, eta azken egun honetan haur gehiago apuntatzeko gonbita egin dute Loratu Atxabalta Elkartetik.

Hezitzaileen deialdia, itxita

Udaleketan begirale bezala lan egiteko deialdia atzo amaitu zen. Apuntatzen diren haur kopuruaren arabera, begirale gehiago edo gutxiago beharko dira.



Herriko gazteak festa egun batean. IMANOL BELOKI

Gazte Eguna gertu martxoaren 25erako

Itzartu Gazte Asanbladako kideek antolatutako jaia izango da martxoaren 25ean. Hausnartzetik hasi eta aisialdirako tartea hartuz pasatuko dute eguna Eskoriatzako gazteek. Hala, solasaldia, triki-poteoa, bazkaria eta kontzertuak izango dituzte

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Eskoriatzar guztiei zuzendutakoa izan arren, Gazte Eguna izenez batailatu dute martxoaren 25erako antolatu duten ekintza-sorta eguna Itzartu Gazte Asanbladako kideek. Orotariko ekintzak antolatu dituzte egunerako: gazteek gaur egun bizi duten egoera hausnartzen hasiko dute

eguna, eta aisialdiko bestelako ekintzekin emango diote jarraipena: triki-poteoa, bazkaria eta musika emanaldiak.

Mugimendu gaztearen asmoa

"Ikusi genuen Eskoriatzan gazte mugimendu falta zegoela; batzen hasi ginen, eta bilerak egiten. Hori horrela, taldea sortu genuen,

eta gazte mugimenduari hasiera ematea da martxoaren 25eko egun honen helburua. Ez dugu nahi izan parrandarekin soilik lotzea egun hau; hori horrela, herriko beste mugimendu, elkarre eta eragileen lana aztertzeo solasaldia izango dugu kultura etxean, lehenbizi. Esaterako, Itzartu Gazte Asanbladaren au-

Haurren hezkuntzan laguntzeko hitzaldiak antolatu dituzte

Treba Gurasoak programaren baitan, Leyre Canok eta Nerea Mendizabalek egingo dituzte saioak

I.B. ESKORIATZA

Treba gurasoak Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako udalekin elkarlanean landutako egitasmoa da. Haurren eta nerabeen bizi-kalitatea eta aukerak hobetzea gurasoak hezkuntza

gaitasunetan prestatuz, eta programaren helburua hori izanda, Eskoriatzan martxoan eta maiatzean bi hitzaldi ireki egingo dituzte Leyre Canok eta Nerea Mendizabalek. Lehenak jolasak haurraren garapenean duen

garrantziaz hitz egingo du eta bigarrena familiako gatazkak eta estres egoerak gutxitzeo estrategiei buruz arituko da.

Jolasa, haurren garapenerako gako. Nola izan haurren bide-lagun kontziente? izeneko hitzaldia martxoaren 23an izango da, kultura etxean, 18:00etan, euskaraz; eta *Familia gatazkak eta estresa kudeatzen ikasteko pilulak* izeneko hitzaldia, berriz, maiatzaren 9an izango da, 18:00etan, kultura etxean, gaztelaraz.

Martxoaren 25eko egitaraua

- **11:30** Mahai-ingurua, kultura etxeko eraikinean. *Gazte antolakuntzen esperientzia Eskoriatzan* lelopean.
- **12:30** Triki-poteoa egingo dute, Inkernu tabernan hasita.
- **15:00** Bazkaria Joseba Iñurrategi pilotalekuan. Txartelak salgai jarri dituzte, 15 eurotan, Aldatz eta Inkernu tabernetan, maiatzaren 21ra arte. Aukera beganoa eta zeliakoa izango da, aurrez hala eskatzen dutenentzat.
- **20:30** Musika kontzertuak kontzejupean: Youth United (punk-oi! estiloa) eta Lizartxo (erromeria).
- **23:30** Musika-pintxada kolektiboa, Inkernu tabernan. Parte hartzeo, 688 64 66 72 telefono zenbakira idatzi.

rretik gaztetxea izan genuen Eskoriatzan, eta pentsatu genuen haiek euren esperientzia kontatzea interesgarria izango zela, euren bizitakoak jasoz ikasi dezagun", dio Ainhoa Loitik, Itzartu Gazte Asanbladako kideak.

Loitik gaineratu duenez, Gazte Eguna antolatzea baino gehiago da Itzartu Gazte Asanbladaren asmoa: "Eskoriatzako gazteen beharrak asetzeko talde bat da. Gogotsu gaude, hasiberriak gara eta herriko gazte guztiak animatu nahi ditugu antolatutako ekintzetan parte hartzera".

Youth United taldearen debuta

Josu Rodriguez, Unai Arias eta Markel Penakoba aretxabaletarrek eta Aritz Zubia eskoriatzarrak osatzen dute Youth United musika taldea. Punk-oi! estiloa jotzen dute eta euren lehenengo emanaldia izango da Eskoriatzako. Non Servium, Neallta Fola eta Hell Beer Boys musika taldeen bertsioak eskainiko dituzte, besteak beste. "Iaz sortu genuen taldea, eta, lehenengo entseguak hiruko formatuan hasi arren, lau lagunek osatzen dugu taldea. Horrekin batera, Eskoriatzan

egingo dugun debuta berezia izango da; izan ere, nik, normalean, baxua jotzen dudan arren, abestu egingo dut oraingoan; istripu txiki baten ondorioz ez dut ondo eskua, eta nire ordezkari Unai joko du baxua emanaldi horretan", adierazi du Aritz Zubia taldekideak.

Youth United taldearekin batera Lizartxo erromeria taldea ere izango da kontzejupean. Oñatiko musikariek ondo demostratu zuten iaz, Eskoriatzako San Pedro jaietan, badakite la giroa ondo jartzeko, eta oraingoan ere aurreikuspen berarekin izango dira.

Bi kontzertuak amaitzen direnean, musika-pintxada kolektiboa izango da Inkernu tabernan. Nahi duten herritarrek kantauk aukeratu eta proposatu dituzte egunean bertan orotariko estiloak batzen dituen *playlist*-a osatzeko.

GAZTE EGUNEKO BAZKARIA FRONTOIAN EGINGO DA; TXARTELAK SALGAI JARRI DITUZTE



Udaberriko oporretarako ekintza bereziak

Tortolis ludotekak eta gaztelekuak apirilaren 3rako, 4rako eta 5erako aisialdi-ekintzak prestatu dituzte, egun horietan, lagunartean gozatzeko. Orotariko ekintzak prestatu dituzte hezitzaileek, eta, dagoeneko eman dezakete izena interesdunek

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Eskoriatzako Udalaren hurrei eta nerabeei zuzendutako zerbitzuek, hau da, Tortolis ludotekak eta gaztelekuak, udaberriko oporraldirako ekintzak prestatu dituzte. Egun hauetan urtero izaten dute herriko gaztetxoek zerbitzu batean edo bestean antolatutako ekintzak, eta, ohiko planteamenduari jarraituz, oraingoan ere izango dute lagunartean disfrutatzeko aukera. Izan ere, gaztetxoek ekintza-sorta ederra izango dute apirilaren 3an, 4an eta 5ean, eta nagusiagoak direnek, berriz, Aretxabaletako gaztelekuoekin batera *Bixi desafixua* izango dute, besteak beste.

Tortolisekoen programa

Tortolis ludotekak 2023ko Aste Santuko lehen opor egunez gozatzeko herriko hurrei zuzendutako aisialdi-programa berezia antolatu du. LH-1 eta LH-6 bitarteko hurrei zuzendutako ekintzak izango dira; hau da, 6 eta 12 urte bitartekoentzat, eta honela zehaztu dute egitaraua: LH-1ekoentzat eta LH-2koentzat, altxorraren bila, sukaldaritza, tirolinara irteera, jolasak, olinpiadak eta *slime-a*; LH-3koentzat eta LH-4koentzat, bizikleta irteera, erronka jolasak, altxorraren bila, sukaldaritza eta zirku jolasak; eta LH-5ekoentzat eta LH-6koentzat, bizikleta irteera, orientazio jolasak, igerilekura irteera, olinpiadak, altxorraren bila eta sukaldaritza.

"2021eko Gabonetan ez genuen ohiko jolas-parkea antolatu pandemiaren eraginez, eta haren ordeza udaberriko parkea egin genuen. Hala, pandemia aurreko programara bueltatu gara, eta helburua urterokoa da: egun hauetan guraso gehienak lanean daudela, zerbait berezia eginez aprobetxatzea. Herrigunean arituko dira ludotekako erabiltzaileak, eta parte

hartzera animatzen ditugu...", adierazi du Mainer Etxanizek, Eskoriatzako Udaleko Gazteria teknikariak.

Izen-ematea zabalik dago

Apirileko hiru egun horietan 10:00etatik 13:00etara arituko dira haurrak jolasean Eskoriatzako askotariko txokoetan, Tortoliseko Maialen Lete, Ane Arraeta eta Iker Mediavilla hezitzaileen gidaritzapean, eta, izena emateko epea martxoaren 10ean irekita, hilaren 25era arte dute aukera emateko. Bi bide jarri dituzte horretarako: *online*, *Eskoriatza.eus* webgunearen bitartez, edo astelehenetik egubakoitzera, 16:35etik 19:15era, Tortolis ludotekara joanda. Prezioa 30 euro da.

Lexargarateko abentura

Nerabeentzat, bestalde, apirilaren 3rako eta 4rako plana anto-

GARAZI BARRENA MUSIKARIAREN KONTZERTU AZ GAZTELEKUA AHAL IZANGO DUTE NERABEEK



lax, udaberriko oporraldian, nerabeek plazan batuta. ESKORIATZAKO GAZTELEKUA

latu dute Aretxabaletako eta Eskoriatzako gaztelekuak elkarlanean, eta, iaz antolatu zuten egitaraua arrakastatsua izan zela kontuan hartuta, antzerakoa egitea proposatu dute Eskoriatzako gaztelekuo Dorleta Ezeiza, Leire Lezeta eta Olaia Benito hezitzaileek.

Apirilaren 3an Lexargaratera joango dira egun-pasa, han proba batzuk egingo dituzte taldeka eta iluntzean etxera itzuliko dira. Apirilaren 4an, berriz, herrigunean egingo dituzte ekintzak, 12:00etatik 17:00etara bitartean. Tortilla lehiaketa, bazkaria eta kontzertua egingo dira egun horretan. "Iaz, tortilla lehiaketa egin ostean, Oihu taldearen kontzertua izan genuen. Aurrean, modu berean antolatu dugu, baina oraingoan izango dugun emanaldia formatu akustikoan izango da. Hain zuzen ere, Garazi Barrena musikari arrasatearra izango dugu gurean", adierazi du Etxanizek. Hori horrela, bi eguneko ekintza horietan parte hartu nahi duten interesdunek bost euro ordaindu beharko dituzte, gaztelekuan bertan.

EH Bilduk Edorta Zubizarreta proposatuko du alkategai

Maiatzaren 28ko hauteskundeetan bidelagun izango dituen zerrendakideak, berriz, laster iragarriko dituzte

I.B. ESKORIATZA

Maiatzaren 28ko udal hauteskundeetako hautagaia proposatuko du Eskoriatzako EH Bilduk bihar, zapatua. Edorta Zubizarreta (Eskoriatza, 1963) izango da; Mapfre aseguru-etxeak Eskoriatzan duen bulegoko arduraduna da, eta Eskoriatzako Udalean izan du ibilbide politikoa; izan ere, 1995etik 1999ra HBrekin Gazteria zinegotzi izan ostean, Euskal Herritarrok alderdiarekin izan zen Eskoriatzako alkate 1999tik 2003ra bitarteko agintaldian. Ezker abertzaleak Eskoriatzan alkatetza hartu zuen lehenengo aldia izan zen hura.

Hautagai guztiak, laster

2015-2019ko agintaldian zerrendan azkenengo hautagaien artean aurkeztu zen EH Bildutik. Joan den agintaldian, berriz, ez zen



Edorta Zubizarreta. I.B.

aurkeztu, eta oraingoan, Eskoriatzako EH Bilduren lantalde berriaren aurrean izango da gidari lanetan. Zubizarretarekin batera zerrendan aurkeztuko dituzten hautagaiak zehaztuta dituzte, eta laster iragarriko dute zerrenda osoa.

'Hezegunea' topaketa literarioa egingo dute domeka honetan

Takioiak zorrozten, alkandorak atontzen, gogoa zabaltzen eta umorea laztantzen izango dira domeka honetan, 12:00etan, Judit Ruiz de Munain, Gemma Iñiguez eta Jaione Fernandez de Jauregi, Zaldibar antzokiko oholtza gainean. Literatura erotikoa eta femeninoak hitz egiten izango dira; gaztelekuak izango da saioa.

Ahoz Aho jaialdian, Yoshi Hioki japoniarra protagonista

Ahokotasunaren Nazioarteko Jaialdien baitan, gaur zortzi, martxoaren 24an, 19:00etan, Yoshi Hioki japoniarra izango da Zaldibar antzokian. 1991 ezkerro Bartzelonan bizi den margolari eta narratzailea da Yoshi Hioki, eta Japoniako garai guztietako mitoak, kondairak eta literatura-istorioak kontatuko ditu (Ikus 11. orria).

OHARRAK

Buruarinak egiteko tailerra

Buruarin bat egiten ikasiko dute parte-hartzaileek. Domekan 17:00etan izango da hitzordua, Ibarraundi museoan, eta 4 eta 10 urte bitartekoei zuzenduta dago saioa.

Enplegua egonkortzeko prozesua martxan da

Eskoriatzako Udalean zazpi plaza egonkortzeko iragarkia argitaratu dute. Eskaerak aurkezteko epea martxoaren 7tik apirilaren 3ra bitartekoa da, biak barne.

Ibilgailuen zerga borondatez ordaintzeko epea

Borondatez ordaintzeko epea honako hau da: 2023ko martxoaren 29tik maiatzaren 8a arte.

Oiarzabaltarrak garaile Zanbranako txapelketan

Aldaype Ehiza eta Arrantza Elkartekoen antolatutako ehiza txikiko txapelketa jokatu zen joan den asteburuan, eta hamazazpi eskoriatzarrek hartu zuten parte. Horietatik bost sailkatu dira hurrengo faserako: hiru senior eta bi beterano, hain zuzen ere

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA
Aldaype Ehiza eta Arrantza Elkartekoen beste urte batez antolatutako ehiza txikiko txapelketa jokatu zen joan den asteburuan Zanbranako (Araba). Eskoriatzatik hamazazpi lagunek hartu zuten parte lehiaketan: beteranoetan zazpi lagunak eta senior kategorian hamar kidek. Haien artean, senior kategorian, Alex Oiarzabalek irabazi zuen, *Xane* txakurrekin, bost eper eta galeper bat ehizatu. Haren osaba Rafa Oiarzabal, berriz, beteranoetan nagusitu zen, *Lai* txakurrekin, bost eper ehizatuta.

Alex Oiarzabal eskoriatzarrek ez du hutsik egiten txapelketa horretan, eta pozik geratu da egindako lanarekin. "Txapelketa horretan askotan aritu naiz, baita irabazi ere. Junio-urretan, esaterako, 18 urterekin, Aldaypekoa egin, Gipuzkoako-rako sailkatu eta Euskadikoa irabazi nuen. Urtero joaten gara Zanbranako leku berera; ondo ezagutzen ditugu hango bazterrak... 08:00 inguruan eperak askatzen dituzte eta ekitaldia hasten da; amaiera, berriz, 12:00-12:30 artean izaten da. Hasieran lortzen dira eper gehien, normalean, baina, nire kasuan, ez zen horrela izan:



Alex eta Rafa Oiarzabal txakurrekin. ALDAYPE EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEA

amaiera aldera lortu nituen ia eper guztiak; zorte kontua izaten da. *Xane* txakurra ere oso ondo aritu zen: 12 urte ditu eta haren azkenengo txapelketa izan da honako hau. Amaierarako txakurrak ezin zuen jarraitu; izan ere, 22 kilometro egin genituen, guztira.

Bost lagun hurrengo faserako

Txapelketan parte hartu nahi duten bazkideek baldintza batzuk bete behar izaten dituzte: lehenik eta behin, Aldaype elkarte-ko bazkide izan behar da, Al-

daype elkartetik federatuta egotea ezinbestekoa da, arma-baimena izatea, ehiza-baimena eta federazio-lizentzia indarrean izatea. Hala, baldintza horiek beteta, parte hartu zutenetik, bost izan ziren sailkatuak: senior kategoriako hiru lagun eta beteranoen kategoriako bi sailkatu ziren herriarteko faserako. Seniorretan: Alex Oiarzabal, Aratz Kortazar eta Andoni Etxenausia; eta beteranoetan: Rafa Oiarzabal eta Jose Mari Zubizarreta. Hurrengo fasea irailean jokatuko dute.

Estebanekin solasaldia

Eskoriatzako alderdi jeltzaleak antolatuta, Aitor Esteban Espainiako Kongresuko EAJren bozeramailearekin solasaldia izan zen astelehenean Zaldibar antzokian. Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkateak gidatu zuen saioa, eta, hain zuzen ere, hitzorduaren aurretik herritarrek egindako galderak izan zituzten hizpide.



IMANOL BELOKI

LEINTZ GATZAGA | 19



Gatzaren ekoizpen-gunea, Turismo Bulegoko eraikinetik aterata. TXOMIN MADINA

Aste Santura begira bisita gidatuak prestatzen ari dira

Apirilaren 5etik 10era bitartean izango diren bisita gidatu berezietarako erreserba egiteko eskatu dute

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA
Leintz Gatzagan, Dorletako santutegiaren magalean dagoen iturburuko ura gatza lortzeko erabiltzen da, eta, garai batean baino kopuru txikiagoan izan arren, gatz ekoizpenak jarraitzen du. Duela milioika urte gatz-iturburu sortu zen, gatza ateratzen hasi ziren, eta, jarduera ekonomiko bati hasiera emanda, herria bera ere sortu zutela adieraziko du, besteak beste, Aste Santuan eskainiko dituen bisitetako azalpenetan Gatz Guneako arduradun Aitor Larrañagak.

Ordutegiak, zehaztuta

Aste Santuan apirilaren 5etik 10era bitartean eskainiko dituzte bisita gidatuak Gatz Museoa: 12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Horrekin batera, Gatz Museotik azpimarratu dutenez, erreserba egin beharko da aurrez gatzmuseoa.com helbidean.

Edozein zalantza, argibide edo informazio behar duenak zabalik izango du Gatz Guneako Turismo Bulegoa, honako ordutegi honetan: 11:30etik 14:30era, apirilaren 5ean izan ezik, egun horretan 09:00etatik 14:00etara izango dira eta.



AINHOA BARANDIARAN

'Sorginen' bazkarian batutakoak

Beste urte batez, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Leintz Gatzagako Sorginak Emakume Taldeko kideek bazkaria egin zuten. Aurten, Toki Eder elkartean batu ziren bazkaltzeko, eta, guztira, 25 lagun inguru izan ziren. Ohi bezala, hitzordua aprobetxatu zuten talde-argazkia ateratzeko.



Luis Mari Murua bankari ohia hitzaldia egiten, San Joxeperen egoitzan, eguazten arratsaldean. J.B.L.

"Hitzaldietan pentsioak dira protagonista"

LUIS MARI MURUA
ERRETIRATUA, BANKARI OHIA

Hainbat bankutan lan egin eta erretiratu ostean, modu boluntarioan egiten ditu hitzaldiak erretiratu-etxeetan. **Nolatan hitzaldiok egiten?** Bankari izan eta erretiratu ostean pentsatu nuen laguntzeko modu bat izango zela hitzaldiak egitea. Ez nekien interesik piztuko zuen, baina Zumarragan egin nuen lehen saioan 40 lagundik gora agertu ziren.



J.B.L.

Zeintzuk dira zure entzuleen kezka nagusiak? Hitzaldietan pentsioak dira protagonista, zalantzarik gabe. Ditxosozko 1.080 euro horiek ezinbestekoak dira, baldin eta zein den kasua. Etxekoandre izan eta kotizatu gabe lan itzela egin duen horrek merezi ditu 1.080 euroak, baina bizitza osoa beltzean kobratzen eta pentsio baxua izanda ere hainbat ondasun dituenak... Bada, ez dut uste merezi duenik.

Gero eta bazkide gehiago, erretirorik aktiboenean

San Joxepe elkarteak 1.640 bazkide inguru ditu gaur egun, eta, Nestor Inurrieta presidentearen arabera, gero eta ekintza gehiago antolatzen dituzte kanpora zein barrura begira: "Gure erretiratuak oso aktiboak dira; bizitzeko gogo handia dute"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA 2022 amaieran egindako azken kontaketa arabera, gaur-gaurkoz, 1.640 bazkide inguru ditu San Joxepe erretiratuen elkarteak. "2022a oso urte ona izan zen guretzat, ehundik gora bazkide berri egin genituen eta. Oso pozik gaude; gaur egungo erretiratuak oso aktiboak direla erakusten digute, bizitzeko

gogo handia dutela", adierazi du elkarte presidentea Nestor Inurrieta.

Bazkideei eskaintzen dizkieten askotariko ekitaldien artean, eguaztenerako Luis Mari Murua bankari ohia gonbidatu zuten ekonomia gaien gainean berba egiteko; 25 bat bazkide izan ziren hitzaldian, eta amaieran, zalan-tza partikularrak zituztenek

Muruari galdetzeko aukera izan zuten. "Bazkideentzat interese-koak diren ahalik eta ekintza gehien antolatzen saiatzen gara, eta horregatik gonbidatu dugu Murua", gaineratu du Inurrieta. Hurrengo ekintzen artean, honako hauek azpimarratu ditu elkarte presidentek: atzo, *Don Giovanni* operaz aritu zen berbetan Valen Moñux; gaur,

Bergara Musika Eskolaren laguntzarekin garatutako *Musikarekin gozatzen* ekimeneko azken saioa izango dute; martxoaren 22an, sagardotegira joango dira; eta martxoaren 29an, udaberriko festa egingo dute.

Hiru autobus sagardotegira

Hilaren 22ko sagardotegirako planak izan duen arrakastarekin harrিতa geratu da Inurrieta: "Bazkide batzuek esan ziguten udaberri sagardotegira joan nahi zutela, baina ez genuen espero hiru autobus betetzea; badirudi gure erretiratuak egarri-zaudela. Giro ederra izango dugu, ziur. Udaberriko festa kanpora joateko zailtasunak dituzten bazkideei begira antolatu dugu, bereziki, elkarte bertan hainbat ekintza antolatzeko ohitura dugu eta; gure helburuetako bat bazkideen

arteko sozializazioa ere bada". Horren adibide da askotariko tailer finakoak dituztela aste osoan.

Hilaren 25ean itxi egin behar

Elkarteko presidentek zuzenean eragingo dien ohar garrantzitsu bat ere eman nahi izan die bazkideei: "Esango nuke aspaldian ez dela elkarte itxi behar izan, baina oraingoan derrigortuta gaude egun oso batez ixtera. Inguru osoko argindarra egokitzeko lanetan ari dira eta elkartekoa ere egokitu beharko dute; horregatik, itxi egin beharko dugu martxoaren 25ean.

ARGINDARREAN EGIN BEHARREKO LANAK DIRELA-ETA ITXITA EGONGO DA EGOITZA HILAREN 25EAN

Labegaraietako ur-jolasen parke berria lizitazio fasean dago

Kiroldegiaren atarian jarriko dute ekipamendu berria; enpresa eraikitzaileak apirilaren 3rako aurkeztu behar dira

J.B.L. BERGARA

Labegaraietako kiroldegiaren atarian ur-jolasen parkea egingo dute. Imara enpresak idatzitako proiektua lizitazioan dago eta enpresa eraikitzaileak aurkeztu daitezke apirilaren 3ra

arte. Ekipamendu berri horrek 271 metro koadroko azalera hartuko du eta aurrekontua 290.193 eurokoa da -BEZa barne-. Udalak aditzera eman duenez, sakonerarik gabeko ur-txorrotak izango dira eta sarrera libreko

lehena izango da; izan ere, Agorrosingo kanpoko igerilekuan ireki zen herriko lehena, aurreko agintaldian. Ekipamendu berriak Labegaraietako kiroldegiaren erreka aldeko belardi eta hormigoizko eremua hartuko du. Ur-txorrotekin bustitako eremuak, berriz, 160 metro koadro izango ditu; jolas irisgarriekin eta espezifikoeekin diseinatu da, hainbat adin-tarteri begira; proiektuan jasotzen denez, ur-jolasen parke berriak 25 jolas-eremu izango ditu, guztira.



Kiroldegiaren atarian jarriko dute ur jolasen parkea; irudian, infografia bat. IMARA



Elorregi auzoko Alkartasuna elkarteko teilatua konpontzeko lanak, asteon. MIKEL AGIRRE

Elorregi: igarobide izanda ere, elkartzea behar dute

Amaitutzat eman dituzte duela hiru aste inguru hasitako Elorregi auzoko Alkartasuna elkarteko teilatua konpontzeko lanak. Obrak aitzakia hartuta, bazkideetako batekin egon da GOIENA, auzoko beharrez berba egiteko; tartean, "ezinbesteko" duten komun publikoak

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Arrasate, Oñati eta Bergara arteko mugan dagoen Elorregi auzotik igaro denak igarriko zuen Alkartasuna elkartea obretan dagoela. Duela hiru aste inguru hasi ziren lanak, teilatua konpontzeko helburuarekin, eta, elkarteko bazkide den eta auzoa ondo baino hobeto ezagutzen duen Felix Zubia *Sanpru*-ren

arabera, aldamia kentzea falta bada ere lanak amaituta daude.

Eskola izatetik elkarte izatera

Gaur egungo Alkartasuna elkartea auzoko eskola izan zen garai baten; hango ikasle izan zen *Sanpru*, eta, gogoratzen duenez, adin askotariko ikasleak elkartzen ziren. Urte batzuk pasatu behar izan ziren gaur egungo

elkartea irekitzeko: "1974ko udazkenean ireki genuen egungo elkartea, baina alde zuzenetik aipatu beharra dago gaur egun biribildunearen ondoan dagoen etxean taberna bat zegoela. Taberna hartan elkartzen ziren auzotarrak, eta, hango ugazaba hil zenean, oker ez banabil 1956an edo 1957an, auzoa elkartzeko toki barik geratu zen. Meza ostean

auzotarrek ez zuten nora joan, adibidez. Urte batzuk igaro ostean, 1966an, gutxi gorabehera, elkartea sortu zen biribildunearen ondoko eraikinean eta geroago pasatu zen elkartea gaur egun dagoen tokira".

Bazkide kopuruari dagokionez, Alkartasuna elkarteak ez ditu garairik onenak bizi: "55 bat bazkide izango gara gaur egun. Beste hainbat elkartetan moduan, hemen ere beherakada nabarrena da; ezin da ahaztu, gainera, garai baten auzotarrak bakarrik izan zitezkeela bertako bazkide... Orain, edozein izan daiteke". Gaur egun inoizko mugimendu txikiena dago elkartearen bueltan. Izan ere, apirilaren 27tik maiatzaren lera ospatu ohi diren San Prudentzio jaiez harago, urtean behin auzoko emakume eta gizonezko edadetuen omentzen zuten bazkari baten bueltan; eta *Sanpru* bera ziklismo-zale amorratua izanik, nostalgia bereziarekin gogoratzen du gazte mailako ziklistekin batera profesionalak gonbidatzen zituztenekoa. Bi ohitura horiek ere galdu egin dira.

Komun publikorik ez oraindik

Igarobide bihurtu den auzoa da Elorregi, eta *Sanpru*-k dio herri-erregimenteratik kanpo dauden beste auzo asko bezala "nabarren" zahartzen doan auzoa dela: "Askotariko zerbitzuak falta dira eta bizitzera etortzeko ez da baterak erakargarria. Auzotar gehienak Bergarara, Arrasatera eta Oñatira joan ziren bizitzera".

Beharrezko zerbitzuen artean komun publikoarena aipatu du *Sanpru*-k: "*Sanprubus*-aren bueltan zenbat jende batzen den ikusita, derrigorrezkoa da komun publikoa izatea. Gaur-gaurkoz, errealitatea da hainbat alditan

salatu arren ez dakigula noiz jarriko duten. Bergarako, Arrasateko eta Oñatiko udalak edo Diputazioa izan horren erantzule, argi dagoena da komun publikoak falta zaigula; balio dezala elkarriketa honek berriro ere eskatzeko".

'Auzuak ala hil', Elorregin

Auzoek bizi duten egoera zailaren berri eman eta haien arteko kohesioa bultzatzeko *Auzuak ala hil* ekimena abiatu zuten Uberan 2018an. 2019an Angiozarren egin zen, eta, pandemiak eragindako etenaren ostean, 2022an Osintxun elkartu ziren. Aurten San Kristobalگو eta Elorregiko auzotarrek hartu dute "egun berezia" antolatzekeo ardurak; egun osoko egitaraua antolatu dute apirilaren 29rako, Elorregin. "Eguna antolatzekeo bilera baten egon nintzen eta izugarri poztu nintzen jende gaztea gauzak antolatzekeo gogoz ikusita; lan handia ari dira egiten. Goizean zehar bisita gidatu bat egiteko asmoa dago eta auzotar batek Elorregiz gehiago jakiteko hitzaldia egingo du. Ondoren, herri bazkaria egingo dugu, frontoian –bertako base-rietan erositako produktuez osatuta–, eta bazkalostea bertolariekin girotuko dugu. Eguna borobiltzeko, kontzertuak egongo dira, Tavex zenaren eremuan. Ez du auzoaren biziberritzea eragingo, baina txalotzeko da ekitaldiak antolatzekeo egiten ari diren ahalegina".

'AUZUAK ALA HIL', AURTEN ELORREGIN: APIRILAREN 29RAKO EGITARAU BEREZIA ARI DIRA ANTOLATZEN

Programarekin ari da EH Bildu, "askotariko ikuspegiak" jasoz

Gorka Artola alkategaiak aurreratu du, besteak beste, zaintza izango dela datozen urteetarako "erronketako bat"

J.B.L. BERGARA

Udal hauteskundeetarako herri programa osatzeko "askotariko ikuspegiak" jaso ditu EH Bilduk. Gorka Artola alkategaiaren arabera, herri programa izango da datozen lau urteetarako "oinarri

sendoa". Lan-ildo batzuk zehaztu dituzte: "Zaintzaren arloa datozen urteetarako erronka garrantzitsua izango da, eta beste instituzio eta eragile batzuekin batera politika eraginkorrak martxan jartzea dugu

helburu. Ingurumenaren zaintza eta energia berriztagarriak gure txikitik ere landuko ditugu. Eta kultura arloan pauso esanguratsuak egiteko moduan gaude", aipatu du Artolak.

Oskar Matute Iralan bihar

Biharko, hilak 18, Espainiako Kongresuko diputatu Oskar Matuterekin solasaldia antolatu dute; Irala kalean izango da, 13:00etan: "Gaurkotasuneko arazo eta erronkez jardungo dute; salda egongo da amaitu ostean".



Programa osatzeko saioetako bat. EH BILDU

Liztor beltzaren aurkako kanpaina apirilaren 30era arte

Liztor beltzari aurre egiteko 50 tranpa jarriko dituzte, 2018tik hona topatutako habien kokapenak aintzat hartuta. Langile batek hartu du prozesu osoaren ardura: tranpak jarri, jarraipena egin, datuak bildu –zenbat liztor hil diren eta zein espezie-takoak– eta ondoren tranpak kendu. Behaketa astero egingo da, apirilaren 30era bitartean.



Seminarixoko aurkezpen ekitaldiaren amaieran familia-argazkia atera zuten, ziklista guztiekin, "ezinbesteko" babesleekin eta Gorka Artola alkatearekin. ARGAZKIAK: XABIER URZELAI

Aurkezpenetik, besoak altxatuta

Lokatza Ziklismo Eskolak modu berezian aurkeztu du aurten denboraldia, Seminarixoan egindako ekitaldian. Hainbat mailatako ziklistak aurkeztu zituzten, emakumezkoetan zein gizonezkoetan; babesleak eskertu eta iaz hildako Pello Garitano izan zuten gogoan

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Lokatza Ziklismo Eskolak talde profesionalen tankerako aurkezpen-ekitaldiarekin abiatu du denboraldia. Aurten bestelako ekitaldi bat egitea erabaki dute, Seminarixoan; harmailak bete egin ziren. Lokatzakoek esker on hitzak izan zituzten; bereziki, "ezinbesteko" babesle diren Igammo Packaging, Bolintxo Okindegia eta Lana kooperatibarendako.

Aurkezle berezia, musika...

Xabier Otaegi *Txirri*-k aurkeztu zuen ekitaldi berritua, eta Seminarixoko taula gainetik pasa ziren gaur egungo presidente Ion Unamuno, *Portu*-rekin batera Lokatza ziklismo eskola sortu zuen Fermin Hernandez, Gorka Artola alkatea –aitortu zuen gaztetan ziklismoan ibili zela, Lokatzen bertan–, eta klubeko babesle nagusietako ordezkariak ere berba batzuk izan zituzten; gainera, zuzeneko musika ere izan zen, Diablues eta Bluezifer bikotearen eskutik. Hitzordu berezia baliatu zuten, gainera, Lokatzaren *alma mater* edo bultzatzaile nagusi izan zen eta iaz hil zen Pello Garitano gogoan izateko.

Eskolarretako txirrindulariak Maila eskolarra benjaminak, alebinak eta infantilek osatzen dute. Benjaminetan hiru ziklista dituzte: Paul Diaz Horrilo, Hegoi Chaparro Dominguez eta Lander Taboada Fernandez. Alebinetan hamaika txirrindulari izango dira, guztira: Xanet Aranburu Kareaga, Harri Izagirre Santamaria, Hodei Maiztegi Uribesalgo, Josu Martin Etxeberria-Arteun, Peru Kortabarria Arana, Aimar Arzelus Agirre, Izar Aranguren Arzelus, Enaitz Irizar Iztueta, Unax Alberdi De Torre, Eneko Ruiz De Eguino Perez eta Markar Kovalenko Kovalenko. Eta eskolarretako infantiletako taldea honako ziklista hauek osatzen dute: Maddi Alonso Berezibar, Ekain Irizar Fernandez, Hegoi Aranburu Seguro, Aimar Osa Jimenez, Harkaitz Ilarduia Arteaga, Unai

**ESKER ON HITZAK
IZAN ZITUZTEN; BATEZ
ERE, "EZINBESTEKO"
DITUZTEN
BABESLEENDAKO**

Mondragon Basurto eta Lier Aranguren Arzelus.

Kadete mailako ziklistak

Kadete mailako gizonezkoen taldean sei ziklista ditu Lokatzak: Markel Eguren Toledo, Unai Ormaetxea Arriaran, Manex Larrañaga Sarriegi, Izortz Llodio Ramos, Ekaitz Labaien Arregi eta Iñaki Plaza Amozarrain.

Bestalde, emakumezkoetan harrobi aipagarria dute; kadete mailan, honako txirrindulari hauek: Maddi Oleaga Garcia, Arantxa Anduaga Santos, Izar Ezkibel Bastida, Izaro Agirre Zoilo eta Itxaso Askasibar Belar. Junior mailan Edurne Ormaetxea Arriaran eta Itxaso Plaza Amozarrain aipatu behar dira eta elitean zein 23 urtez azpiko mailan, berriz, Ainhize Barrainkua Agirre eta Eneritz Urrutia Tena.

Era berean, martitzeneko aurkezpenean izan ziren Lokatzako harrobikoak diren eta aurten Ulmako junior mailan lehiatuko diren Beñat Iñarra Mateo, Aratz Arenaza Irizar eta Unax Errasti Urteaga; 23 urtez azpiko Olatz Gabilondo Zenitagoia (Team Zatika Bike Women) ere izan zen beste protagonistetako bat.



Kadete, junior, 23 urtez azpiko eta elite mailako taldea.



Kadete mailako txirrindulariak.



Eskolarren taldea: benjaminak, alebinak eta infantilak.

Gorlara Pello Garitanoren omenez

Martxoaren 25ean egingo dute Pello Garitano omentzeko proba zikloturista. San Martin plazatik hasi eta Bidekurutzetan San Pedro kalea zuzen hartuta Burdiñaterantz joko du tropelak. Handik Gorlara dena aldapa gora izango da; zortzi kilometro eta 530 metroko desnibel positiboa. Izena eman daiteke hilaren 22ra arte. Federatuek 5 euro ordaindu beharko dute eta ez-federatuek, 8 euro –www.kirolprobak.com–. Laguntza eman nahi duenarendako, helbide elektronikoa hau sortu du antolakuntzak: pellomartxa@gmail.com.

"Biziki motibatuta gaude pastoralala partekatzeko"

PANTXIKA URRUTI 'MADDIREN TRAJERIA' PASTORALEKO ERREJENTE EDO ZUZENDARIA Xareta eskualdetik 100 lagundik gorako taldea etorriko da hilaren 25ean: "Jakín behar duzue arizale guztiak biziki gogotsu daudela ikuskizun ezin ederragoa eskaintzeko"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Ilusioz eta gogoz gainezka dago Pantxika Urruti (Barkoxe, Zuberoa, 1955) *Maddiren trajeria* pastoralala Bergaran antzetzeko. Martxoaren 25ean izango da, udal pilotalekuan (18:00). Sarreak salgai daude *seminarixoa. eus-en*, 15 eurotan.

Maddiren trajeria pastoralaren azken emanaldia izango da Bergarako; pozik Bergaran ere egiteaz?

Halaxe da, azken emanaldia izango da Bergarako. Lantalde osoa, 100 bat lagun, biziki pozik gaude. Xareta eskualdeko lau herrietako parte-hartzaileak biziki harro gaude pastoral hori Bergaran eskainiko dugulako, Gipuzkoako herri baten. *Muga gabeko pastoralala* deitu diogu, hegoaldearen eta iparraldearen arteko muga gaingitu dezagun. **Nola heldu da Bergarara?**

Badakit taldeko kide batzuek harremanak zituztela Bergaran bizi diren batzuekin, eta aurretik egindako lau emanaldiak amaitu ostean beste emanaldi bat egin nahi genuela eta Bergarako herriari proposatzea erabaki genuen. Proposamenak sekulako harrera izan zuen Udalean, eta, pastoralala aurkeztu ondoren, alkateak eta Kultura Sailean lanean ari diren langileek segituan agertu zuten interesa; egun egoki bat proposatu ziguten, eta aurrera.

Pastoralak ikusteko ohiturarik ez duenak zergatik joan beharko luke frontoira martxoaren 25ean?

Bost diziplina dituen ikuskizun oso bat delako. Ikuskizun osoan zehar kantuez, dantzez eta bertsoez gozatu ahalko da eta eszena guztietako sarreak eta irteerak musikaz lagunduta egiten dira. Pastoralako zuzendari bezala, saiatzen naiz pastoralala ahalik eta dinamikoena izaten, une oro ikuslearen arreta atxikitzen.

Leku egokia da udal pilotalekua pastoralala interpretatzeko?



Pastoralako errejente edo zuzendari Pantxika Urruti, Bergarako frontoian. T. MADINA

"MUGARIK GABEKO PASTORALA DEITU DIOGU, HEGOALDE ETA IPARRALDE ARTEKO MUGA GAINDITZEKO"

Egiazki leku egokia dela. Jarlekuak erosoak dira eta, oholtza lurraren altueran jarrita izango dugunez, bertaratuko diren guztiek ondo ikusiko dute. Kasu honetan, gainera, musikariak agertokiaren ondoan egongo dira, ikusle guztien bistara. Arizale edo aktore bakoitzak bere mikroa izango du soinean, sonorizatzaile profesional bat dugu eta lantaldean.

2011n Monzon pastoralala izan zen Bergaran; egon zinen bertan?

Ez nintzen bertan egon, baina kontatu didate ederra eta biziki hunkigarria izan zela. *Monzon* pastoralala ikusia nuen Larrainen eta biziki ederra iruditu zitzaidan; bereziki, dantzak. Eta sinistu nahi dut bergararrek badutela oroitzapen paregabea... Badakit, gainera, Larraineko arizaleekin festa luzatu zela gauez eta denek egin zutela lo herri-

tarren etxeetan. Ordutik, harremanak mantentzen dira bi herrietako herritar batzuen artean. **Pastoralaren aurretik desfile bat ere egingo duzue, ezta?**

Zuberoan eta beste lekuetan egiten diren pastoraletan beti egoten da desfile bat. Hor hasten da pastoralaren eguna; desfilearen helburua da egun berezia girotzea. Desfilearen amaieran dantza bat eskaini ohi dugu, eta pastoralako kantu bat.

Uste duzu bergararren gustuko ikuskizuna izango dela?

Baiezta uste dut. Pastoral horrek, gainera, baditu berezitasun batzuk: lehena da haurrek leku eta presentzia handia dutela pastoral osoan; bigarrenik, lehen aldiz egingo dugu fikziotik ere baduen pastoralala, hor egongo dira oihaneko animaliak; jostunek irudimena martxan jarri dute, eta ea ikusleak asmatzen duen zein animalia diren...

Ezer gaineratu nahiko zenuke?

Arrakasta handia izan du pastoral horrek. Seguru naiz plazer handiarekin ikusiko duzuela; ororen gaintik jakin behar duzue arizale guztiak biziki motibatuta daudela ikuskizun ezin ederragoa eskaintzeko.

Alex Txikon gonbidatu dute Gure Ametsakoek martxoaren 22rako

San Antonioko Gure Ametsa elkarte gastronomikoaren 50. urteurreneko ospakizun nagusia martxoaren 25ean izango da: hamaiketako (11:00); hildako bazkideen omenezko meza, ermitan (12:00); Bergarako Musika Eskolako orkestraren kontzertua, plazatxoko karpan (13:00); batzar orokorra eta bi bazkide fundatzailei omenaldia (14:00) eta bazkide guztiendako bazkaria izango dute (15:00). Egun handiaren aurretik, martxoaren 22an, Alex Txikon mendizale ezaguna gonbidatu dute elkartera, Mendia lehen eta orain izenburu duen solasaldian parte har dezan. Solasaldia 19:30ean hasiko da eta ondoren pintxoak egongo dira.

Bandak kontzertua emango du etzi udal pilotalekuan (12:30)

Musika bandak kontzertua emango du etzi, hilak 19, frontoian (12:30). Bandako zuzendari Enrique Txurrukak aurreratu duenez, honako pieza hauek joko dituzte: Pascual Perez Choviren *Pepita Greus* pasodoble ezaguna; Vicente Beobideren *Rapsodia vasca* -euskal doinu herrikoetan oinarritutako pieza-; Henry Purcellen XVII. mendeko Ingalaterrako barrokoaren *Air and March* piezaren moldaketa; Johan de Meijen *Aquarium* -musika "oso deskriptiboa", arrain tropikalak irudikatzen dituena-; Cole Porter-en *Begin the beguine* pieza dantzagarria; eta *Karibeko piratak* filmarekin ezagun egin zen Hans Zimmer-en *At World's end*.

Isladak antzerki taldea: estreinaldia gaur, Seminarixoan

Herriko Isladak antzerki taldeak gaur egingo du lehen emanaldia, Seminarixoan, 20:00etan. Gehieenez hamabost minutu irauten duten lau pieza taularatuko dituzte, bi euskaraz eta bi gaztelera; pieza bakoitzaren aurretik Leire Moñuxek abesti bat joko du, gaia testuinguruan kokatzeko. Lantzen diren gaiek bizitza erreala irudikatze helburua

dute, hausnarketa bultzatzeko. Honako hauek dira lau piezak: *Horrela hasi zen dana*, *Disturbios en la fabrica*, *Autobus geltokia* eta *En el restaurante*. Sarreak agortuta daude.

Antzerki soziala egiten dutela diote, antzerkia egiteko zailtasunak dituzten kolektiboei -erretiratuak eta downen sindromea duten bi lagun, kasu- ere aukera bat ematen dietelako. Bergarako, Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako herritarrek osatzen dute Isladak.

OHARRAK

Erramu zapatuko bazkarirako txartelak

Apirilaren 1ean udal pilotalekuan egingo den herri bazkarirako txartelak martxoaren 23an jarriko dituzte salgai 15 eurotan, Irala kalean (18:30). Aukera beganoa edo zeliakoa nahi izanez gero txartela erosterakoan jakinarazi behar da. Txapa irratiak eta Xaxauk antolatzen dute bazkaria, Udalaren laguntzarekin.

Euskal Herriko historiaren gaineko erakusketa

Nabarralde eta Udalak *Giza habitat ezkutatua. Ezkutatu diguten historia*. Gure kontakizuna izeneko erakusketa eroango dute Aroztegi aretora, martxoaren 24tik apirilaren 9ra. Hilaren 24an eta 31n bisita gidatuak egongo dira, 18:30ean.

Bedelkar: beste desfile baterako modelo bila

Maiatzaren 13an, "moda desfile informal" bat egin nahi dute. 18 urtetik gorako edozein herritar deitu dute: 616 72 75 92.

1963an jaiotako bergararren ospakizuna

Maiatzaren 13an, Tartufo jatetxean bazkalduko dute. Izena emateko, 25 euroko ordainketa egin behar da martxoaren 31 baino lehen, izen-abizenak kontzeptu moduan jarrita: ES19 3035 0009 1100 9116 2113 (Laboral Kutxa).

23 akta-liburu eta 140 hidalgia, digitalizatuta

2.770 dokumentu daude Antzuolako udal artxibo historikoan, eta horietako batzuk digitalizatzen hasi dira, Lourdes Odriozola historialariak azaldu duenez. Haren ustez, Jaurlearitzak eta Udalak apustu egin dute horren alde, eta "garrantzitsutzat" jo du

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Antzuolako udal artxibo historikoko dokumentu batzuk digitalizatzen hasi dira; eta, kasu honetan, 23 akta-liburu eta 140 hidalgia digitalizatu dituzte, Lourdes Odriozola historialariak azaldu duenez. Hark izan du zeregin horren gaineko kontrola; besteak beste, zer dokumentu digitalizatu behar diren eta nola, artxiboaren antolaketaz eta ikerketa historikoaz arduratzen baita. Alabaina, enpresa espezializatu batek egin du digitalizazio-lana, makineria berezia behar delako, eskaner batzuk.

Digitalizatutako dokumentuei dagokienez, jasotako lehen akta-liburua 1661ekoa da eta azkenekoa, 1965ekoa. Hidalgia edo kaparetasun espedienteak, berriz, XVI, XVII eta XVIII. mendeetakoak dira. "Espediente batzuk dira, demostratzeko dokumentazioaren arabera eurak euskaldunak zirela eta euren jatorria ere halakoa zela. Hala, tratamendu berezia zuten atzerrian". Hain justu, azpimarratu du *Kapareak eta odol garbikoak* adierazpena zebilkiela dokumentu haietan, euskalduntasunaren adierazle. "Gehienbat, eskatzen zuten Euskal Herritik kanpo



Lourdes Odriozola historialaria Antzuolako udal artxibo historikoan. MAIDER ARREGI

joaten zirenean, edo baita base-ri indartsu batekoak izanez gero ere, ezkontzeko orduan jatorria argi gera zedin".

Dokumentuen lanketa

Odriozolak azaldu duenez, dokumentu horiek oraindik ez daitezke kontsultatu, baina dena prest izatean, digitalean jarriko dira nahi duenarentzako, Eusko Jaurlearitzak horretarako propio duen plataforma batean, Euskadiko Artxibo Historikoarenean. Izan ere, nabarmendu du Jaurlearitza "apustua" egiten ari dela

udal guztiek artxibo "txukuna" izan dezaten, bi helburu jakinekin: "Dugunaren kontserbazioa eta kaleratzea; gure ondarea zabaltzea, oso aberatsa baita".

Jaurlearitza jarri zen udal artxibo historikoaren antolaketaz arduratzen den azpikontratarerkin harremanetan ere, historialariak kontatu duenez, Udalean ez baitago teknikaririk horretarako. "Bazekiten artxibo hau ez zela bolumenaren aldetik oso potoloa, herria txikia delako, baina bai, ordea, historia handikoa". Eta, hain

justu, horretaz jabetu ziren eurak ere dokumentazioa katalogatzen hastean. "Balio handikoa da, bai tipologiaren bai edukiaren aldetik".

Hala ere, nabarmendu du Jaurlearitzak ez ezik, Udalak ere apustua egin duela funts historikoa zein administratiboa ondo katalogatuta eta deskribatuta egon dadin. "Badakigu baliabideak mugatuak direla, dirua ere hala dela, eta, askotan, artxiboaz ahaztu egiten gara. Baina hemen garrantzia eman zaio: ari gara ikusten azken urteetan poliki-poliki gauzak txukun ari direla egiten". Hala, erantsi du Antzuolako Udalak baduela sentsibilizazioa artxiboarekiko, dagoena kontserbatzeko eta ez galtzeko. "Bestela, gure historia, gure oinarriaren zati inportante bat, galdu egingo litzateke".

Zehazki, 2023ko aurrekontuetan Udalak 16.000 euroko diru-partida bat du zehaztuta artxibo administratiboa eta historikoa digitalizatzeko.

Gerora, gehiago

Bada, Odriozolak uste du artxiboaren digitalizazioa "garrantzitsua" dela ikerlariarentzako, historialariarentzako, lan "nekettsua" delako euren, eta, askotan, ez dutelako bilatzen beharrezkoa duten dokumentazioa. Baina horrek beste bide bat eskaini dezakeela azpimarratu du.

Ikerlariarentzako ez ezik, gehitu du herritar soilentzako ere inportantea dela, sarritan jo behar izaten delako dokumentazio zaharrera izan ditzaketenez zalantzak argitzeko: "Esate baterako, testamentuen berri izateko".

Antzuolarrek ere, beraz, izango dute horretarako aukera,

akta-liburuak eta hidalgia digitalean kontsultatzeko. Gero, asmoa da dokumentu gehiago digitalizatzea, baina, aurrez, sailkatu, deskribatu eta katalogatu egin behar dira; ondoren, baloratu eta baiezkota erabakiz gero, digitalizatu.

Izan ere, orain digitalizatu dituzten 163 dokumentu adibidez hartuta, azaldu du 11.000 irudi baino gehiago direla, eta, beraz, ezin daitekeela artxiboan dagoen dena digitalizatu. "Garrantzia emango zaie dokumentuei, inportantzia historikoarengatik edo kontserbazio egoerarengatik". Alegia, digitalizatu aurretik ondo baloratu behar da ea zer duen material bakoitzak eta baliagarria den edo ez.

Gaur-gaurkoz, 2.770 dokumentu daude udal artxibategian, eta, Udalak ezer erabakita ez duen arren, Odriozolak nabarmendu du esku artean dutela frankismo garaiko funts bat, katalogatu, deskribatu eta antolatu gabe dagoena, 1960ko hamarkadaren amaieratik 1990ekora, gutxi gorabehera. "Ziur aski, hortik hasiko gara, eta, administratiboki, posible da gauza asko argitzea".

Dena den, digitalean ez bada ere, fisikoki kontsultatu daitezke artxibategian dauden dokumentuak. Horretarako, udal-tertxera deitu daitezke eta hitzordu bat eskatu; Odriozolak, berriz, azaldu du hura moldatuko litzatekeela interesa duenari harreara egiteaz.

EUSKADIKO ARTXIBO HISTORIKOAK DUEN PLATAFORMAN IZANGO DIRA IKUSGAI DOKUMENTUAK

Antzuola eta Aiherra arteko mendi ibilbidea aurkeztuko dute

Webgune batean jaso dituzte ibilbidearen xehetasunak, eta horren berri emango dute martitzenean, Urruñan

A.R.K. ANTZUOLA

Antzuola eta Aiherra (Nafarroa Beherea) herrien arteko loturak are gehiago sendotzeko, bi herrien arteko mendi ibilbide bat sortzen aritu dira, eta horren berri emango dute udalek zein

bultzatzaileek martitzenean, hilaren 21ean, Urruñako Xaia ostatuan (Lapurdi) egingo duten aurkezpenean, 12:00etan.

Ibilbide horren xehetasunak webgune batean bildu dituzte, eta, zehazki, hori bera aurkez-

tuko dute. Oraingoz, euskaraz izango da soilik, baina, gerora, gazteleraz eta frantsesez jartzeko asmoa ere badute. Alabaina, aurkezpenean emango dituzte azalpen gehiago.

Dena den, aurreratu dute martxoaren 25ean ibilbidearen etapa bat egingo dutela: Itsasu (Lapurdi) eta Aiherra artekoaren zati bat. Izena emateko azken eguna hilaren 23a izango da. Horrez gain, apirilaren 2an, Legazpi eta Antzuola arteko egingo dute, eta, bazkaria. Salgai



Murala, Antzuolan. A.R.K.

daude txartelak liburutegian eta udaletxean hilaren 27ra arte.

Elkarlan gehiago

Ez da, ordea, elkarlan bakarria izango. Udalbiltzak bigarren aldiz ondu baitu Geuretik Sortuak programa, eta Aiherrako eta Antzuolako udalek batera jardungo dute aurtengoan. Hala, Pette Etxebarría zinemagile zuberotarrak zinemagintzan oinarritutako lan bat egingo du bi herrien artean, euskarazko sorkuntza bultzatzeko.



San Isidro pilota txapelketaren lehen aldiko irudi bat, 2019ko maiatzean. GOIENA

Etzi hasiko da San Isidro pilota txapelketa

Olalde pilota elkartearen gidaritzapean, martxoaren 19an, 26an eta apirilaren 23an jokatu dira lehen faseak, benjaminetan, alebinetan, infantiletan eta kadeteetan. Bigarreneko partidak maiatzaren 7an izango dira, eta finala, maiatzaren 13an

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarría ANTZUOLA

Bigarren aldia izango du aurten San Isidro emakumezkoen pilota txapelketak, pandemia aurretik egin baitzen lehen aldiz, 2019an, baina, ordutik, saiakerak egin arren, ezin izan dute antolatatu. Hala ere, oraingoan, bai. Olalde pilota elkartearen gidaritzapean, domekan, hilaren 19an, hasiko da binakako txapelketa, 10:00etan. Goizper eta Erreka Taldeen eta Antzuolako Udalaren laguntzarekin, benjaminen, alebinen, infantilen eta kadeteen mailetan jokatu dira partidak.

Benjaminen eta alebinen mailari dagokionez, guztira, 11 bikotek hartuko dute parte. Parte-hartzaileak, ordea, hiru taldetan banatu dituzte, eta talde bakoitzeko pilotariek egun ezberdinetan jokatu dituzte lehen faseko partidak; alabaina, guztiek jokatu beharko dituzte hiru partida dagokien egunean. Hala, talde bakoitzeko lehen bi sail-

katuek izango dute bigarren fasera igarotzeko aukera, eta horietan sailkatutako lehen bikotek finalera igaroko dira zuzenean. Tartean, gainera, badira antzuolarrak ere.

Infantilen eta kadeteen mailan, berriz, partiden ordena berbera izango da. Besteen eran, 11 bikotek hartuko dute parte, 22 jokalarik, eta faseak zein horiek jokatzeko egunak berdinak izango dira.

Egunak, zehaztuta

Martxoaren 19an, 26an eta apirilaren 23an jokatu dira lehen partidak; bigarren fasekoak, berriz, maiatzaren 7an izango dira. Azkenik, maiatzaren 13an jokatu da bi mailako finala,

PARTIDA GUZTIAK JOKATUKO DIRA HAMABI TANTORA; FINALA, HAMASEIRA ETA HEMEZORTZIRA

herrian San Isidro eguna ospatuko den egunean.

Partiden nolakotasunari dagokionez, finala izan ezik, guztiak jokatu dira hamabi tantora; finalean, ordea, tanto gehiago eskuratu beharko dituzte: benjaminen eta alebinen mailan hamaseira jokatu dute; eta hemezortzira infantiletan eta kadeteetan.

Bergarakoan izen-ematea

Bestetik, Arrano pilota txapelketa herrikoia antolatu du Bergarako Ernaik, eta jakinarazi du Antzuolako Aitz Garbi tabernan izena emateko aukera dagoela. Azaldu duenez, bikote bakoitzak 22 euro ordaindu beharko ditu eta kamiseta bana jasoko dute. Interesa duenak, beraz, martxoaren 19a izango du horretarako azken eguna, domeka.

Txapelketaren egunari dagokionez, apirilaren 3an hasiko da eta maiatzaren 20an izango da final handia.

Udalbiltzak Energia Gida aurkeztuko du gaur Torresoroan

Udalbiltzak antolatuta, *Energia komunitateak*: herritarren ordua ekitaldia egingo dute gaur Antzuolan, Udalbiltzak hainbat adituren ekarpenarekin batera osatu duen udalentsako Energia Gida aurkeztea izango duena helburu.

10:00etan hasiko da, Torresoroa aretoan, eta Beñardo Kortabarría Antzuolako alkateak egingo du

ekitaldiko agurra. Ondoren, Jabi Asurmendi Udalbiltzako lehendakariak hartuko du hitza, gidaren aurkezpen laburra egiteko, eta, azkenik, mahai ingurua egingo da hiru hizlarirekin: Xabier Zubialde, energian aditua; Aitor Ossa, Goiener kooperatibako kidea; eta Oihana Lorea, Artelan eta Ko-Energiako kidea.

Edozelan ere, ez da hor amaituko, Aritz Otxandiano energian adituak hitzaldia egingo baitu, ekitaldia bukatzeko. Herritarrak ere gerturatu daitezke.

Antzuola, Alardea eta armarría bat Patxi Olabarriaren lanean

Hasieran liburu bat idazteko asmorik ez bazuen ere, 2009an hasi zen Patxi Olabarria herri-kidea eta historia-zalea Antzuolako armariaren gaineko ikerketarekin, handik kanoiak kentzeko eskaria iritsi zitzaionean Udalarari. Horri esker, azaldu du armarría ez ezik Alardea ezagutzeko aukera izan duela. Bidean, hainbat lan ezagutu

ditu, baina, batik bat, Rosa Ayerberena azpimarratu du.

Bada, urteetako lanaren ostean, *Antzuolako armariaren alardea* liburua aurkeztuko du martxoaren 21ean, martitzena, 18:30ean, Torresoroa aretoan. *Antzuola, Armarría eta Alardea* atalak bildu ditu lanean. "Pentsatu izan da Alardeko mairuaren erreprezentazioa dela armarríko errege presoa, baina kontrakoa da: armarríko errege kateatuaren imitazioz sortu zen Mairuaren Alardea".

Miren Gallastegi izango da PSE-EEko alkategaia

PSE-EEren hitzetan, maiatzaren 28ko udal eta foru hauteskundeetarako hautagairik "onena" da. Orain artean Gallastegik oposizioan egin duen lana nabarmendu du, zinegotzi izan baita azken bi agintaldietan. Hark, berriz, adierazi du "ilusio handiz" aurkezten dela, "herriak aurrera egin dezan ongizatean eta bizi-kalitatean".



Miren Gallastegi hautagaia. PSE-EE

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

Izarrak, kometak, planetak eta galaxiak

Udalaren eta udal liburutegiaren babesarekin, astrotopaketak iragarri ditu Ilatargi elkarteak Elgetan. Interesa piztu eta zaletasuna bultzatzeko asmoz hilean topaketa bat egiteko asmoa dute 16 urtetik gorakoendako. Lehena hilaren 29an izango da

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Astehenean ireki zituen atear astronomiari buruzko erakusketak zeramika-gelan. "Eskolako LH-5 mailako neska-mutikoei landutako maketak daude ikusgai, eta horrekin batera hainbat argazki. Batzuk Ilatargi elkarteko kideek ateratakoak dira eta beste batzuk. NASAk egindakoak", azaldu du Ilatargi kide Gorka Buruagak. Ez da martxan jarritako ekintza bakarra; izan ere, udal liburutegian gaiarekin lotutako liburu-interesgunea dago kontsultagai. "Ilatargitik hainbat liburu proposatu dizkigute gaiaren inguruan material eguneratua eduki dezagun, eta erosi egin dira liburu berriak", azaldu du liburutegiko arduradun Geaxi Ezpeletak.

Erakusketak zein interesguenak helburu amankomuna dute; astronomia herritarrengana hurbiltzea eta zientzia horrekin zaletasuna piztea. Astrotopaketak etorriko dira ondotik. "Martxoaren 29an egingo dugu lehenengoa, 18:30ean, liburutegian. Asmoa da uda artean bost bat astrotopaketa egitea; guztiak hileko azken eguaztenean. Taldearen martxaren arabera ekainekoa eta uztailekoa kanpoan egingo dira, eta jendeak intere-

sa balu aurrera begira jarraipena izango dute astrotopaketek", azaldu du Ezpeletak.

Ilatargi elkarteak

Zeruko objektuak edo argizagiak –izarrak, planetak, kometak, galaxiak...– eta Lurraren atmosferatik kanpo gertatzen diren fenomenoak aztertzen dituen zientzia da astronomia. "Ilatargi bailara mailako elkarteak da, eta hainbat herritako partaideak ditu: Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara, Elgeta... Batzuek astro-argazkilaritza dute gustuko, beste batzuek behaketak... Saiatzen gara jakituria hori gure artean konpartitzen eta transmititzen, eta gure inguruan zaletasuna zabaltzen", azaldu du Buruagak.

Testuinguru horretan kokatzen dituzte Elgetako astrotopaketak. Urrian hil zen Ilatargi elkarteko kide Manu Arregi, eta haren heriotza kolpe handia izan zen. Hark egiten zuen dibulgazio-lanari jarraipena ematea erabaki dute orain elkarteko kideek. "LH-3tik LH-5era arteko ikasleek astronomia lantzen dute, eta ibili gara hezkuntza zentroetan hitzaldiak eta formakuntzak eskaintzen. Aktibitateak ere egin ditugu –gauetz nola orientatu, neguko

zerua, planisferioak garatu...–. Ikusten dugu halakoak egiten ditugunean interesa sortzen dela, eta gure helburua bada milaka urtetik lantzen den zientzia jakituria berriz ere herritarren eskura jartzea".

Ilatargi elkarteko kideak boluntarioak dira, eta kultura astronomoarekin zaletasuna bultzatzearekin batera nahiko lukete jendea erakarri elkartera.

Teleskopioak kalera

Gorka Buruagak behin baino gehiagotan atera izan du teleskopioa kalera. Aurreko ikasturtean behaketa-saio bat egin zuen Herri Eskolako umeekin. Udako gau batean ere jarri zuen teleskopioa plazan, eta gerturatu zitzaizkion hainbat lagun jakin-minez. "Teleskopioa erabiltzeko formakuntzak ere egin daitezke, eta prest nago nire teleskopioa formakuntza hori jaso duten herritarren eskura jartzeko", esan du. Ekintza puntualak izan dira orain artekoak.

TALDEA ERATZEKO INTENTZIOAREKIN EGINGO DUTE LEHENENGO ASTROTOPAKETA



Ezpeleta, Buruaga, Lasa, Gonzalez eta Bilbao, liburutegiko interesgunean. L.Z.L.

Orain, asmoa da epe luzeagoko zerbait egitea. "Batuetan planetak ditugu aurrez aurre eta ez ditugu ikusten, edo ikusten ditugu baina ez dakigu planetak direla", ohartarazi du Buruagak. Teknologiari esker egindako aurrerapenak ere azpimarratu ditu. "Lehen, Ilargia jainko bat zen, baina bi edo hiru lente sartu eta konturatzen gara mendiz osatuta dagoela Ilargia".

Lehen topaketa hilaren 29an

Taldea eratzekeko intentzioarekin egingo dute lehen astrotopaketa. "Asmoa da talde bizia sortzea. Gaiak, iraupena zein ekintzak parte hartzen duen jendearen interesen arabera moldatuko ditugu", esan du Buruagak. Azaldu du lehen saioan gai orokor bat landuko dutela. "Bertan galdetuko dugu jendeak zer-nolako interesak dituen. Proposamen batzuk eramango ditugu, eta joango gara taldearen profila definitzen". Argitu behar da astrotopaketak 16 urtetik gorakoendako direla.

Ezagutza-trukea

Liburutegia izango da astrotopaketen gune nagusia. "Liburutegian, azken urteetan, *Zugandik hurbil* leloak batzen duen filosofiatik ari gara lanean, herritarrentzat eta herritarrekin. Liburutegiaren misioa bada, besteak beste, etengabe prestakuntzarako baliabideak eskaintzea eta iritzi-, informazio- eta ezagutza-trukerako guneak sustatuz erreferentziatzeko informaziogune eta herritarrendako topagune izatea. Gorka Buruagak behin baino gehiagotan aipatu izan digu bazuela interesa astronomiarekin lotutako zerbait egiteko herrian, eta, liburutegia ezagutzaren trukaketa gune moduan ulertuta, proiektuak berehala jaso zuen Kultura batzordearen onarpena", azaldu du Ezpeletak. "Komunitateetik komunitatearendako egindako egitasmoa da, eta garrantzitsua da liburutegia izatea ezagutza-truke horretarako espazioa".

Boluntarioak behar dira erretiratuen elkarteak

Xalbadorpe elkarteko erretiratuek egin berri dute urteko batzarra. 35 lagun bertaratu ziren, eta, diru kontuen inguruko azalpenak eman ostean, 2022an egindako ekintzen balorazioa eta 2023rako aurreikusitako diren inguruko azalpenak eman zituen Jose Antonio Ojanguren presidentek. Galdera-erantzunen tartean, aspaldiko kezka

baten berri eman zuen presidentek: boluntarioak behar dira ekintzak antolatzeke. "Hamar edo gehiago", esan zuen Ojanguren. "Ez badago laguntzailerik, ekintza batzuk bertan behera geldituko dira, eta atear ixteko arrisku handia dago". Hala, deialdi berezia egin dute. Elkarteari jarraipena emateko lanerako prest daudenek 650 50 58 99 telefono-zenbakira deitu behar dute lehenbailehen. 2022an, bestalde, 21 alta eta hamar baja izan dituzte elkarteak.

Aurrerantzean ez da ludotekan eguneko bonurik izango

Azken asteotan gora egin du erabiltzaile kopuruak ludotekan, eta Udalak jakinarazi du hainbatetan gaintu dela edukiera. Hori horrela, eta zerbitzu egokia emateko, Udalak erabaki du bertan behera uztea eguneko bonuak erabiltzeko aukera. Aurrerantzean, beraz, bi aukera izango dira: ikasturte erdiko bonua –140 euro– edo hilabeteko

bonua –40 euro–. Prezio horiei hoberiak aplikatu behar zaizkie, dagokien kasuetan.

Heziketa kontuekin lottuta, Nerea Mendizabal psikopedagoak hitzaldia egingo du eguaztenean. Aldundiaren Treba Gurasoak eskaintzaren barruan, seme-alaben autoirudiaz eta haien autoestimua elikatzeke tresnei buruz arituko da. Zaintza zerbitzua egongo da. Interesatuak aurrez eman behar dute izena, udala@elgeta.eus helbidean edo udaletxera deituz.

Mendixotx Eguna egingo du domekan mendi taldeak

Aurtengo ibilbideei hasiera emateko, Tolosa eta Amasa-Villabona arteko mendi buelta egingo dute Kantsatzeke Mendi Taldeko kideek. Uzturreko gurutze ondotik pasa eta Loatzo gaina zapaldu ostean helduko dira helmugara. Bazkaria Tolosako Eguzkitza sagardotegian egingo dute. Argibideetarako: 690 74 00 56 (Whatsapp).

"Oso pozik" Afizioz antzerki-lehiaketarekin

Euskarazko antzerkigintza amateurra izan zen irabazle nagusia zapatuan Espaloian jokaturako Afizioz lehiaketan. Bost talde aritu ziren, eta Tolosara joan zen sari nagusia. Amaitu da Afizioz, baina jarraipena dute Elgetako sormen-egonaldiek

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA Debagoiena Antzerki Plataforman (DAP) "oso pozik" daude Afizioz antzerki amateur lehiaketak emandakoarekin. Zapatuan jokatu zen lehenengo aldiz, eta Euskal Herriko bost antzerki-talde amateur elkartu zituen Espaloia kafe antzokiak. Sari nagusia – 2.000 euro– Tolosako Katuska taldearen *Armiarma* antzezlanak jaso zuen. Aktore onenaren saria ere Katuskarendako izan zen; izan ere, Idoia Bengoetxeak eskuratu zuen. Publikoaren saria Oñatiko DAP Helduak taldeak jaso zuen.

Euskarazko antzerki-sorkuntza sustatzeko eta sortzaileen lana ezagutzera emateko sortu zen Afizioz. "Oso pozik gaude lehiaketak emandakoarekin", azaldu du DAPeko Josu Zubiak. "Mila oso orekatua egon zen lehiaketan, baina lehiaketa honetan garrantzitsua ez zen lehiaketa. Ikusten dugu poliki-poliki aktore amateurren, ikusleen eta antzerkigintzan atzeko lanetan dihardutenen arteko sarea badoala sendotzen. Hori bazen ekimen honen helburu garrantzitsuetako bat".

Antzerkigintza amateurra

Antzerki-talde amateurrek aukera gutxi izaten dituzte obrak



Tolosako Katuska taldeko kideak, Afizioz lehiaketan jasotako bi sariekin. DAP

PARTE-HARTZAILEAK ESKERTUTA DAUDE, PLAZA BAT, AUKERA BAT ETA PUBLIKO BAT EDUKI IZANAGATIK

erakusteko. "Gehienetan, egiten duzu emanaldi bat zure herrian eta, akaso, beste bat ondokoan. Hori horrela, parte-hartzaile guztiek eskertu dute euren zirkulutzotik irteten izana", azaldu du Zubiak. "Elgetako Udalar

eskertu behar diogu espazioa laga izana".

Aktoreak ere eskertuta agertu dira. "Plaza bat, aukera bat eta publiko bat izan dugu, eta hori garrantzitsua da", zioen Katuska taldeko Ander Malbadik. "Gure obra aurkezteko plaza bat edukitzea ez da erraza izaten", gehitu zuen DAP Helduak taldeko Ariane Telleriak. "Esperientzia oso aberasgarria izan da", zioen Iker Plazaola oñatiarrak: "Ez naiz etorri bakarrik nire lana egitera, baizik eta ikustera ingurukoak zertan ari diren".



Ixotzen energia-kooperatibaren jendaurreko aurkezpena, eguaztenean. L.Z.L.

Datu-bilketa abiatu du Elgetako Ixotzen energia-kooperatibak

Herritarrei eskaintako zerbitzuen inguruko informazioa eskuragarri dute; 'ixotzen@gmail.com' da kontaktua

L.Z.L. ELGETA

Eguaztenean egin zuten Ixotzen kooperatibaren aurkezpena. 50 bat herritar elkartu ziren Enaitz Ezpeletak, Roberto Sanzek eta Debagoiena 2030eko Aritz Ameztegik esateko zituztenak entzuteko. Energia kooperatibako bazkide egiteko aukera dute orain elgetarrek. Hiru bazkide-tza-mota daude aurreikusita: bazkide erabiltzaileak –izan pertsona fisikoak zein juridikoak–, bazkide langileak –epe motzerako baino gehiago epe luzerako aurreikusten direnak– eta bazkide laguntzaileak. Azken

kategoria horretan sartzen dira erakundeak eta enpresak, eta baiezkoa emana dute dagoeneko Udalak, Fagor Taldeak eta Elgetako Pagatza Taldeak.

Kontsumo-ereduen azterketa

Lehen proiektua frontoiko teilatuan 45 kilowatteko instalazio fotovoltaikoa egitea izango da. Egitasmoaren bideragarritasuna baloratzeko, interesatuen kontsumo-ereduen azterketa egin behar da. Udaletxean daude bete beharreko formularioak, baita *labur.eus/ixotzen* helbide elektronikoan ere.

GORA ETA BEHERA



Asentzio ermitako kanpaia lapurtu dute

Leihotako bateko burdinazko barra bi lekutik aterata sartu ziren lapurrak ermitara. Zantzu guztien arabera, barruan zegoen eskailera hartu eta teiltura igo ziren.



Sormen-egonaldiek jarraitzen dute

Aste bukaera honetan Nerea Atxa arrasatearrak ekingo dio sormen-egonaldia. *Urdina* lana sortzen ari da, eta domekara bitartean izango da Elgetako kafe antzokian. Astelehenean, berriz, Les Bobe Bobe taldeko kideek hartuko dute lekukoa. Hilaren 28rako iragarri dute sortzen ari diren *Pelukerixakoak* obraren irekiera-ekitaldia. Sorkuntza-lana erakutsiko dute.



Les Bobe Bobe taldeko antzezlan bat. LES BOBE BOBE



Gure Bazterrak taldearen lanaren berri emateko martitzenean elkartutako taldea. O.E.G.

Irunberrikoa ikertu eta liburuan jaso dute

1990eko ekainean Irunberriko arroilan hiru etakideren eta Guardia Zibilaren artean izandako tiroketaren gaineko gertaera ikertu du Oñatiko Gure Bazterrak taldeak, Pako Aristi idazlearekin. Hilaren 30ean kaleratuko dute liburua, Erein-en eskutik

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Iraganari begirako proiektuak egin izan ditu Gure Bazterrak taldeak, eta oraingoa 1990eko ekainaren 25ean Irunberriko gertatutakoaren ikerketa izan da. Lan hori egiteko, baina, Pako Aristi idazlearen laguntza izan dute; 2022ko urtarrila ezkerre ibili dira elkarlanean lana egiten. Gure Bazterrak taldekoek adierazi dutenez, jende askorekin egin dute berba; tartean, Gasteizen gaiari buruz jakiteko egin zuten deialdian parte hartu zutenekin.

Ondorioetako batzuk

Egindako lanetik "aurrerapauso nabarmenak" atera dituztela adierazi dute: "Holandar turistatetako batekin kontaktuan jartzea lortu dugu, eta inportantea da hark esan diguna eta esan ez diguna. Egun hartan Irunberriko arroilan zeuden umeetako batzuekin egoteko aukera izan dugu, eta haien testigantza ere inportantea da. Sumarioan ager-

tzen diren xehetasun guztiak aztertu ditugu eta nabarmenak dira kontraesanak. Garai hartako protagonistak elkarrizketatu ditugu eta pista garrantzitsuak eman dizkigute", azaldu du Gure Bazterrak taldeko kide Ander Lizarralde.

Gertaera jasotzeko lana

Irunberriko arroilan eguerdian izandako tiroketa hartan Herbas sarjentua hil zuten etakideek, eta German Rubenach kidea buruan tiro batekin agertu zen iluntzean, oso larri zaurituta. Nafarroa Ospitalera eraman zuten eta bizirik atera zen. Susana Arregi oñatiarra eta Jon Lizarralde andoaindarraren hurrengo goizean agertu

'IRUNBERRI 1990, ARROLLAREN NEGARRA' LIBURUA APIRILEAN OÑATIN AURKEZTUKO DUTE

ziren arroilan; bi tiro zituen buruan Arregik eta bat Lizarralde. Bertsio ofizialak suizidioa aipatu zuen, baina, herraren bertsioaren arabera, guardia zibilek harrapatu, torturatu eta hil egin zituzten, eta zer gertatu zen jakiteko egin dute lan hori: "Aldarrikatzen genuena eta duguna garbi dago zer den: egia jakitea; izan ere, egun negargarri hartan ez ziren bi gauza gertatu, bakarra gertatu zen, ez bi".

Apirilaren 26an Santa Anan

Gertatutakoa jakiteko egindako ikerketa jaso dute orain Gure Bazterrak taldekoek eta Pako Aristik *Irunberri 1990, arrollaren negarra* liburuan. Erein argitaletxeak kaleratuko du, martxoaren 30ean, eta lau aurkezpen egingo dituzte gero. Donostiako Koldo Mitxelena izango da lehenengoa; Oñatin apirilaren 26an egingo dute, Santa Anan. Andoainen eta Iruñean ere egingo dituzte.



NIRE USTEZ

ARANTZAZU UGARTE

Gora Oñatiko Inauteriak!

Badira hainbat urte Oñatiko Inauterietan dantzan egitera irteten hasi nintzela. Dagoeneko galdu ezineko festatzen daukat. Parte-hartzaile guztiek –dantzari, musikari, pertsonaia, eta jaiaren murgildutako edonor– giro paregabearen pasatzen dugu eguna; bai dantza egiten, baita bazkaltzen ere. Ikusi besterik ez dago urterik urte nola errepikatzen dugun esperientzia. 400 bat pertsona izan gara aurten! Eta zein ondo pasatu dugun...

Baina jaiak gozatu ahal izateko, ezinbestekoa da antolatzaile talde batek hartzen duen lana eta ardura. Egunean bertan egitarau osoko xehetasun guztiak ondo lotuta egon behar dira; eta ez da erraza halako jendetzarekin moldatzea! Horrez gain, aurretik egin beharreko lanak guztia dago: bilerak, entsegu guztiak... Zelako buruhausteak, eta zelako pazientzia entseguetan daukatena!

Hitz hauek, beraz, Oñatiko Inauterien antolaketa diharduen lantalde osoarentzat dira; eskerrik beroenak eta zorianak egiten duzuen lanagatik. Gora Oñatiko Inauteriak!

Aitziber Fernandez izango da hautagai sozialista

Aitziber Fernandez 47 urteko oñatiarra da Alderdi Sozialistaren Oñatiko hautagaia, bigarren. Sozialistek udalean galdutako ordezkari "berreskuratzeko" lan egiteko konpromisoa hartu duela dio, eta "ilusioz eta arduraz" aurkeztuko dela, "herritarren bizi-kalitatea hobetzea" helburu duen proiektu batekin.



Aitziber Fernandez. PSE-EE

GORA ETA BEHERA




Alanbre arriskutsuak jolas parkean

"Udaltzainak abisatuta egon arren, ez da ezer konpondu. Alanbre horiek oso arriskutsu daude aspalditxo. Ereinu hauek gehiagotan ikuskatzea komeni dela uste dut, zerbait gertatu baino lehen. Eskerrik asko", dio herritar batek, Ugarkaldeko jolas eremuan ateratako argazki horrekin.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



Azken entseguetan sartuta, estreinaldirako

'Sehaska kanta gorriari' martxoaren 25ean estreinatuko dute, Santa Anan. Arta Kolektiboaren antzezlan da, eta emakumeen sormen lana ikusarazteko Udalak emandako lehen bekaren emaitza. Sarrerak salgai daude ohiko tokietan

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Oñatiko Udalak emakumeen sormen lana ikusarazteko emandako bekarekin *Sehaska kanta gorriari* antzezlan egin du Arta Kolektiboak, Alaine Agirre idazlearen *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama* liburua oinarri hartuta. Azken entseguak egiten dihardute, hilaren 25ean da-eta estreinaldia, Santa Anan. Beheko sarrera gehienak salduta daude dagoeneko.

Askotariko diziplinak

Udaleko Kultura eta Berdintasun sailen arteko ekimena izan da, bien artean gauzatutakoa. Emakumea eta sormena hartu dituzte ardatz eta antzezlan izan da lehen emaitza, baina izan zitekeen literaturatik edo zinematik egindakoa ere. Arta Kolektiboko neskek "txundituta" gelditu ziren Alaine Agirreraren liburuarekin, eta pandemia aurretik zuten buruan hura antzerki bihurtzea. Haien nahiak eta Udalaren helburuak bat egin zuten duela urtebete. 2022an hasi ziren prestatzen eta ordutik "sekulako abentura" izan da proiektua euren dako. "Liburua zaila da antzerkira ekartzeko, eta erabaki dugu guri nondik helden zaigun adieraztea. Badaude pasarte batzuk berehala



Balzategi, Azkoaga, Castañeda, Martínez de Cestafe eta Bastarrika, Santa Anan.

identifikatu ahal direnak eta beste batzuk, sormen handikoak", aurreratu du Amaia Castañeda aktoreak.

Irene Balzategi eta hura agertuko dira oholztan, Gentzane Martínez de Cestaferekin zuzendaritzapean. Hirurek osatzen dute Arta Kolektiboa. Baina lan horretarako diziplina askotariko emakume asko gura zituzten ondoan, eta Itziar Bastarrikarekin –iruditegiaren ardura–, Jone Azkonagarekin –soinu teknika– eta Donostiako Muare taldearekin –abestien diseinatzaileak– osatu dute lantaldea. "Hiru emakume gara, bizipen eta ideia ezberdinak ditugunak. Asko zaindu dugu elkar, komunikazio handia izan dugu, eta prozesua ederra izan da. Barruko gauzak azalertzeko modua da antzerkia niretako, eta uste dut publikoko pertsona orok bizi izan duten momenturen bat ikusiko duela lan horretan", dio Balzategik.

Alaine Agirre idazleak badu proiektuaren berri, eta Oñatin ere izan da, baina ez du emaitza ikusi oraindik. Gonbidatuta dago estreinaldirako.

Alaine Agirre idazleak badu proiektuaren berri, eta Oñatin ere izan da, baina ez du emaitza ikusi oraindik. Gonbidatuta dago estreinaldirako.

Euskal komikiaren erakusketa zabalduko dute kultura etxean

Lehen aldiz ekarri dute Gipuzkoara, eta, gaur inauguratu arren, hilaren 20tik 31ra egongo da ikusgai

O.E.G. OÑATI

Euskal komikia 1975etik izeneko erakusketa ibiltaria ekarriko dute Oñatira, eta ikusgai egongo da astelehenetik aurrera kultura etxeko erakusketa gelan. Inaugurazioa, baina, gaur egingo dute, egubakoitza, Komikiaren Nazioarteko Egunean, hain justu. Inaugurazio saioa 18:30ean izango da, Mikel Begoñaren eskutik. Helduendako zein gazteentzako aurkezpena da.

Komikiak irakurtzeko eta komentatzeko taldea egongo da aurrerantzean udal liburutegian,

Tertulixan egitasmoko hirugarren taldea. Eta erakusketa horrekin egingo diote ongiatorria ekimenari. Hilaren 20tik 31ra bitartean egongo da zabalik, kultura etxeko erakusketa gelan, 18:00etatik 20:00etara. Bitarte horretan, umeendako komiki tailerreko bi saio egingo dituzte Usue Egiarekin, eta martitzenean, Komikia Tertulixan egitasmoko lehen saioa. Josune Urrutiaren *Hoy no es mi día* landuko dute, emakumea eta minbizia gaitzat duen lana. Kike Infame da dinamizatzailea.

Zabalik dago apirileko arte jardunaldietarako izen ematea

Antixena gaztetxeak antolatuta, serigrafia, argazkigintza, buztin, pintura eta grafiti tailerrak egingo dituzte

O.E.G. OÑATI

Arte jardunaldiak antolatu ditu Antixena gaztetxeak apirilerako. Buztina landu, argazki esteno-peikoa, grafitiak, Photoshop, mural margotzea, serigrafia eta pintura tailerrak egingo dituzte, besteak beste. Apirilaren 12tik 26ra bitartean izango dira jardunaldiak eta izena emateko epea zabalik egongo da hilaren 31ra arte. Parte hartu gura duenak mezua bidali behar du helbide honetara: antixenakogaztetxia@gmail.com. Tailerrez gain, komikigintzak Euskal Herrian

izan duen ibilbideaz berba egiteko mahai ingurua antolatu dute. Asisko Urmenetak, Marakatuek, Maite Caballerok eta Pernan Goñik hartuko dute parte tertulia horretan.

Iñaki Jauregieltzo, Amaia Cuesta, Xabier Mendizabal, Gonzal Belategi, Iban Martínez eta Xabier Ugarte dira, esaterako, jardunaldietako saioak gidatuko dituztenetako batzuk. Data horien baitan, Antixena Eguna ere egingo dute, azokarekin eta kontzertuekin. Bazkarirako txartelak Arranon daude salgai.



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLOKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com

"Ez dut inoiz ahaztuko aurtengo martxoaren 11"

RUPER ARKAUZ KORTABARRIA TXIRRINDULARITZA SAILEAN IBILITAKOA
Aloña Mendiko txirrindulari gaztetxoek omenaldia egin zioten Arkauzi joan den zapatuan. Hark ez zekin ezer, eta "sorpresa galanta eta polita" hartu zuen

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Aloña Mendiko txirrindularitza sailean urte askotan egindako lana eta ibilbidea eskertzeko, omenaldia jaso zuen Ruper Arkauz Kortabarririk (Oñati, 1964), txirrindulari gaztetxoek prestatutako ekitaldian.

Nolakoa izan zen omenaldia?

Ezustekoa eta oso polita. Ingurukoek, etxeok eta txirrindulari guztiek zekiten, baina nik ez, eta sekulako sorpresa hartu nuen.

Ondo gorde zuten denek sekretua.

Bai, bai. Lasterketa egunetan beti ibiltzen naiz laguntzen: helmuga jartzen, autoarekin... Dena delakoa egiten. Argazkiak ateratzea ere gustatzen zait, eta horretan aritzeko eskatu zidaten. Eta podiumeko argazkiak ateratzen ari nintzela, hara non entzuten nuen nire izena. Sekulakoa izan zen, oso-oso polita.

Ondo prestatutakoa, gainera.

Ondo asmatu zuten, bai, neure ibilbidearen irudia izan zen hori: txistua jotzen ume bat –neue ere ibilitakoa umetatik–, dantzariak –dantza munduan ere sartuta ibili naiz–, txirrindulari gaztetxoak aureskua egiten –umeekin beti harreman ona izan dut eta gustatu izan zait eurekin lan egitea–, bertsoa ere bai –umetan nire taldean ibilitako batek– eta



Ruper Arkauz Kortabarririk. R.A.

"NEURE BIZITZAKO PASARTEAK IKUSI DITUT OMENALDIAN: TXISTUA, DANTZA, TXIRRINDULARITZA..."

merienda eta afaria ere bai omenaldian. Ez dut inoiz ahaztuko aurtengo martxoaren 11.

Oparia ere jaso zenuen, gainera.

Horretan ere bete-betean asmatu zuten: txaleko bat, atzean *antolakuntza*, nire izena eta *jefa*

jefa jartzen duena. Behin, lasterketaren batera zerbait konkretua eramateko esan omen nien umeei, eta horren berri eman zuen euretako batek etxean, "jefe jefiak" esan zuela esanez. Makina bat barre egin dugu horren harira, eta horrekin ere akordatu dira. Sekulakoa izan da. Eskerrak eman gura dizkiet denei. Urte asko egin ditut txirrindularitza sailari lotuta; zuzendaritzan ere bai. Indartsu ikusten dut orain saila, eta erretiratzea pentsatu dut, baina laguntzen jarraituko dut.

Oñati eta Elorregi arteko bidea itxi egingo dute bihar bi orduz

Zapatu arratsaldeko duatloiak aldaketak eragingo ditu Urtiaginerako bidean eta herri barruko kaleetan ere

O.E.G. OÑATI

Bihar, zapatua, egingo da aurtengo Oñatiko duatloia, eta horrek hainbat aldaketa ekarriko ditu. Zirkulazioari lotutako aldaketak izango dira. Adibidez, itxita egongo da Oñati eta Elorregi arteko errepidea, bi orduz, arratsaldean, 16:30etik 18:30era. Mozketa horrek, gainera, Zañartu inguruko errepideei ere eragingo die.

Errepideei lotuta, Arantzazurako bidean ere egongo dira aldaketak. Izan ere, Urtiaginerako igoko dira parte-hartzaileak

bizikleta proban, eta hori egin ahal izateko zirkulaziorako itxita egongo da errepide zati hori. Horrela, Oñati eta Urtiagain arteko errepidea ere itxita egongo da ibilgailuendako, 17:00etatik 18:00etara. Herri barruan, berriz, 16:00etatik 19:00etara, tarteka, herriguneko zenbait kaletatik ere egingo dira ibilgailuak pasa Bidaurretatik Kasablankako irteerara bitartean.

Aldaketen berri emateko, oharrak jarri dituzte atarrietan antolatzaileek, eta barkamena eskatu dute alde aurretik.

Orkestra barrutik ezagutzeko saioak egingo dituzte zapatuan

Umeei eta gurasoek hari-instrumentuak ezagutzeko saioa izango da, abestien laguntzarekin

O.E.G. OÑATI

Bi emanaldi egingo ditu Aequus Ensemble orkestrak bihar, zapatua, Jose de Azpiazu musika eskolarekin batera, Santa Anan. Lehenengoa Musika Mugimendua III-ko haur eta familiendako izango da, instrumentua aukeratu behar duten 6 urteko ikasleendako eta euren etxe-koendako. Aitor Bian zuzendararen eskutik, orkestraren instrumentuak eta teknikak ikusiko dituzte; biolin txiki batzuk jotzeko aukera ere izango dute: "Orkestrako instrumentuak

deskribatu eta ezagutzeko ditugu abesti ezberdinak erabiliz. Horrez gain, jolas txiki bat ere egingo dugu, abestiak ezagutzeko". 11:00etan izango da. Bigarrena 12:30ean hasiko da eta herritar guztiendako izango da. Kontzertu hori musikarien artean jarraitu ahal izango dute umeei. Material didaktikoa ere prestatu dute, orkestra hobeto ezagutzeko. "Hari-taldea entzuteko aukera ona da. Musika sentitu eta probatu ahal izango dute ikasleek", dio musika eskolako irakasle Arantxa Iturriotzek.

Lasterketa ostean omenaldia

Denboraldiko bigarren lasterketa, lehendabizikoa etxean, izan zuten Aloña Mendiko txirrindulari gaztetxoek joan den zapatuan, eta lasterketa ostean egin zioten omenaldia Arkauzi. Sancti Spiritus unibertsitate aurrean izan zen aurrez mimo handiz prestatutako ekitaldia. Talde-argazkia atera zuten gero denek elkarrekin.



Taldeko txirrindulari gaztetxoak, Arkauzi egindako omenaldian. ALOÑA MENDI

Futbol campusa egingo dute aurtengo Pazko Astean

Aloña Mendiko futbol sailak antolatuta, aurtengo futbol campusa egingo dute apirilean, Pazko Astean.

Gaztetxoei zuzendutako futbol campusa izango da. Hain zuzen ere, 2012an, 2013an eta 2014an jaiotako neska-mutikoendako. Eta joan den urtean egindako moduan, Azkoagainen izango dira campuseko futbol-saioak.

Daten inguruan, Pazko Astean izango dela aurreratu dute campuseko koordinatzaileek. Apirilaren 11n, 12an, 13an eta 14an egingo da, goizean, 09:00etatik 13:00etara. Plazak mugatuak dira eta aurretik eman behar da izena, interesa edukiz gero. Izen ematea zabalik dago dagoneko eta mezua helbide honetara bidalita eman daiteke izena, baita informazio gehiago jaso ere, behar izanez gero: alona-futboludalekuak@gmail.com. Prezioa 60 euro da.



GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

HARMAILATIK

ASTELEHENERO 21:30EAN ETA 23:30EAN
BERTAKO KIROLARIAK PROTAGONISTA DITUEN KIROL SAIOA

DATORRENA:

MARTXOAK 20
OÑATIKO DUATLOIA

MARTXOAK 27
AHUNTZEN MENDI LASTERKETA ETA GORLAKO IGOERA

APIRILAK 3
ARRASATE-UDALATX MENDI LASTERKETA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA



goiena™

Zu hemen zaude.

Pierra Mentako euskal posturik onena Alonsok

MENDIKO ESKIA Axier Alonso oñatiarrak eta Asier Labauri iruindarrak 30. postuan amaitu dute Alpeetako lasterketa ezagunena; bikote euskaldun batek egindako inoizko marka onena da: "Pena hartu genuen hirugarren etapa bertan behera utzi zutenean"

Xabier Urzelai Atxa ARRASATE

Orain arte ez da egon Pierra Mentan 30 onenen artean sailkatu den euskal ordezkariarik. Munduko mendiko eskiko lasterketa entzutetsuenak eskiazaile onenak batzen ditu urtero, eta joan den asteburuan, Axi Alonso (Oñati, 35 urte) eta Asier Labauri (Iruñea, 26 urte) aurrealdeko multzo horretan lehiatu ziren. "Pena da hirugarren etapa bertan behera utzi izana, Asierrek eta biok ikusten genuelako lehenengo bi etapetan oso sentsazio onak izan genituela, ez geundela nekatuta. Ez geneukan egurra hartu izanaren sentsaziorik eta koska bat gora egiteko moduan geundela uste genuen. Noski, Pierra Mentan edozer gerta daiteke, edozein momentutan makalaldi bat, materialarekin arazoak... Baina oso sentsazio onarekin genbiltzan. Hala ere, helburua beteta itzuli gara handik, oso pozik", adierazi dio GOIENari Axier Alonsok.

Aurtengo Pierra Menta ez da beste edizio batzuetakoa bezain gogorra izan. "Normalean, 10.000 metroko desnibel positiboa gainditzen dugu lau egunean, eta aurtun 6.000 metro inguru egingo genituen. Lehenengo bi etapak ederrak izan ziren: lehenengoan



Alonso, bigarrena, eta Labauri, laugarrena, Montblanc atzean dutela. JOCELYN CHAVY



Labauri, Otxoa, Ajuria eta Alonso. JOCELYN CHAVY

elurra egin zuen, baina kondizio onak izan genituen, haizerik ez -18 kilometro, 2.500 metro positibo- eta bigarren etapan oso eguraldi ona izan genuen -25 kilometro, 2.600 metro positibo-".

Hirugarren etapa hasieran, baina, euria ari zuen: "Proba hasi aurretik, mela-mela eginda geunden denok, eta ibilbidean zehar lasterketa zaintzen egon behar zuten boluntarioendako ere ez zen batere egun gozoa. Hala, hastera gindoazenean erabaki zuten antolatzaileek etapa bertan behera uztea, eta eguna turismo apur bat egiteko aprobetxatu genuen. Gauean, berriz, elur mordo egin zuen, eta elur-jausi arrisku handia zegoen laugarren etapara begira. Hala, han ere ibilbidea egokitu egin zuten, laburtu. Azken etapa hartan 800 metroko desnibel positiboa gainditu genuen, eta, Pierra Mentako ibilbide klasikoa egin ez bagenuen ere, egun horretan ohitura den moduan ikusle mordo egin genituen animatzen. Zegama-Aizkorrin sortzen den jende-ilararen antza hartzen diot nik hari, ederra da".

Pierra Menta, talde-lana

Bikote moduan egindako lanarekin pozik itzuli da Alonso. "Asier eta biok ederto konpondu gara, nik ez diot zentzurik ikusten lehiakortasuna muturrera eramatearren bikotearekin haserretzeari, baina ez pentsa, han denetik ikusten da", dio, barrez. "Daukadan onena eman badut eta nire bikotekideak beste hurrenbeste egin badu, konforme, ezin da gehiagorik eskatu. Gero, laguntzeko gaude, gaur ni egon naitekeelako txarto eta bihar, bikotekidea. Talde bat gara, azken batean, baina bai, lasterketan

muturreko jarrerak ere ikusten dira". Eta Pierra Mentaren ezauzgarriak nabarmendu ditu Alonsok: "Ondo egokitzen naiz proba horretara; benetako mendiko eskiko lasterketa da. Eski pisten inguruan egiten dituzten beste proba batzuetan eskiazaile gazteek sekulako sasoia erakusten dute. Baina hau tekniko da: mendi ertzetan sokekin ibili beharra, materiala zaindu beharra, kontuz ibiltzeko moduko jaitzierak daude... Ederra da".

Ajuria eta Otxoa ere pozik

Aitor Ajuria (Leintz Gatzaga, 25 urte) eta Aitor Otxoa (Oñati, 50 urte) ere pozik etorri dira Pierra Mentatik, bereziki, lasterketa aurretik bi eskiazaileak osasun arazoekin ibili zirelako eta zailtasun horiek atzean utzita lasterketaz gozatu ahal izan zutelako. 118. postuan sailkatu ziren. "Elkarrekin egon gara denok hotelean eta primeran ibili gara. Lehenengo etapen 100. postu inguruan ibili nahi zuten eta lortu zuten helburua, baina bigarren etapen Otxoari eskiko finkapen bat erabat blokeatu zitzaion, eta denbora dezentente galdu zuten han".

Hain zuzen, aurtengoa Aitor Otxoaren 18. Pierra Menta izan da; oñatiarra edizio gehien egin dituen eskiazaileen taldean dago. "Hara joaten zailtza handiekin sumatu nuen Aitor [Otxoa], baina erabat motibatuta itzuli da; ez da haren azken Pierra Menta izan, seguru".

30. POSTUAREKIN POZIK BUELTATU DIRA, BAINA ETAPAK LABURTU IZANAREN PENA HARTU DUTE

Beñat Zubizarretak eta Javier Oskozek jantzi dituzte txapelak

PILOTA Soralue Txapelketako finaletan bereziki nagusien partidua izan zen berdindua (22-21)

X.U. BERGARA

Promes mailan Unai Amiano eta Beñat Zubizarreta aritu ziren nor baino nor gehiago; ez zen esperotako finala izan, Zubizarreta izan zen-eta jaun eta jabe. Pilotari ataundarra hasieratik

jarri zen aurretik, sakez min handia eginda (22-11).

Nagusien mailan, berriz, zaleak berpizten dituen partidua horietako bat jokatu zuten iazko txapeladun Gaizka Karregalek eta Javier Oskozek. Partidu polita

bezain gogorra eta orekatua izan zen. Finaletan askotan gertatzen den bezala, tentsioagatik eta urduritasunagatik bi pilotariek kostatu egin zitzaizkien partiduan sartzea, eta hasierako tantoetan akats ugari egin zituzten. Behin lasaituta, ondo bukatutako tanto ikusgarriez gozatu zuten zaleek. Biak sartu ziren airez ahal izan zuten guztietan. Bazirudien partiduko gogortasunak Oskoz kalte egingo ziola, iraungo ez zuela ematen zuelako, baina harendako izan zen txapela.



Finaleko protagonistak talde-argazkian. J.B

Helene Alberdi faborito garbia da Oñatirako

DUATLOIA Bihar egingo dute Oñatiko duatloia 30. edizioa, 15:50ean. Emakumezkoetan faborito garbia dago, eta gizonezkoetan lehia handiagoa aurreikusten dute antolatzaileek. 200 atleta batuko dira irteera-puntuan

Xabier Urzelai Atxa OÑATI

Euskal Herriko duatloi beterranoenak hiru hamarkada bete teko ditu bihar, eta Oñatiko duatloi taldeko lagunek dena dute gertu ikuskizunerako. Lasterketan batuko diren 200 atleten artean, antolatzaileek aurreikusten dute gizonezkoetan indarrak parean egongo direla, baina emakumezkoen (16:00) artean Helene Alberdi kontrarioak baino koska bat gorago dagoela. Gizonezkoen (16:10) dagokienez, berriz, Joanes Goitisoló, Ander Garcia Rendo eta Ruben Ruzafa atletek eman dute izena, besteak beste, Gero, lasterketak bakoitza bere tokian jarriko du.

Berritasun askorekin

Nobedade asko izango ditu bihar go lasterketak. Hasteko, helmuga Oñatiko plazan egongo bada ere, aurten plazaren erdi-erdian jarriko dute, eta, hori horrela, boxak Atzeko kalera eramango



Hiru emakumezko, iaz. GOIENA

dituzte. Gainera, kirolari ego kituak ere izango dira irteeran (15:50), eta hor Antxintxikako ordezkariak egongo dira; tartean, Joseba Azkarate herrikidea. Hala, antolatzaileek lasterketa-ko irudiak zuzenean erakutsiko

dituzte pantaila erraldoian; izan ere, gizonezko eta emakumezko onenekin kamerari bana joango dira –eta astelehenean *Harmailatik* saio berezia izango da Goiena telebistan–.

Ibilbide aldaketa

Ibilbidearen nobedade nagusia da bizikletako tartean duatletek aurten lan gogorragoa izango dutela zain. "Lehenengo itzulian Urtiagaineraino igoko dira, eta bai, hiru kilometroko igoera gogorra da hori. Ikusiko dugu duatletek zelan moldatzen diren malda haietan. Bigarren itzulian motzagoa izango da eta Santipillaotik pasako dira, baina ez dira berriz Urtiagaineraino helduko", adierazi du Andoni Correasek.

Duatloia tarteko, Oñati eta Elorregi arteko errepidea bi orduz egongo da itxita (16:30-18:30) eta Oñati eta Arantzazu arteko errepidea, berriz, ordu betez (17:00-18:00).

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

GIZ. OHOR. ERREG.

Bergara-Tolosa

Zap. 16:30. Agorros.

Mondra-Hernani

Zap. 16:30. Mojategi.

Aloña Mendi-Mutriku

Zap. 16:30. Azkoain.

UDA-Zumaiako

Dom. 16:30. Ibarra.

EMAK. OHOR. ERREG.

Intxaurdi-Bergara

Dom. 12:30. Donostia

Mariño-Leintz

Arizmen.

Dom. 17:00. Irun.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

Bergara-Urdaneta

Dom. 16:30. Agorrosin.

Indautxu-Aretxabaleta

Dom. 19:30. Bilbo.

GOINGOEN MAILA

Aretxabaleta-Mondra

Zap. 18:00. Ibarra.

Segura-Antzuola

Dom. 09:00. Alustiza.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Mondrate-Gernika

Zap. 17:30. Musakola.

Eskoriatza-Lagun O.

Zap. 18:30. M. Muñoz.

GIPUZKOAKO TXAP.

Ingou Aloña-Mondrate

Zap. 16:00. Zubikoa.

SASKIBALOA

EBA

Getxo-MU

Dom. 11:30. Fadura.

EMAK. LEHEN MAILA

MU-Afilados Gasteiz

Dom. 18:00. Iturripe.

GIZON. LEHEN MAILA

Atletico SS.-MU

Zap. 18:00. Donostia.

GIPUZK. LEHEN MAILA.

Soraluce BKE-Dolphins

Zap. 16:00. Labegarai.

Mekalki Aloña-Astigar.

Zap. 18:00. Zubikoa.

ESKUBALOA

GIZON. EUSKA. TXAP.

Alkar T.-Fagor

Profesio.

Dom. 12:00. Gasteiz.

EMAK. EUSKAD. TXAP.

Leizaran-Cons. Aloña

Zap. 18:45. Andoain.

GIZ. GIPUZK. TXAP.

Mugarri Ingou-Ormaiztegi

Dom. 12:00. Iturripe.

Soraluce BKE-Egia

Zap. 18:15. Labegaraie.

ERRUGBIA

GIZON. EUSKAD. TXAP.

Atletico-Arrasate RT

Zap. 16:00. Donostian.

EMAK. EUSKAD. TXAP.

Arrasate Eibar-Bera

Bera

Zap. 13:00. Unben.

PILOTA

Oñatin: Gaur (18:30) hiru partidu.

Bergaran: Gaur (19:00),

bi partidu. Zapatuan

(18:00) partidu bat.

Aretxabaletan: Gaur

(19:00) hiru partidu.

Arrasaten: Zapatuan

(16:00) partidu bat.



MUko neskek Ibaizabalen kontra. GOIENA

Komunikazio Campusa 2023

Bideo-podcasts

Sorkuntza eta zabalkundea sare sozialetan

ANTOLATZAILEAK:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Anima zaitetz eta eman izena!

Euskarazko film laburren labekada berria ikusgai

Euskaltzaleen Topaguneak bultzatzen duen Laburbira euskarazko film laburren zirkuituak sei geltoki izango ditu eskualdean; aurreko astean herriz herri abiatu zuten hogeigarren bildumak askotariko istorioak kontatzen dituzten zazpi film biltzen ditu

Aitziber Aranburuzabala Juldain

ARRASATE

"Euskarazko ikus-entzunezkoen aktibazioan eragiteko helburuarekin" abiatu zuen Euskaltzaleen Topaguneak Laburbira zirkuitua, tokiko euskara elkarteekin elkarlanean. "Gaur egungo zine-magintzaren lagin aparta izanik, euskal sortzaileen lanekin gozatzeko aukera izango dugu martxoaren 6tik apirilaren 5era bitartean", azaldu du Laburbirako koordinatzaile Andoni Urzelaik.

Zazpi film labur

28 film labur jaso zituzten antolatzaileek eta horietatik zazpi aukeratuta osatu dute 80 minutu irauten duen emanaldia. "Denetarikoa istorioak eta kontatze-ko moduak daude, eta horietako batzuk, zinema-jaialdietan sariak jasotakoak dira".

Film labur hauek izango dira ikusgai: Oñatin jaio eta Donostian bizi den Leire Egañak zuzendutako *Erlojupekoa*; Maria Bartolomek, Eric Camposek eta Fernando Martinek zuzendu duten *Olatuen isiltasuna*; Marina Perosanzen *Muskil*; Ane Cuestaren *Asko falta da*; Maider Oleagaren *Irrits*; Iulen Aranaren *Koadro goriari heldu*; eta Josu Martinezek zuzendu duen *Hitzak*.



Erlojupekoa film laburraren fotograma bat. LEIRE EGAÑA

Debagoieneko emanaldiak

- **Aramaio** Martxoak 19, 19:00, Kultura etxean. Txirritola Euskara Elkarteak antolatuta.
- **Bergara** Martxoak 21, 19:00, Seminarixoan. Jardun Euskara Elkarteak antolatuta.
- **Arrasate** Martxoak 21, 19:30, Amaia Antzokian. AED elkarteak antolatuta.
- **Oñati** Martxoak 22, 19:00, Kultura etxean. Udalak antolatuta.
- **Antzuola** Martxoak 26, 18:00, Torresoroan. *Koadro goriari heldu* filmeko zuzendari Iulen Aranarekin solasaldia ondoren. Udalak antolatuta.
- **Aretxabaleta** Apirilak 4, Arkupe kultura etxean. Udalak antolatuta.

'Hautsi da anphora' diskoa, zuzeneko bertsioan ere bai

Bilboko Loraldia jaialdiak bultzatuta, iaz egin zuten biraren fruitua da Pamielak argitaratu duen diskoa

A.A.J. OÑATI

Ruper Ordorikak sinatu zuen lehen diskoa izan zen *Hautsi da anphora*; 1980an argitaratu zuen, eta, lau hamarkada geroago, Elkar argitaletxeak berrargitaratu egin zuen, eta, Loraldia jaialdiak bultzatuta, sei kontzertuko bira egin zuten. "Nire lehen disko pirata dela esaten dut. Ez dut esango gura barik grabatu genuela, baina bai diskoa pentsatu barik grabatu zela. Inork ez zekien grabatuak ginela, eta uste dut horrek baduela eragina, bat-bateotasun handia duelako", dio Ordorikak.

Lan berria eskuetan, "pozik" dago oñatiarra emaitzarekin: "Dokumentu moduan definituko nuke, eta duen gehigarri handiena dela esango nuke, batetik, Atxaga eta biok batera garai bateko gauzei buruz ari garela, eta, bestetik, nire ohiko musiki-



Atxaga eta Ordorika. LORALDIA

kariez gain, hastapenetako nire taldeko kideak ere batzen dituela. Pamiela argitaletxeak argitaratu du, eta, garai bateko kantuez gainera, Atxagaren sei pieza ere jasotzen ditu ondo landutako eta samur irakurtzen den libreto politean".

Iñigo Arregiren eskulturak, Madrilgo David Bardia galerian

Madrilera buelta asko egin ditu azkenaldian Arrasateko Iñigo Arregi eskultoreak. Art Madrid azokan izan zen eta handik egun gutxira zabaldu zuen David Bardia arte-galerian bakarkako erakusketa, martxoaren 25era bitartean ikusgai dagoena. "60 obratik gora batzen dituen bilduma da. Gehienbat, orain dela bost urtetik hona egindakoak,

zaharragoak ere badauden arren. Egurrezko eta korten altzairuarekin egindako eskultura handiak dira batzuk eta egurrezkoak beste hainbat; horiez gainera, horman eskegitako erliebezko eskulturak ere badaude, egurrekin egindakoak batzuk eta papera erabiliz egindakoak besteak. Harrera oso ona ari da izaten erakusketa, inaugurazioan jende asko bildu zen eta aldizkari espezializatuetan ere arretara piztu du", azaldu du Iñigo Arregik.



IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Oñati. Apartamentua ematen da errentan, 60 metro koadrokoa. Logela bat du, egongela, sukaldaria eta bainugela. Interesatuok deitu telefono honetara: 618 72 11 29

104.ERRENTAN HARTU

Arrasate. Errentan hartzeko hiru logelako etxebizitza baten bila nabil. Telefonoa: 663 46 71 10

Arrasate. Etxebizitza bila nabil errentan hartzeko. 643 01 98 98

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza bat hartuko nuke errentan. Telefonoa: 663 46 66 73

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. 15 metro koadroko garaje itxia ematen da errentan, Otalora kalean, Uarkapen. Guztiz berriua, argindarra eta badauka. Hilean 100 euroko errenta. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 639 37 56 47

204. Errentan hartu

Bergaran garajea asteburuetarako. Bergarako San Antonio inguruan garaje bat hartuko nuke errentan, asteburuetarako. 653 74 91 23 edo 617 72 05 96

4. LANA

402. ESKAERAK

Aretxabaleta eta inguru. Goizetan nagusiak eta umeak zaintzeko edota garbiketarako gertu nago. 678 15 23 76

Arrasate. Asteburuetan orduka lan egingo nuke pertsona nagusiak zaintzen edo etxeak garbitzen. 612 27 82 34

Arrasate. Hiru edo lau logelako etxebizitza behar dugu errentan. Telefonoa: 663 48 05 25

Arrasate. Zaintza lanak egingo nituzke orduka, egunika zein etxean bertan bizi izaten. 635 87 73 04

Bergara eta inguruak. Asteazken zehar haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Neska euskaldun arduratsua naiz. Haur Hezkuntzako teknikaria eta graduatua. Haurrak zaintzen esperientzia daukat. 634 42 85 11

Bergara. Asteazken zehar, arratsalde, haurrak, eta nagusiak zaintzeko edo etxeko garbiketarako eskaintzen naiz. Neska

arduratsua naiz eta esperientzia dut. Erizain laguntzaile titulatu eta Haur Hezkuntzako graduak azken mailako ikaslea. 664 29 58 71

Debagoiena. 15 urteko esperientzia duen emakumea zaintza lanak egiteko gertu. Arratsaldetan, orduka, edota gauean ere bai. Gidabaimenarekin, legezko agiriarekin eta soziosanitario titulazioarekin. 680 87 38 66

Debagoiena. Asteburuetan edo asteazken zehar orduka lan egingo nuke, zaintza zein garbiketarako. 632 19 08 26

Debagoiena. Asteburuetan edo asteazken zehar orduka lan egingo nuke, zaintza zein garbiketarako. 632 63 77 38

Debagoiena. Emakume arduratsua garbiketara edo zaintza lanetan jarduteko gertu. 663 48 05 25

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Orduka, asteburuetan edota etxean bertan bizi izaten. 651 96 78 69

Debagoiena. Emakumea lan bila, etxean bertan bizi izaten edo orduka. Haur eta pertsonen zaintza lanetarako, garbiketarako. 663 65 76 85

Debagoiena. Emakumea prest garbiketara lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko, orduka zein gauez. 641 44 16 30

Debagoiena. Emakumea prest pertsona nagusiak zaintzeko. Soziosanitario ikastarorekin. Telefonoa: 747 42 79 07

Debagoiena. Erizain laguntzaile gertu orduka zaintza eta denetarikoko garbiketarako egiteko. Telefonoa: 620 23 58 15

Debagoiena. Eskarmentu handia daukat ostalaritzan, garbiketara lanetan eta umeak eta pertsona nagusiak zaintzen. Lan bila nabil. 604 37 79 34

Debagoiena. Esperientzia duen neska nagusiak zaintzeko gertu. Orduka, etxean bizi izaten edo gauean. Telefonoa: 666 49 37 17

Debagoiena. Esperientzia handia eta titulazioak dituen neska asteburuetan zaintza lanak egiteko gertu. Bai etxean eta baita ospitalean ere. Autoa daukat. 600 00 51 00

Debagoiena. Esperientziadun neska, titulazioarekin, nagusiak zaintzeko

gertu. 15:30etik aurrera edo asteburuetan 688 72 88 97

Debagoiena. Etxeak, atariak edo tabernak garbitzen lan egingo nuke. 610 99 70 43

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, nagusiak zaintzen edota atari eta abarrak garbitzen. Soziosanitario titulua daukat. 643 73 62 83

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka nagusiak zaintzeko edota atari eta abarrak garbitzeko gertu nago. Soziosanitario titulua daukat. 643 73 62 36

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten, egunean zehar edo orduka zaintza lanak egingo nituzke. Telefonoa: 611 75 75 97 (Fatima)

Debagoiena. Etxean garbitzen, umeak zaintzen, tabernari eta abarrean lan egingo nuke. Telefonoa: 662 47 28 88 (Julia)

Debagoiena. Garbiketara lanetan edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 688 85 46 59

Debagoiena. Gauean nagusiak zainduko nituzke. 633 49 27 40

Debagoiena. Gizona gertu nagusiak zaindu, garbiketarako edota laguntza behar dutenekin mediku eta abarretara joateko. Autoa daukat. Telefonoa: 645 72 92 87

Debagoiena. Gizonezkoa pertsona nagusiak zaintzen edota ostalaritzan lan egiteko. 612 46 34 84

Debagoiena. Goizetan pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. Soziosanitario titulua daukat. 647 31 48 17

Debagoiena. Lan bila nabil eta eskarmentu daukat lan mota desberdinetan: mekanikari, eraikuntza, garbiketara eta zaintza lanetan. Telefonoa: 642 61 12 59

Debagoiena. Lanean hasteko gertu nago pertsona nagusiak edota umeak zaintzen, edota baita garbiketara lanetan ere. Soziosanitario titulua daukat. 664 30 52 22

Debagoiena. Legezko agiriarekin eta esperientzia dituen emakumea lan bila. Etxean bertan bizi izanda nagusiak zaintzen, garbiketara edota egoiztan sukaldar laguntzaile. Telefonoa: 622 71 65 68

Debagoiena. Margoketa eta estukatze lanetan aritzeko gertu nago. Baita gidari edota garbitzaile moduan ere. Telefonoa: 640 66 24 99

Debagoiena. Mutila gertu tabernan, jatebean zein garbiketara lanetan aritzeko. 642 12 52 71 (Alex)

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen, garbiketara edota etxeko langile moduan lan egingo nuke. Soziosanitario titulua eta esperientzia daukat. 641 51 13 06

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, ostalaritzan garbitzen edota gidari lanetan aritzeko gertu nago. Jardun osoz zein egun edo ordu solteak egiteko gertu. Telefonoa: 624 95 05 40

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiei laguntza emateko, umeak zaintzeko edota atari, elkarte eta abarrak garbitzeko. 612 27 68 33

Debagoiena. Neska arduratsua gertu, etxean bertan bizi izaten edo bestela, lan egiteko. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. Asteburuetan ere bai. Telefonoa: 632 21 99 06

Debagoiena. Neska arduratsua goizetan nagusi

siei laguntza emateko, umeak zaintzeko edota atari, elkarte eta abarrak garbitzeko gertu. Telefonoa: 604 88 27 26

Debagoiena. Neska gertu garbiketara edo zaintza lanetarako. Orduka, etxean bertan bizi izaten zein asteburuetarako. Telefonoa: 672 78 04 30

Debagoiena. Orduka garbiketara edota etxeko prest. 642 37 01 92

Debagoiena. Orduka lan egingo nuke garbiketarako egiten edo pertsonak zaintzen. Baita ordezkapenetan ere. Eskarmentua eta legezko agiriak ditut. 666 07 42 98

Debagoiena. Orduka, garbiketara lanetan edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Baita asteburuetan ere. 612 56 12 39

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzeko gertu nago. 631 57 86 53

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukat eta lan egingo nuke gauean, asteburuetan zein orduka. 631 12 51 27

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukat lanean hasteko gertu nago, gauean zein orduka. Telefonoa: 689 90 85 13

Eskoriatza eta inguruan. Nagusiak zaintzen, garbiketara, salitzaile edota antzeko lanetan aritzeko gertu nago. 602 51 59 08

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Aretxabaleta. DBH4-ko ikasle batek, eskola partikularrak behar ditu Aretxabaletan. Interesatuok deitu zerbaki hauetara: 650 59 24 91 edo 673 25 02 08

7. ANIMALIAK

704. BESTELAKOAK

Txakurra desagertuta. Elorrion txakur bat desagertu zen otsailaren 23an. Zuria eta marroia da, ile laburra, tamaina ertainekoa da eta lepoko gorria darama. 688 64 27 11

8. DENETARIK

801. SALDU

Irantsube elkarte. Arrasateko San Andres auzoko Irantsube elkarte gastronomikoan plaza bat salgai. 696 20 79 94

Panteoia Arrasaten. Panteoia saltzen da Arrasaten, marmolezko hilairekin. Deitu zerbaki hauetara: 677 67 51 82 edo 699 64 36 49

ESKER ONA



Indalecio Martinez Gallego



2023ko urtarrilaren 6an hil zen, 88 urte zituela.

Indalecioren aldeko mezara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerririk asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2023ko martxoaren 17an.

ESKER ONA



Juanita Arana Elcorobarrutia



2023ko martxoaren 11n hil zen, 88 urte zituela.

Eskerririk asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2023ko martxoaren 17an.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



NAHIA IRAZOLA ETA UXUE AZKUE GIMNASTAK

Arrasateko Dragoi taldeko gimnastak Turkiako Europako Txapelketara joango dira azaroan.

'Luzapena' Egubakoitza, 18:00, 20:00 eta 22:00



UNAI IPARRAGIRRERI ELKARRIZKETA

ETBko zuzendari arrasatearrarekin egingo du solasaldia Goiatz Arana kazetariak.

'Harira' Martitzena, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Bergara 3 • BERGARA
Tel. 7 Faxa: 645 76 97 97
www.iamakroeti.com

BERGARA:

- Bandiera, 65 m², 3 logela, inguruko, traxelak, bitzara sartzea. 175.000€
- Etzea, 79 m², 3 logela, traxelak, gajea itxi, bitzara sartzea. 220.000€
- Arasate, 85 m², 3 logela, traxelak. 180.000€
- Arasate, 96 m², 3 logela, bitzara sartzea. 150.000€
- Akuntza, 60 m², 2 logela, traxelak, bitzara sartzea. 100.000€
- Bareak, bi etxebizitza: 85 m², 88.820€ eta 46 m², 48.420€. Urformateko gailu.
- Berria, 77 m², 3 logela, aparkaleku, lur zaku, sportemutua (bata barne). 185.000€
- Ena, 60 m², gela 1, traxelak, terraza, bitzara sartzea. 144.000€
- Frankenri, 102 m², 4 logela, inguruko, egurketa. 171.000€
- Iturri posantekoa, 71 m², 2 logela, inguruko, bitzara sartzea. 260.000€
- Martxo, 66 m², 3 logela, inguruko, bitzara sartzea. 170.000€. PREZIO JETSIARA.
- Motena, 53 m², 2 logela, bitzara sartzea. 148.000€
- Motena, 75 m², 2 logela, bitzara sartzea. 149.000€. PREZIO JETSIARA.
- Motena, 75 m², 3 logela, berriketa, bitzara sartzea. 150.000€. Negozioerria.
- Motena, 75 m², 3 logela, bitzara sartzea. 105.000€
- Motena, 86m², 3 logela, bitzara 150.000€. PREZIO JETSIARA.
- Motena, 86m², 3 logela, berriketa, bitzara sartzea. 150.000€. Negozioerria.
- Motena, 96 m², 4 logela, traxelak, inguruko. 139.500€. PREZIO JETSIARA.
- Sonantxat, 75 m², 2 logela, 2 aparkaleku. Bitzara sartzea. 175.000€
- Zabieru, 60 m², 2 logela, bitzara sartzea. 75.000€
- Zabieru, 72 m², 3 logela, garajea zukera. 100.000€

LOKALAK:

- A. Fleming, (julgongela) 50 m², leuzetia eta garajea ditu. Bi sarrera ditu. 65.000€
- Bidekuruzte, 24 m², 3 lokal barne, bi sarrera. Gureta daiteke. 95.000€
- Motena, 114 m², bidetarik sarrera. Oropo ariketarik gabeko. 80.000€

ORAZUAK:

- Balo, 16,47 m². Garaje itxi. 25.000€

OSERTUA:

- Gutxi, 47 m², 3 logela, traxelak, berriketa. 55.000€
- Gutxi, 75 m², 3 logela, traxelak, berriketa. 63.000€ Aukera oso.

KASERRIAK:

- Angitza, Pateiti osua, beraria eta 3 hektoreko lursaila. 175.000€
- Ubaran, beraria eta 15 hektoreko lursaila. 320.000€. PREZIO JETSIARA.

ANTZOKIA:

- Kalegoi, 124 m², duplex, 3 logela, porchea, bitzara sartzea. 290.000€
- Beloko auzoa, 54 m², 2 logela, eremuak behar du. 40.000€. PREZIO JETSIARA
- Beloko auzoa, 54 m², 2 logela, berriketa, bitzara sartzea. 120.000€
- Beloko auzoa, 96 m², 3 log. traxelak eta garajea barne. Bitzara sartzea 198.000€
- Itzelegoena osua, 100m² solai, haitaria bitzara sartzea 275.000€
- Itzelegoena osua, 100m² solai, haitaria bitzara sartzea 170.000€
- Kalebarri, 77 m², berriketa. 51.000€
- Kalegoi, etxe oso, bi etxebizitza eta traxelak. 120.000€

HOTEL:

- Andra Mari plaza, 80 m², 3 logela, terraza adena, traxelak. 158.000€
- Domingo Irujo, 88 m², 3 logela, egurketa, bitzara sartzea. 70.000€

ESKER ONA



Miren Araquistain San Martin

Eduardo Etxaberen alarguna

2023ko martxoaren 10ean hil zen, 89 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2023ko martxoaren 17an.

URTEURRENA



Idoia Juaristi Santos

2022ko martxoaren 19an hil zen, 54 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 19an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2023ko martxoaren 17an.

URTEURRENA



Imanol Garate Unamuno

2022ko martxoaren 9an hil zen, 86 urte zituela.



Haren alarguna: Maria Teresa Elorza Sasieta.

Urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 19an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2023ko martxoaren 17an.

URTEURRENA



Angel Atxa Altuna

2022ko martxoaren 15ean hil zen, 72 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 19an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2023ko martxoaren 17an.

URTEURRENA



Xipri Aiastui Elorza

2022ko martxoaren 19an hil zen, 85 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 19an, 12:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

—
Beti izango zara gure bihotzetan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2023ko martxoaren 17an.

URTEURRENA



Maria Luisa Oyarzabal Madinabeitia

2022ko martxoaren 19an hil zen, 92 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 19an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2023ko martxoaren 17an.

OROIGARRIA



Leire Irizar Urzelai

2023ko martxoaren 14an hil zen, 37 urte zituela.



Txikitatik erakutsi zenigun, zure kemena eta balentria. Elkarrekin pasatu ditugun momentu oro, eramango ditugu beti gure bihotzetan. Gaur gugan utzi duzun hutsunea, ezin beterik izango gara, orain gu guztiongan argi dagizula, gero arte bat besterik ez, Leire, hor, zeru aldean, berriro ikusiko gara.

Zure kuadrilla.
Oñatin, 2023ko martxoaren 17an.

OROIGARRIA



Leire Irizar Urzelai

2023ko martxoaren 14an hil zen, 37 urte zituela.



Lagunartian beti Umoretsu, jator Ta azken unerarte Eutsi dozu gogor Besarkada estu bat Laister arte, Leire.

Zure lagunak: Itxaro eta Jon, Ainhoa eta Agustín, Iratxe, Ane eta Txomin.
Oñatin, 2023ko martxoaren 17an.

X. URTEURRENA



Adrian Arrese-Igor Zumelaga

'Txelen'



Agur esan barik joan hintzan, baina gure artien jarraitzen dok.
"Bandiera rossa trionferá"

Iñaki, Raimundo eta Karmele be gurekin beti.

Atxabaltako kuadrilla.
Aretxabaletan, 2023ko martxoaren 17an.

OROIGARRIA



Zorione Arana Abarrategi

2019ko martxoaren 15ean hil zen.



Inoiz minak irensten bazaitu, beti irriz oroitu nazazu ez da hilko eusten nauen arrazoi bakarra ez da hilko maitasuna.

Arrasaten, 2023ko martxoaren 17an.

OROIGARRIA



Zorione Arana Abarrategi

2019ko martxoaren 15ean hil zen.



Zure izena gure buruan, zure oroitzak gure bihotzean.

Zure kuadrilla.
Arrasaten (Garagartza), 2023ko martxoaren 17an.



Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Guri deitu zuzenean edo, nahizago beharrene, jakinarazi zure asagorako-konpainiari gurekin nahi duzuela agurtu nahi duzuzena.

Marioren, Ibanen eta Maribiren partetik, besarkada magikoak zuzentzeko, bihotza sendatzeko balio duten horietakoak. Guk baditugu gordera zuzentzeko, gure beharra duzuzenerako.

Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

ZORION AGURRAK



BERGARA Izar Unamuno
Unamuno
22an, 5 urte.
Zorionak eta oso ondo pasau zure egunian! Patxo haundi bat familiararen partetik.



ESKORIATZA Aratz Kortazar
Garaizurrebaso
22an, 35 urte.
Zorionak, aitatxo! Muxu haundiak bereziki, Aimarrena eta Norarena!



ESKORIATZA Iraia Diaz de Gereñu
Aguai
21ean, 17 urte.
Zorionak, guapetona! Oso ondo pasatu eta mila patxo, familiarren partetik.



OÑATI Eire eta Gari
Agirrebaltzategi Urzelai
20an, 4 urte. Zorionak, bikote! Segi oin arteko moukuak izaten. Ondo-ondo pasau zuen eguna. Muxu haundi bat etxeko danen partetik!



ESKORIATZA Haizea Diaz de Gereñu
Aguai
20an, 11 urte.
Zorionak! Ondo pasa zure egunean. Segi beti bezala, alai eta jatorra izaten. Muxuak!



BERGARA Elene Perez
Zabaleta
20an, 12 urte.
Zorionak, Elene! Ondo ospatu urtebetetzea! Patxo potolo bat familiarren partetik.



OÑATI Ane Empanza
Judez
19an, 11 urte.
Zorionak, Ane! Patxo haundia danon partetik, bereziki Xabirena.



ANTZUOLA Luka Santos
Lete
Marxoaren 19an, 5 urte.
Zorionak, txiki! Ondo-ondo pasau eguna! Muxu potolo bat Amilletatik.



BERGARA Eki eta Sare
Larrañaga
Barrenetxea
Ekik marxoaren 4an eta Sarek 19an. Patxo handi bana, maitxiak!



ARETXABALETA Joxepa Garciaetxabe
Axpe
19an, 93 urte.
Zorionak, amama! Arkarazoko guapiena, urtetik urtera gaztia. Patxuak!



BERGARA Elene Goikoetxea
Makazaga
Marxoaren 19an, 11 urte.
Zorionak, politx hori! Egund politx-politxa euki!



BERGARA Iker Zabala
Pozo
Marxoaren 18an, 5 urte.
Zorionak, politx hori! Oso ondo pasatu zure urtebetzean!



ARRASATE Ekiñe Retes
De Vicente
Marxoaren 17an, 10 urte.
Zorionak, bihotza, gure bizipoza zara. Muxu haundi bat!



OÑATI Alaitz Isasti
Arkauz
Marxoaren 17an, 10 urte.
Zorionak, politx hori, asko maitte zaitugu. Ondo pasau zure eguna.



ARRASATE Uxue Belategi
Galdos
Marxoaren 16an, 6 urte.
Zorionak, artista! Gozatu horrenbeste espero zenuen eguna!



OÑATI June Urrate
Lertxundi
Marxoaren 16an, 3 urte.
Zorionak, politx hori! Segi horren alai eta jostari! Patxo haundi bat!



OÑATI Jakes Campo
Manias
15ean, 3 urte.
Gure dortoka txikia, lurrean lasaia eta uretan bizia. Zorionak, Jakes!



BERGARA Libe Unamuno
Lete
Marxoaren 15ean, 7 urte. Zorionak, prexioxi! Topera ospatu zure eguna. Muxu potolo bat danon partetik.



ELGETA Amets Agirre
Osa
15ean, 11 urte.
Zorionak, txapeldun! Desio denak bete itzazula eta jarraitu zorientsu izaten!



ARRASATE Irai Zabaleta
Urteaga
Marxoaren 14an, 5 urte.
Zorionak, xagutxo! Mila kilo muxu zuretzat.



ARRASATE Laia Aranzabal
Urteaga
Zorionak, maittia! Izugarri maite zaitugu! Muxu erraldoi bat etxeko partetik.



ARRASATE Xabi Andres
Marxoaren 11n, 8 urte.
Zorionak, Xabi! 8 urte! Segi hain jatorra eta maitakorra izaten!



ARETXABALETA Maddi Nuñez
Belategi
Marxoaren 10an, 8 urte.
Zorionak, titi! Jarraitu gure bizitzak alaitzen. Asko maite zaitugu!

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 17

ANTZUOLA Energia Gidaren aurkezpena
Udalbiltzaren eskutik.
Torresoroan, 10:00etan.

OÑATI Odol-ateratzea
Aurrez hartu beharko da ordua: 943-00 78 84.
Enpresagintzan, 16:30ean.

OÑATI 'Begirada feminista bat gorputz ziklikoei eta ginekologiari' tailerra
Jone F. Zabaletarekin eta Enara I. Dominguezekin, gaur eta bihar.
Euskaldun Berria gelan, 17:00etan.

ESKORIATZA Ipuin kontaketa
Marta Alzaterekin (euskaraz) eta Martha Escuderoekin (gaztelerez), Ahoz Aho Jaialdiaren baitan.
Debalde.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

ARETXABALETA Jaiki elkartearen performancea
Herrixan erosis, eroso ta ponpoxo ekimenaren baitan.
Kaleetan, 19:00etan.

BERGARA Isladak antzerki soziala
Horrela hasi zen dana, Disturbios en la fábrica, Autobus geltokia eta En el restaurante antzezlan laburrak eskainiko dituzte. Sarrerak, zortzi euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

OÑATI Mockers, Occhi Di Farfalla eta Trini Fox taldeak
Sarrerak: bost euro; eta langabeek eta ikasleek, hiru.
Gaztetxean, 21:30ean.

ZAPATUA 18

OÑATI 'Begirada feminista bat gorputz ziklikoei eta ginekologiari' tailerra
Bigarren saioa gaur.
Euskaldun Berria gelan, 10:00etan.

OÑATI 'Debagoienetik ari gara' eguna
Goizean hitzaldiak egongo dira, *Intersektionalitate Euskal Herria*

feminista eraikitzen izenburupean, eta, ondoren, ekitaldi politikoa. Arratsaldean, Skabidean, EH Sukarra, Tribade, Golpe de Estado, Liher eta Lehen Lerroa taldeen kontzertuak.
Plazako frontoian, 11:00etan.

OÑATI Oñatiko duatloia
11:00etan, duatloi txikia; 13:30-15:30, dortsal banaketa; 15:50ean, egokituen irteera; 16:00etan, emakumezkoak; eta 16:10ean, gizonezkoak.
Foruen plazan.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria
3 eta 12 urte artekoendako.
Ordutegia: 11:30-13:30.
San Andresko gazte txokoan.

ARAMAIO Sagardo Eguna
12:00etan, inaugurazioa Iturrietatik eramandako sagardoarekin; eta 14:30ean, bazkaria, herriko tabernan.
Oletan.

BERGARA Oskar Matuterekin solasaldia
EH Bilduren diputatua da Kongresuan; Gorka Artola alkatearekin batera egongo da.
Irala kalean, 13:00etan.

ARRASATE Ogi masa egiteko tailerra
Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

BERGARA 'Hondamendia' antzezlan
Harkaitz Canoren testuan oinarrituta, pandemia eta Zaldibarko abortegiko drama ditu ardatz. Sarrerak, zortzi euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

ARRASATE El Exterminio De La Raza Del Mono, Perlata eta The Billingers taldeak
Sarrerak, bost euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

ARETXABALETA San Jose bola-jaurtiketa irekia
Uratz-Alde elkartearen eskutik. Izen-ematea, bost euro. 175 euro banatuko dituzte saritan.
Bolatokian, 22:30ean.

DOMEKA 19

ELGETA Mendi irteera
Urteko lehenengoa.
Mendizaleen plazan, 08:00etan.

ESKORIATZA 'Hezegunea' topaketa literarioa
Literatura erotikoa eta feministaren gainean egingo dute berba Judit Ruiz de Munainek, Jaione Fernandez de Jaureguik eta Emma Iñiguezek. Debalde.
Zaldibar antzokian, 12:00etan.

BERGARA Musika Bandaren kontzertua
Enrike Txurrukak zuzenduta.
Pilotalekuan, 12:30ean.

BERGARA Hizpide taldea
Segurako hirukotearen emanaldia.
Gorlako kantuan, 13:00etan.

ESKORIATZA 'Buruarin' tailerra
4 eta 12 urte bitartekoendako tailerra. 9 urte artekoak, heldu baten laguntzarekin. Sarrera bost euro da.
Ibarraundi museoan, 17:00etan.

ARRASATE 'Familian jolasean'
0-8 urte arteko haurrendako eta euren familiendako askotariko jolasak.
Okendoko ludotekan, 17:30ean.

ARRASATE Makrame tailerra
Gaztetxoendako
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ARAMAIO Laburbira
Euskarazko film laburrak.
Kultura etxean, 19:00etan.

ARRASATE 'Hobe ixilik' antzezlan
Txalo taldearen lana. Ramon Agirre eta Itziar Ituño taula gainean. Sarrerak, hamar euro.
Amaia antzokian, 19:30etan.

ASTELEHENA 20

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Erorketa tailerra

Landatxope erretiratuen elkartearen eskutik.

Olaran etxean, 16:00etan.

OÑATI Idazketa tailerra

Joxe Mari Iturralderekin.
Liburutegian, 18:00etan.

ARRASATE 'Osasun mentala: zeure burua ulertzen ikasi' hitzaldia

Gazteei zuzendutako hitzaldian, Ainhoa Urretagoienak egingo du berba. Debalde.

Kulturaten, 19:00etan.

MARTITZENA 21**OÑATI Komiki tailerra**

Usue Egiaren eskutik. Aurrez eman behar da izena.

Kultura etxean, 17:00etan.

OÑATI 'Komikia tertulixan' ekimena

Josune Urrutiaren *Hoy no es el día* komikia landuko dute, Kike Infamek gidatuta. Lehenengo saioa.

Liburutegian, 18:30etan.

ANTZUOLA 'Antzuolako armariaren alardea' liburuaren aurkezpena

Patxi Olabarria egilea egongo da.

Torresoroan, 18:30etan.

BERGARA Laburbira

Euskarazko film laburren XX. zirkuituko lanak.

Seminarixoa, 19:00etan.

ELGETA Irakurketa taldea

Hitzez Pitz taldeko kideak.

Liburutegian, 19:00etan.



TXALO

ARRASATE 'Hobe ixilik' antzezlan

Txalo taldearen lana, Ramon Agirre eta Itziar Ituño aktoreekin. Aurrez aurre egunerokotasuneko gaien inguruan egingo dute berba: klima aldaketa, haurdunaldi subrogatua... Sarrerak, hamar euro.

Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30etan.

ARRASATE Laburbira

Euskarazko film laburren XX. zirkuituko lanak.

Amaia antzokian, 19:30etan.

EGUAZTENA 22**ANTZUOLA Erorketa tailerra**

Landatxope elkarteko eskutik.

Olaran etxean, 16:00etan.

ELGETA Tailerra, Nerea Mendizabalekin

Seme-alaben autoirudiaz eta haien autoestimua elikatzeke tresnei buruz arituko da.

Udaletxean, 17:30etan.

ARRASATE 'Erdialdeko Amerikako istorioak' kontaketa

Zoa Mezaren (Nikaragua) eta Maite Frankoren eskutik, Ahoz Aho Jaialdiaren baitan.

Santa Marinako auzo bibliotekan, 18:00etan.

ARRASATE Literatura solasaldia, gazteleraz

Guadalupe Nettel idazlearen *La hija única* liburuaren gaineko saioa.

Kulturaten, 18:30etan.

OÑATI Laburbira

Euskarazko film laburren XX. zirkuituko lanak.

Zinema aretoan, 19:00etan.

BERGARA 'Ramona' pelikula

Jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro.

Seminarixoa, 20:00etan.

EGUENA 23**ARRASATE Sasoibide**

Paseoa eta erizaintza tailerra.

Biteri plazan, 10:00etan.

OÑATI 'Dolu perinatala ikusgai egiten' hitzaldia

Esku Hutsik elkartearen eskutik.

Euskaldun Berria gelan, 18:00etan.

ARAMAIO 'Ama*Eme*Ume*' liburuaren aurkezpena

Liburuaren egilea Estitxu Fernandez eta Erika Lagoma egongo dira.

Kultura etxean, 18:00etan.

ANTZUOLA Umore Ona abesbatza

Landatxopek gonbidatuta.

Torresoroan, 18:00etan.

ARRASATE 'Nuestra libertad' dokumentala eta solasaldia

Teodora Vasquezek aurkeztuta.

Emakume Txokoan, 19:00etan.

ARETXABALETA Virginia Imazen 'Pronoia' ikuskizuna

Sarrerak, bost euro.

Arkupen, 19:00etan.

ARRASATE 'Cuentos de Japón' kontaketa, helduendako,

Yoshi Hiokiren eskutik.

Kulturaten, 19:00etan.

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Crim taldea

Sarrerak, zazpi euro.

Gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA****Ellas hablan solas**

Zapatua eta astelehena: 19:30.

Mi pequeño rey

Zapatua: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA****Los Fabelman**

Egubakoitza eta zapatua: 22:00.

Domeka: 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:30.

Mi pequeño rey

Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA**ARKUPE****Los Fabelman**

Egubakoitza: 22:00.

Zapatua eta domeka: 19:30.

Astelehena: 16:00.

Momiak

Zapatua eta domeka: 17:00.

BERGARA**SEMINARIXOA****El hijo**

Domeka eta astelehena: 19:30.

El chico leon

Domeka: 17:00.

GASTEIZ**FLORIDA****Bajo terapia**

Egubakoitzik domekara: 22:00.

Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:45.

Honor entre ladrones

Domeka: 11:45.

El caftan azul Egubakoitzik domekara: 17:00, 19:30.

Astelehenetik eguenera: 17:30.

El gato con botas

Zapatua eta domeka: 12:00.

El triangulo de la tristeza

Egubakoitzik domekara: 21:15.

Astelehenetik eguenera: 19:45.

Ellas hablan

Egubakoitzik eguenera: 17:15.

Viajando con el papa Francisco

Egubakoitzik domekara: 17:30.

Astelehenetik eguenera: 17:15.

Irati (gazteleraz)

Egubakoitzik domekara: 17:00.

Astelehenetik eguenera: 17:30.

Irati (euskaraz)

Egubakoitza: 19:30, 22:00.

Zapatua eta domeka: 11:30, 19:30, 22:00.

Astelehenetik eguenera: 20:00.

Mi pequeño rey Zapatua eta domeka: 12:00.

La ballena

Egubakoitzik domekara: 19:45.

Astelehenetik eguenera: 20:00.

Los reyes del mundo

Egubakoitzik domekara: 19:30, 21:45.

Astelehenetik eguenera: 19:30.

Mari(dos)

Egubakoitza eta domeka: 17:00,

19:15, 22:00.

Zapatua: 11:30, 17:00, 19:15, 22:00.

Astelehena eta eguaztana: 17:30.

Martitzena eta eguena: 17:30, 20:00.

Momias

Egubakoitza: 17:30, 19:15.

Zapatua eta domeka: 11:45, 17:30, 19:15.

La furia de los dioses

Egubakoitza: 17:00, 19:30, 21:30.

Zapatua eta domeka: 11:30, 17:00, 19:30, 21:30.

Astelehena: 20:00.

Martitzenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Todos a la vez en todas partes

Egubakoitza: 21:30.

Zapatua eta domeka: 11:30, 21:30.

Astelehenetik eguenera: 20:00.

Turandot

Eguaztana: 20:15.

KRITIKA**Los reyes del mundo**

★★★★★

Zuz.: Laura Mora. **Herr.:** Kolonia (2022). **Aktoreak:** Carlos Andres Castañeda, Davison Andres Florez. **Iraupena:** 111 minutu.

Amets baten bila**ANTONIO ZABALA**

Los reyes del mundo filmak Donostiako Zinemaldiko Urrezko Maskorra lortu zuen. Adin askotariko bost gazte dira istorioaren protagonistak. Helduenak 19 urte ditu, eta amamak utzitako lurrak berreskuratzea joatea erabakitzen dute. Horretarako, hiriko iskanbila, konbultsioa eta indarkeria atzen utzi, eta amestutako paradisu antzeko baten bila joango dira. Bidaia luzea da, eta denetatik topatuko dute: laguntzeko prest dagoen jendeak aterpea eta elikagaiak emango dizkie, eta, beste aldetik, indarkeria erabiltzen duten taldeak ere topatuko dituzte. Egunez eta gauzez mendiak, errekek eta basabideak zeharkatuko dituzte. Bidaian zehar,

gazteen arteko adiskidetasun loturak proban ipiniko dira.

Bidaia bitartez herrialdearen ezaugarriak ezagutzen joango dira. Biztanleen bizi-baldintzak, Kolonbian dagoen jende ona, baita herrialdean dagoen indarkeria eta ustelkeria ere. Filma indarrarekin kontatuta dago. Filmatzeko moduak, erabilitako koloreak, agertzen diren paisaiak, edertasuna eta intentsitatea ematen diote. Istorioa garatzen doan neurrian, mutikoen izaerak ezagutuko ditugu. Hasieran, kaleko mutil gatazkatsuak diruditen alde ameslaria azaleratuko da. Utopiaren bila doan taldeak eta gazteek erakusten duten kemenak ukitu poetikoa ematen diote abenturari.



AZKEN BERBA

MARIA AGIRRE

Harmailak baretu

Rollo onean, harmailak lasaitzeko estrategiak pentsatzen ari dira bailarako hainbat kirol talde; horietako bat da UDA futbol taldea. Azkenaldian ez da giro ibarran, talde txiki batetik etorri arren, ozen entzuten baitira futbol zelaietan epaileari edo aurkariei egindako mehatxu larriak.

Saretu, hori da UDAko zuzendaritzakoei entzundako hitza. Herriari arazoaren berri eman, eta herritik konpondu. Berbak modernoa dirudi, baina estrategia ez da hain berritzailea.

1946an, UDA sortu aurretik, herrian zegoen giroa gogoan du Mikel Zuazabeitiak, Hondarribian bizi den aretxabaletarrak. Kontatu didanez, bi talde zeuden: Club Deportivo Aretxabaleta eta Juventud Deportiva Aretxabaleta. Eta bien arteko norgehiagoka handia zen; batzuetan, gehiegizko ikusezina bihurtzeraino. Giro hura bukatu beharra zegoela iritzi zion herrira etorritako Don Luis Agirre abadeak –kasualitatez, Hondarribikoa–, eta, asko kostata, baina hark lortu zuen Aretxabaletako bi taldeak elkartzea. Negoziatzaile ona omen zen, eta nahiago izan zuen garaiko abadeek erakutsi ohi zuten autoritatea alde batera utzita aritu. Orduan ere, *rollo* onak ekarri zuen konponbidea.

BUKATZEKO



Kulturaten (Arrasate) izan zen ekitaldian ateratako talde-argazkia. MIREIA BIKUÑA

Aitortza belaunaldiz belaunaldi eginiko lanari

Gipuzkoa Merkatariak Federazioak 90 urte bete ditu aurten, eta hainbat belaunalditan familia-komertzioei eutsi dieten dendariei aitortza egiten ari da, eskualdeka; Debagoienean bederatzi familia-negozio izan dira omenduak

Idoia Aranbarri Arzuaga DEBAGOIENA Gipuzkoa Merkatariak Federazioak bederatzi komertzio zoriondu ditu oraingo astean Debagoienean: hain zuzen ere, Bergarako sei –Mujika burdingia, Lonbide oinetako-denda, Galarreta oinetako-denda, Etxeberria erloju- eta bitxi-denda, Bolintxo okindegia eta Leturia harategia–, Arrasateko bi –Rezusta Karrikiri eta Landaluze harategia– eta Oñatiko bat –Mendizabal kirol-denda–.

Familia-negozioetako hiru, lau, bost edota seigarren belau-

naldiek jaso dute euren ahaideek martxan jarri zituzten ofizio eta dendei egindako aitortza. Kasu batzuetan, 1933an, 1927an 1913an eta 1904an zabaldu zituzten dendak, eta belaunaldiz belaunaldi negozioari eutsi diote; batzuek, aldaketaren batekin edo besterekin. Horieta-ko batzuk, agian, sorrerako tokitik lekualdatu dituzte horrenbeste urteren ostean; beste batzuek, aldiz, negozioa bera egokitu egin dute, baina oraindik ere egunero zabaltzen dituzte atea.

Erreleboa, zalantzan

Esker hitzak izan dituzte dendariak, hainbeste urtetan belaunaldiz belaunaldi familian egindako lanak aitortza izan duelako. Hala ere, Bergarako Lonbide oinetako-dendakoek, Etxeberria erloju-dendakoek eta Leturia harategikoek, esaterako, "zail" ikusten dute erreleboa izatea. Leturia harategiko Jon Leturiaren hitzetan: "Oso gaizki gaude jarraitzeko. Lan gogorak dira, eta zailena hori da. Hala ere, gogoz gaude honi irtenbide bat emateko". Erloju-dendako Jon Ander Egañak

ere ildo beretik jarraitu du: "Kezka eta poztasunak izaten ditugu, baina negozioa zail dago. Internetek min handia egin digu. Herrian ezagunak gara, eta pozik gaude; jarraitu egin behar dugu. Gure eta bezeroaren artean konfiantza badago, dena errazagoa izaten da".

Edozelan ere, Leturiak dio arotz, latorrigile eta harakin ofizioak ikasteko lanbideak direla, eta jendeari ez zaizkiola halakoak gustatzen, "oso lotuak" direlako eta, aldi berean, "zailak". Dena den, "irtenbide onak" dituzten lanak direla dio: "Lanbide horiek etorkizuna badute, baina, zelanbait, lanerako gogoia izan eta ausarta izan behar da".

Debagoiena, erreferente

90 urte beteko ditu aurten Gipuzkoa Merkatariak Federazioak, eta hainbat belaunalditan familia-komertzioei eutsi dieten dendariei aitortza egiten ari da, eskualdeka. 1.600 komertzio osatzen dute elkartea, guztira. Arrasaten egin zuten aitortza ekitaldia, Kulturaten, astelehenan, eta Gipuzkoako Merkatarien elkarteko Maite Valmaseda zuzendariak adierazi zuen "oso pozgarria" dela Debagoienean egotea: "Elkarrekin beste urte dituzten familia-dendak aitortu gura izan ditugu eta bederatzi dendari egin diegu aitortza hemen; bizpahiru izaten dira beste toki batzuetan, normalean. Hemen, aldiz, 170 urteko ibilbidea dutenak ere badira –Rezusta Karrikiriren kasua da–. Hamarkada guztietan egon dira gainditu beharreko erronkak, baina egoerara egokitzen jakin dute. Eskerrak eman nahi dizkiegu".

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

ARRASATE MUSIKALEN 50. URTEURRENEKO KONTZERTUA

MARTXOAREN 18AN, ZAPATUA, 22:00ETAN
MARTXOAREN 19AN, DOMEKA,
17:00ETAN ETA 23:00ETAN



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

